

1977
amnistia ren
U R T E A

40 URTE GEROAGO





1977 amnistia ren U R T E A

40 URTE GEROAGO



KORAPILOA
S A I L A

01



LEHENGO EDIZIOA

Donostia, 2017ko ekaina

Iratzar Fundazioa

Zuatzu Enpresa parkea
Zuihatzu kalea, Easo Eraikina, 4 behea.
20018 Donostia (Euskal Herria)
fundazioa@iratzar.net
www.iratzar.eus

Edizio honen testuak: Kai Saez de Egilaz, Iñaki Egaña,
Floren Aoiz, Antton Lopez

Itzulpenak: José Morales

Konpilazio grafikoa: Juantxo Egaña

Diseinua: Unai Bergara

Maketazioa: Aitziber Ruiz

Inprimaketa: Gertu Inprimategia (Oñati)

Lege Gordailua: SS 197-2105

ISBN: 978-84-697-2931-1



Aurkibidea

HITZAURREA 15

LEHEN ZATIA 19

- 01. Aurrekariak 21
- 02. Espetxeak eta presoak 29
- 03. Amnistia 35
- 04. Salbuespen legedia, Auzitegi Nazionala 41
- 05. Egitura frankisten erreforma, legalizazioak eta ilegalizazioak 45
- 06. Alkateen Taldea: euskal trantsizio instituzionalerako saiakera bat 55
- 07. Herri ofentsiba eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak 59

BIGARREN ZATIA 65

- 08. Urte hasiera: ikurrina, Euskal Herriko bandera nazionala..... 67
- 09. Otsaila-martxo. Amnistiaren aldeko lehen astea. “Amnistia ez da negoziatzen, herria ari da lortzen” 73
- 10. Maiatza. “Amnistia orokorra eta orain”. Amnistiaren aldeko bigarren astea odolez bete zen 79
- 11. Xiberta: bestelako trantsizio eredu bati begira aliantza demokratiko abertzale bat eratzeko saiakeraren porrota 85
- 12. Frantziaren inplikazioa eta “konfinamenduak” 91
- 13. “Deserriratzeak”. Presoak Europara atzerriratzea amnistia faltsu gisa 99
- 14. Ekaina. Amnistia osoaren aldeko hirugarren astea 105
- 15. Madrilgo Gorteetarako “lehen” hauteskundeak 111
- 16. Uztaila eta abuztua. Askatasunaren Ibilaldia 119
- 17. Abuztua. Estradizio epaiketa Aix-en-Provencen. Apala Askatu 127
- 18. Iraila-urria. Amnistiaren aldeko laugarren astea eta Amnistia Legea 135
- 19. Udazkena. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren berregituraketa: ETA, KAS, Altsasuko Mahaia, Alternatiba 141
- 20. Azaroa. Moncloako Itunak eta lurralde pitxerraren apurketa 149
- 21. Oraingo garai eta erronketarako baliagarri zaizkigun zenbait gogoeta 155

HIRUGARREN ZATIA 159

- 22. Hausnarketa 40 urtera 161
- 23. Egungo agertoki politikoan, Amnistia konponbiderako osagai gisa 169





Aberri Eguna - Gasteiz, 1976ko Apirilak 18. Argazkia: Daniel Velez

Hitzaurrea

Orain dela 40 urte, Euskal Herriak bere historiako garai politikorik gordine-netako bat bizi izan zuen, penintsulako aldean bereziki. 1977an gauza asko gertatu ziren, oraindik gogoan ditugun borrokaldi indartsuei esker euskal preso politiko guztien askatasuna lortu zen eta, besteak beste, Euskal Herria alderik alde zeharkatu zuen mobilizazio gogoangarri bat egin zen: Askatasunaren Ibilaldia.

Espainiako Gorteetarako hauteskundeak egin ziren, Bigarren Errepublikaren osteko lehenak. Lehenago, ordea, amnistiaren aldeko hiru aste antolatu ziren euskal preso politiko guztien askatasuna exijitzeko. Francisco Franco diktadorea ohean hil eta bi urte geroago, hiru aste haiek euskal herritarren sektore zabal baten eta bereziki ezker abertzalearen indarra erakutsi zuten.

Hala ere, herriaren mobilizazio erraldoi hark nahi gabeko ondorioak ere ekarri zituen. Errepresio latza etorri zen bi estatuen eskutik, batez ere Espainiakoaren aldetik⁶. Estatuak hildakoak eta zaurituak eragin zituzten, ehunka lagun torturatu zituzten komisarietan eta Guardia Zibilaren kuarteletan, eta deklaratu gabeko gerra edo “gerra zikina” hauspotu zuten Ipar nahiz Hego Euskal Herrian. Erregimenaren errepresioak zazpi hildako eragin zituen amnistiaren aldeko bigarren astean, eta hilketa haiek inolako zigorrik gabe geratu ziren, polizia indarren ekintza guztiekin gertatzen zen bezalaxe. Inoiz baino ozenago, herriak okupazio indarrak esaten zien.

Konfrontazio politikoa erreformaren eta hausturaren arteko talka bihurtu zen eta, denbora asko igaro den arren, bere horretan dirau.

Azken urteotan, zorionez, 78ko erregimena auzitan jartzeko joerak indarra hartu du Espainiako Estatuan sortutako adierazpide demokratiko eta aurrerakoi berrietan, M15 izeneko fenomenoarekin nola edo hala lotu ahal diren adierazpideetan batez ere. Horrek berriro jarri du mahai gainean hausturaren afera, frankismoaren osteko trantsizio hain goretziari buruzko kritika berri baten ikuspegitik oraingoan. Hala ere, jarrera horien aurrean, beste batzuek denetariko aitzakiak baliatzen dituzte bere garaian agenda erreformista onartu eta haustura eredia baztertu izana justifikatzeko: “*ahal zena egin zen*”, “*aintzat hartu behar da oso garai zailak zirela*”... Ikusteko dago bi irakurketa horietako zein nagusituko den, baina hausturaren aldarrikape-

na ahultzen ari dela antzeman daiteke dagoeneko, ahultze horren zantzuak oso nabariak izanik Euskal Herrian ziklo aldaketaren ondoren ireki den agertokiaren nahiz Kataluniako prozesuaren aurrean.

Euskal Herriari dagokionez, EAJko lehendakari Andoni Ortuzarrek honakoa esan zuen alderdiak 1977an Iruñean egin zuen batzar historikoaren urteurrena ospatzeko Bizkaian egindako ekitaldi batean: *“jendearen ametsekin alferrik jolastu ziren eskuliburuko hausturazale eta iraultzaile guztien kontra erreformaren aldeko hautua ausardiaz egin zutenek bete-betea asmatu zuten”*.

Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da. Frankismoaren erreformaren sustatzaileek “erregimen totalitario batetik erregimen demokratiko baterako” ustezko trantsizioa babestu zuten, ondorengo urteetan ere diktaduraren inpunitatea finkatzeko baliatuz. Gainera, ordura arte haustura demokratikoaren aldeko hautua egin zuten alderdi eta sindikatu gehienak beren lubakira erakartzea lortu zuten. Oraindik pairatzen ari gara orduan inposatu ziguten eredu hura, inoizko krisirik latzena bizi badu ere.

Haize kontra eta oztopo guztien gainetik, ezker abertzaleak hausturaren aldeko apustuari eutsi zion. Trantsizioa benetan demokratikoa izan zedin, ezinbestekoa zen alde zurretik zenbait korapilo askatzea, hala nola presoak kaleratzea, okupazio indarrek Euskal Herritik alde egitea eta autodeterminazio eskubidea onartua izatea, besteak beste. Hori guztia KAS Alternatiban jaso zen, gutxienezkoen programa politiko gisa.

Nolanahi ere, demokratizazio sakon baterako aldarrikapen haiek ez zeukaten lekurik agenda erreformistan. Hala, erreformaren aldekoek Hego Euskal Herriaren ezezkoa jaso zuen konstituzio berri bat ezarri zuten. Espainiako 1978ko Konstituzioak espainiar herria kontsakratu zuen subjektu subirano bakartzat, eta Indar Armatuen esku utzi zuen estatuaren batasuna eta osotasuna defendatzeko ardura. Beste era batera esanda, Indar Armatuek “Espainiaren batasuna” bermatu behar zuten.

Hortaz, Espainiako Estatuaren izaerak oso jatorri argia du: hainbat markadurako diktadura eta, horrekin batera, herritarren borondatea aintzat hartu gabe nazioa entitate bakar, monolitiko eta zatiez gisa ulertzeko era jakobino baten sedimentazio historikoa. Hausturarik gabe, Espainiako Estatu elite ekonomiko klasikoek eta posizioak irabazten ari ziren elite berriek kontrolatutako basatza batean hondoratzen joan zen; lurralde arazoa

gero eta handiagoa bilakatu zitzaion, Euskal Herrian zeukan legitimitaterik ezak oso agerian uzten zuenez; eta klase politikoa ustelkeria endemikoak jota zegoen. Inoiz ez zen inolako apusturik egin eredu ekonomiko berriak sortzeko. Horren ondorioz, turismoa, eraikuntza eta multinazionaletikiko menpekotasun gero eta handiagoa zuen ekonomia eredu bat nagusitu ziren. Hala, garapen eta hazkunde eredugarriaren espejismoa sortu eta ametsezko paradisu baten antzera aurkeztu ziguten Europar Batasuna, kritika oro indargabetuz eta isilaraziz.

Ezker abertzalea koiuntura berrira egokitu zen, bere helburu estrategikoen banderari eutsiz eta askotariko lanabesak baliatuko zituen askapen prozesu baten ereduan sakonduz. Besteak beste, eztabaida prozesu sakon baten ondoren, Altsasuko Mahaia sortu zen, Herri Batasunaren ernamuina. Hogei urte baino gehiagoz, hori izan zen ezker abertzalearen adierazpide politiko, sozial eta elektorala, harik eta PP-PSOE tandemak Alderdien Legea ezarri zuen arte. Beste antolakunde batzuk ere egon ziren, hala nola KAS Koordinakundea, zeina geroago bloke gidari gisa ezaugarritu baitzen.

Hori guztia kontuan izanik, 1977. urtea bi edo hiru garairen arteko mugarria izan zela esan dezakegu. Behin betiko bukatu zen 1936ko estatu kolpearekin hasitako garaia, baina, horrekin batera, ordurako fase aldaketa bat antzeman zitekeen 1960ko hamarkadan lehen urratsak egin zituen eta nagusiki erresistentzian oinarritzen zen askapen mugimenduaren ibilbidean. 1977an, belaunaldi berri bat prest agertu zen konpromisoaren, borrokaren eta askapen mugimenduaren lekukoa hartzeko. Gizon-emakume askok proiektu ilusio-nagari eta kolektibo baten zerbitzuan jarri zuten beren bizitza, Euskal Herria askatzeko borrokan beren onena emanaz. Milaka pertsonak garai hartako koordinatu berrietan borrokan jarraitzea erabaki zuten, hainbat urte lehenago sortu zenean ezker abertzaleak ezarri zituen helburuak lortzeko, hau da, Euskal Estatu Sozialista baterantz aurrera egiteko.



Testuingurua



Aurrekariak

Egutegian ez da jauzirik egoten. Orriak oso azkar pasatzen dira. Gertaerak izaten dira urtaroak, urteak eta hilabeteak lotzen dituztenak. Franco diktadorea 1975eko azaroan hil zen, irailaren 27an bere sinadura odoltsua utzi ostean: Txiki Paredes eta Angel Otaegi exekutatu zituen, FRAPeko hiru militanterekin batera (Xose Humberto Baena, Ramon Garcia Sanz eta Jose Luis Sanchez Bravo).

Diktadorearen heriotza eta iraileko fusilamenduak gertatu aurretik, frankismoak bere azken salbuespen egoera ezarri zuen, Portugalen Salazarren diktadurari amaiera eman zion Krabelinen Iraultzaren lehen urteurrena betetzen zen egun berean. Salbuespen egoeraren hasierak beste albiste bat ere ekarri zuen: Burgosko Kapitaintza Nagusiko fiskal militarrek heriotza zigorra eskatu zuen Jose Antonio Garmendia eta Angel Otaegi ETako militanteentzat. Diktadorearen bizitzako azken hiru hilabeteek oso balantze tragikoa utzi zuten: Poliziak sei lagun hil zituen tiroz eta atxiloketak ezin ugariagoak izan ziren. Guztira, 4.000 pertsona inguru pasatu ziren komisarrietatik eta Guardia Zibilaren kuarteletatik, eta haietako asko torturatuak izan ziren. Errepresioaren jomuga nagusia garai hartan ETA izena zuten bi erakunde armatuak izan ziren (miliak eta polimiliak), baina, borrokarekin lotutako dinamika edota erreferentzia oro suntsitu nahirik, beste erakunde politiko eta sindikal batzuetako ehunka militante ere jo zituen.

1975eko irailaren 27ko exekuzioen aurretik, KAS jaio zen, prozesu sumarisimoari eta heriotza zigor eskaerei erantzuteko helburuarekin. Aldi berean, euskal preso politikoak gose greban sartu ziren. Geroago, bost exekuzioen albisteak protestak biziagotu zituen. Besteak beste, zenbait egun iraun zuen greba orokorra egin zen Euskal Herrian eta manifestazio jendetsuak izan ziren Europako hainbat hiriburutan. Haserre biziz, jendeak Espainiaren zenbait enbaxada erre zituen. Gainera, zenbait gobernu Espainiako Estatu Nazio Batuen Batzarretik kanporatzeko eskatu zuten. Denborarekin, 1975eko irailaren 27a Gudari Eguna bilakatu zen, bizia Euskal Herriaren askatasunaren alde eman zuten euskal militanteak omentzeko eta oroitzeko eguna, alegia.

Francisco Franco handik gutxira hil zen, azaroaren 20an, 83 urte betetzear eta ofizialki aitortutako berrogei eguneko gaixoaldiaren ondoren. 1936an

legezko Errepublikaren kontra matxinatu zen eta, aurkari guztiak neutralizaturik, estatuaren buruzagitza bereganatu zuen. Eusko Gudarostea errenditu ostean, 1937ko udaz geroztik Euskal Herri penintsularrean gobernatu zuen. Gerra egoeran nahiz diktadura militarren pean, Hego Euskal Herriko biztanleek 38 urtez bizi behar izan zuten *generalisimo*aren itzalpean eta agintepean.

Herriak pozez gainezka ospatu zuen Francoren heriotza, baina zuhurtasun handiz, oso gogoan baitzituen irailaren bukaerako gertaerak. Azken finean, Franco ohean hil zen, eta horrek argi eta garbi erakusten zuen Espainiako oposizioa ez zela gai izan diktadorea agintetik kentzeko. Bigarren Mundu Gerraren amaieraz geroztik, eta diktadura matxinadaren edo erresistentzia armatuaren bidez eraisteko saiakera guztiak suntsituak izan ondoren (makiak, esaterako), Gerra Zibilaren aurreko garaian politikaren protagonista izan ziren taldeak diktadorearen heriotzaren zain egon ziren. Hala ere, Franco hil ondoren erregimenak bere horretan iraun zuen.

Ordurako, Espainiako Estatu Europako demokrazia liberalekin homologatuko zuen trantsizio kontrolatu bat diseinatua zuen frankismoak, Estatu Batuen eta mendebaldeko beste potentzia batzuen babesarekin. Estrategia horrek kriminal frankistak zigortzea edo agintetik kentzea ekar lezakeen haustura aukera oro ixten zuen, egitura sozioekonomikoen eraldaketa erradikal oro eragozten zuen eta Espainiako Estatuaren parte izan nahi zuten ala ez libreki erabakitze aukera ukatzen zien herriei.

Aldaketa kontrolatuaren agenda arian-arian nagusituz joan zen hala erregimenaren baitan nola oposizioko indar gehienen artean. Izan ere, kalera begira hausturaren aldeko eta Francok bere ondorengo gisa izendatutako Juan Carlos Borboikoaren kontrako jarrera agertzen bazuten ere, “legetik legera” egindako erreformara makurtzen joan ziren apurka-apurka. Hala, PSOEk, EAJk eta beste indar politiko batzuek ontzat eman zituzten sistemen egutegia eta plana, eta horren arabera jokatzeari ekin zioten.

Abenduaren 5ean, Espainiako ministro guztiak bildu ziren eta Arias Navarro presidentearen esku jarri zituzten beren karguak. Astebete geroago, gobernu berria aurkeztu zen, hiru presidenteordeak aldaturik. Ordura arte, Jose Garcia Hernandez izan zen Gobernazio ministroa (bere agintaldian errepresioa izugarri gogortu zen eta talde parapolizialak jardunean hasi ziren Ipar nahiz Hego Euskal Herrian). Haren ordez, Manuel Fraga Iribarne

izendatu zuten Barne ministro (Carrero Blanco hil ondoren, Espainiaren enbaxadore izan zen Londresen, 1973az geroztik). Fernando Santiago Diaz de Mendibil teniente jeneralak gobernuko presidenteordetza hartu zuen, eta Jose Maria Areilzak Atzerri Ministerioa (Areilza Bilboko alkate izan zen 1937an, Agirre lehendakariaren gobernu erori ostean). Sindikatuen Harremanetako Ministerioa Rodolfo Martin Villari eman zioten, eta Mugimenduko Idazkaritza Nagusia Adolfo Suarezzi. Falangistak ziren biak ala biak.

Franco hil ostean Espainiako Estatuan ireki zen prozesu politikoaren garapenak bi erritmo ezberdin izan zituen: bat Hego Euskal Herrian eta beste bat estatuko gainerako lurraldeetan. Erreforma prozesuaren mugek Euskal Herrian aurkitu zuten herri erantzun sendoa izan zen horren arrazoi nagusia. Diktadurarekiko haustura demokratikoa eta herri gisa dagozkion eskubideen onarpena lortzeko itxaropena zuen gizarte baten erresistentziaren aurrean, mugaren bi aldeetan errepresioa izugarri gogortzea izan zen estatuaren estrategia.

Hori bai, errepresio indiskriminatuarekin batera, estatuak euskal eragileen koopazio estrategia bat jarri zuen abian. Azkenean, inposatutako markoa onartu zuten beraiek ere, Espainiako indar politiko gehienek lehenago egin zuten bezalaxe. Oso denbora laburrean, EAJk, PSOEek eta PCEk albo batera utzi zituzten haustura eskaerak eta autodeterminazio eskubidearen defentsa. Konformismoan erorita, beren diskurtso eta estrategietan ontzat eman zituzten diktaduraren garaian agindu zuten berberak Madrildik inposatutako joko arauak.

Manuel Fraga Iribarnek esana zuen indarkeria estatuaren monopolio eskusiboa zela, eta 1976ko lehen seihilekoan baieztapen hori oso era tragikoan berretsi zen Hego Euskal Herrian. Gainera, handik aurrera erregimenak indar instituzionala erabili zuen bere estrategia politikoa Hego Euskal Herrian inposatzeko tresna nagusi gisa.

Lan gatazkaz jositako hilabete luze baten ostean, 1976ko martxoaren 3an greba orokorrak Gasteiz osoa gelditu zuen eta bost mila langile inguru Zaramaga auzoko San Frantzisko elizan bildu ziren asanblada bat egiteko. Espainiako Polizia Armatua elizan sartu zen, barruan gas negar-eragileak jaurtiz. Histeria kolektiboak bultzaturik, elizan bilduta zeuden pertsonak kalera irteten ahalegindu ziren. Irten orduko, Polizia tiroka hasi zen guztien kontra. Zigor operazioaren emaitza izugarria izan zen: bost hildako eta ehundik gora zauritu, haietako hogeita hamahiru balaz.

Hilabete geroago, maiatzaren 9an, karlistek ohiko elkarretaratzea egin zuten Jurramendin. 1936ko matxinada antidemokratikoan parte hartu zuten alderdietako batek antolatzen bazuen ere, denborarekin erregimenaren kontrako eta hausturaren aldeko izaera hartu zuen. Urte hartan, estatuak antolatutako operazio batek ekitaldia leherrarazi zuen, mugaren bi aldeetan polizia indarrekin elkarlanean aritzen ziren ultraeskuindarren eskutik. Guardia Zibilararen pasibotasuna lagun, berrehun mertzenario inguru tiroka hasi ziren Carlos Hugo Borboi eta Parmakoaren jarraitzaileen aurka, eta haietako bi hil zituzten. Hala, langile klasea eta karlismo antifrankista euskal independentismoari gehitu zitzaizkion erreforma politikoaren aurkako borrokan, erregimenaren ondorengotza plana errefusatzuz eta benetako demokratizazioa eskatuz.

Urteko lehen seihilekoaren balantze tragikoaren ostean, 1976ko ekainaren 30ean kargutik kendu zuten Arias Navarro, Francoren azken gobernuko presidentea eta Monarkiako lehen gobernuburua. Arias Navarroren ondorengoa Adolfo Suarez izan zen, gobernuan trebatutako burokrata bat (Mugimenduko ministro idazkari nagusia izan zen Francoren osteko lehen gobernu monarkikoan, eta Fragaren ordezkoa Gobernazio Ministerioan hura RFAn eta Venezuelan zegoenean Gasteizko eta Jurramendiko masakreak zirela eta).

Lehenago, Espainiako errege-erregina estreinatuta berriak Estatu Batuetara joan ziren. Han, bi estatuen arteko itun bat izenpetzeaz gain, Espainiaren “irudia aldatzeko operazio” bat egiteko aholkua jaso zuten. Guztiak berdin jarraituko zuen arren, aldaketa estetiko bat egitea komeni zen, Espainia nazioarteko estandar “demokratikoetara” egokitzeko plana sinesgarria izan zedin. 1976ko uztailaren 3an, Erresumako Kontseiluak formalki proposatu zuen Adolfo Suarez presidente kargurako. Hiru egun geroago, kargua hartu bezain laster, “erreformak” iragarri zituen telebistaz, sei minutuko mezu labur batean. Erreforma haiek guztiz bat zetozen erregimena bera eta nazioartean zituen babesleak askoz lehenagotik prestatzen ari ziren trantsizio kontrolatuarekin.

Gobernu berrian, Adolfo Suarezek ardurarik garrantzitsuenetan mantendu zituen Arias Navarroren jarraipen gobernuko ministroak (presidenteordea eta Armadako, Aireko eta Itsas Armadako ministroak), eta Manuel Fraga Iribarneri eman zion Gobernazio Ministerioa (Barne Ministerioa). 1976. urtearen erdialdean, Ministro Kontseilu berriak “deklarazio programatiko” bat onartu zuen, “demokrazia” parlamentario bateranzko trantsizioaren

agenda zirriborratuz. Sistema politiko demokratiko bat ezartzeko eta pluralismoa onartzeko asmoa zutela esan arren, deklarazio hark argi eta garbi nabarmentzen zuen beraien *“autoritate legitimoa, herriaren kontsentsuan eta legearen errespetuan oinarritua”*. Horrekin batera, aurrera begirako asmoak ere iragartzen zituen: Konstituzioa erreformatzea eta lege testuak errealtetera egokitzea, 1977ko ekainaren 30a baino lehen hauteskunde orokor pluralak egitea, delitu politikoei eta iritzi delituei amnistia ematea eta alderdi politikoak legeztatzekeo neurriak hartzea.

Bere asmoak iragarri ondoren, gobernu berriak Erreforma Politikorako Legearen azken idazketa egin zuen. Oso lege laburra zen: bost artikulua, hiru xedapen iragankor eta azken xedapen bat. Lege horrekin, gobernuak “legetik legerako” trantsizioa egin nahi zuen, hau da, erreforma guztiak indarrean zeuden legeetatik eta instituzioetatik abiatuko ziren. Hori zen legearen filosofia. Beharrezkoa zuen kontsentsua lortzeko, Gorte frankistetara eraman zuten lege proiektua. Azaroaren 18an, diktadurako 497 prokuradoreetako 425ek lege proiektua onartu zuten. Hala, lege berri bat gehitu zitzairen erreformenaren zazpi lege funtsezkoek: Erreforma Politikorako Legea, hain zuzen ere. Legedia frankistan oinarrituta, lege berriaren helburua oso argia zen: frankismo estrukturala ez desmuntatzea eta haustura demokratiko baten hipotesi oro zapuztea. “Herriaren” legitimazioa soilik falta zitzairen, eta abenduaren 15eko erreferendumaren bidez lortuko zuten. Erreferendum hartan, “ez” bozkatzeak faxismoa betikotzea esan nahi zuen, eta “bai” bozkatzeak frankismo erreformatua babestea. Estatuan, ezkerreko oposizioak abstentzioa eskatu zuen, baina indar handirik gabe. Horrenbestez, erreferendumaren emaitzek legezkotasuna eta zilegitasuna eman zioten operazio erreformistari. Hego Euskal Herrian, ordea, nazionalismoak eta bereziki ezker abertzaleak eta ezker iraultzaileak abstentzioaren aldeko kanpaina aktiboa egin zuten. Ahalegin horri esker, Araban eta Nafarroan hautesleen %70ek bozkatu zuten arren, Bizkaian eta Gipuzkoan parte-hartzea txikia izan zen: %50 eta %42 hurrenez hurren.

Gobernuaren asmoak nahiz agenda erreformistaren mugarrak gorabehera, eta erreforma prozesua erregimenak ezarritako muga zorrotzetara egokitzeari begira, gertaerarik garrantzitsuena 1977ko urtarrilaren 13an iritsiko zen, Armadaren Estatu Nagusiaren sorrerarekin. Jose Vega Rodriguez teniente jenerala izendatu zuten Estatu Nagusiko buru (Guardia Zibileko zuzendari nagusi izan zen aurreko urteetan, Euskal Herriarentzat hain tragikoa izan zen garaian). 1975eko ekainean, Gipuzkoa eta Bizkaia

salbuespen egoeran zeuden bitartean, teniente jeneral hori Hego Amerikara joan zen eta “gerra zikinaren” nahiz errepresioaren arduradunetako bi izan zituen solaskide: Helio Joao Gomes Fernandez Brasilgo Polizia Militarreko inspektore nagusia eta Augusto Pinochet Txileko Errepublikako presidentea. Etorkizunean, erreforma politikoaren alderik ilunenak ispilu bat izango zuen hor.

Hego Amerikatik itzuli zenean, 1975eko udan, argitara atera zen trantsizio politikoaren garaian Espainiako zerbitzu sekretuek eta polizia indarrek beren isilpeko ekintzak errebindikatzeko erabiliko zituzten izenetako bat: ATE (Anti Terrorismo ETA). Urte luze batez Ipar Euskal Herrian atentatu etengabeak gertatu ondoren, La Voz de España egunkariak orrialde oso bat hartzen zuen erreportaje bat argitaratu zuen 1976ko maiatzaren 30eko edizioan, honako titulu honekin: “Hamar milioi hitzaileak hiltzeko”. ETAREN fundatzaileen eta Javier Aia Zulaika errefuxiatuaren argazkiekin ilustratuta, erreportajeak esaten zuen jadanik hasia zela ETAKO militanteen ehiza, Tomas Perez Revillaren eta Txomin Iturberen kontrako atentatuak adibide gisa aipatuz. Hala, gerra zikina argitara atera zen eta inolako lotsarik gabe errebindikatzen zen. 1976an, atentatu parapolizialak oso ugariak izan ziren mugaren bi aldeetan eta, gainera, jauzi kualitatibo bat eman zen: uztailaren 23an Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur* desagertu zen. Horrela, itzalpeko gerra erabatekoak forma ezaguna hartu zuen: Triple A hasieran, BVE (Batallon Vasco Español) 70eko harmarkadaren amaieran, eta GAL (Grupos Antiterroristas de Liberacion) 80ko hamarkadan.



Euskal Preso Politikoak Yeserias-ko espetxean. Argazkia: Javier Gallego.



Carabanchelgo espetxea. Argazkia: Javier Gallego.

Espetxeak eta presoak

Espainiako Estatuak preso politikoak sakabanatzera eta urruntzera jo du historiako garai ezberdinetan. XVI. mendean hala egin zuen espainiar konkistaren kontrako erresistentziaren buruzagi izan zen Petri II.a Nafarroako mariskalarekin. 1936ko uztaileko estatu kolpe faxistaren osteko lehen urteetan, berriz, Larrinagako, Ondarretako, Gasteizko, Langraizko, Iruñeko, San Kristobalgo eta Saturrarango espetxeek milaka errepresaliatu hartu zituzten (Saturrarangoa emakumeen kartzela zen).

Denborarekin, 600 preso Burgosera eraman zituzten. Euskal preso politikoek lehen lekualdatze masiboa izan zen. Gero, beste preso asko Cuellarrera (Segovia), Dueñasera (Palentzia), Puerto de Santa Mariara (Cadiz) eta Carmonara (Sevilla) eraman zituzten. Handiak, txikiak nahiz ertainak izan, Espainiako Estatuko espetxe guztiek euskal presoak eduki zituzten.

Frankismoaren erdialdean, errepresioaren paradigma aldatu zen. Errepublikano garaituak eta makiak jadanik ez ziren atxilotu eta espetxeratzen zituzten bakarrak. Ikasleen lehen manifestazioak eta langileen lehen protestak 50eko hamarkadaren bukaeran iritsi ziren, eta haien protagonistek egonaldi laburrak egiten zituzten kartzelan. Langile mugimenduaren garapenarekin eta bereziki ETaren sorrerarekin erregimenaren bi mamuak azaldu ziren: komunismoa eta separatismoa. Bigarren Mundu Gerraren osteko frankismoan beraiek bete zituzten kartzelak.

Euskal identitate nazionala debekatutako sinboloen bidez adierazi eta berberaikitzen zen (ikurrina, euskara), eta euskal apaiz batzuk beren herriaren eta langile klasearen alde mintzatzen hasi ziren. 60ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, Zamorako konkordatu espetxeak arrazoi politiko eta sindikalengatik errepresaliatutako ehun apaiz eta elizgizon inguru hartu zituen, gehienak Euskal Herrikoak. Errepresio haren helburua apaizak gainerako preso politikoengandik banantzea zen. Izan ere, garai hartan ETA ekintza armatuak egiten hasi zen eta preso iraunkor gehienak erakunde horretako militanteak ziren.

Euskal preso politikoek kopurua handi samarra bilakatu zenean, espetxe agintariek, gobernuak emandako aginduak betez, “sakabanaketa” izeneko

politika aplikatzeari ekin zioten. Espainiako espetxeetan ETako militante asko pilatu izanak espetxe sistema osoa goitik behera aldatzea ekarri zuen, arlo ofizialean, errepresioaren arloan nahiz espetxeko bizimoduaren eta erresistentziaren arloan.

Euskal erakunde armatuko presoek zeharo hautsi zituzten Gerra Zibiletik bizirik atera ziren militante errepublikanoen eta gerraostean espetxeratuak izan zirenen erresistentzia eta borroka moldeak. ETako presoek lehen belaunaldiak goitik behera aldatu zuen ordura arteko ereduak.

Erregimen frankistak ezarritako irizpideak betez, espetxe sistemak preso politiko izaera ukatzen zuen. 1962an, Martutenen espetxeraturik zeuden ETako presoek estatus politikoa aitortzearen aldeko kanpaina bat abiatu zuten: gutunak bidaltzen zituztenean, “preso politikoa” idazten zuten kartazalaren atzealdean, izen-abizenen ondoan. Funtzionarioek zuzenean botatzen zituzten zakarrentzira gutun haiek guztiak. Lehen urrats bat izan zen, geroago etorriko ziren beste askoren arteko lehena.

Presoen kopurua handitzeak euskal gizartearen erantzun eta antolakuntza maila handiagoa ere ekarri zuen. Batetik, presoek auzo eta herrietara helarazteko; bestetik, haien egoera salatzeko, jendea sentsibilizatzeko eta presoek nahiz haien familiei laguntza ekonomikoa eskaintzeko. Hala, 1967an Euzko Abertzale Laguntza sortu zen. EAJ, ETA nahiz ELA jatorri zuten askotariko pertsonak osatzen zuten, norberaren izenean. Euzko Abertzale Laguntzak honakoa zioen bere lehen agirietako batean: *“ez da erakunde bat. Elkartzen gaituena ez da ideologia jakin bat, abertzaletasuna baizik. Euskal abertzalez osatutako talde heterogeneo bat gara eta gure helburua Euzkadiren askatasunaren aldeko borroka dakartzan arazo ekonomiko larriari erantzutea da...”*. Auzipetzeak ugaritu eta espetxeak betetzen ziren neurrian, haren ekarpen ekonomikoak gero eta handiagoak bilakatu ziren.

1968. urtearen bukaeran, hainbat euskal presok gose greba egin zuten beste erakunde antifrankista batzuetako militanteekin batera. Protesta hura Soriako espetxean hasi zen eta presoek izaera politikoa aldarrikatzea zuen helburu.

1969an, euskal presoek senideen erantzuna antolatzen hasi zen. Urte bukaeran komunikatu bat plazaratu zuten, kolektibo bat sortzeko asmoa iragarri eta beren borrokaren helburuak azalduz: “eskubide sozial eta politikorik oinarritzeko” aitorpena, “Euskadi batasun nazional gisa” eta

presoen defentsa. Ohar luze batean, honakoa exijitzen zuten “indar guztia-
rekin eta aho batez”:

1. Amnistia osoa.
2. Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren erabateko aplikazioa.
3. Preso politiko estatutua.
4. Bandidaje eta terrorismo legearen abolizioa.
5. Espetxe funtzionarioak kontrolatzeko lege bideak ezartzea.
6. Heriotza zigorraren abolizioa.

1974. urtearen amaieran, ETako 158 presoak gose greban sartu ziren, fran-
kismoarekin bukatzera bideratutako herri mobilizazioa bultzatzeko asmoz.
Hilabete eman zuten ezer jan gabe. ETak, bere aldetik, lanuzte deialdia egin
zuen abenduaren 2rako eta 3rako, lelo hirukoitz honekin: “Askatasuna preso
politikoentzat, Independentzia Euskadirentzat, Euskal Herriaren batasuna”.

1975eko azaroan, diktadorea hil orduko, 731 euskal preso politikoek izenak
jakitera eman ziren. Aurreko urtean baino bostehun gehiago ziren, eta haien
artean 104 emakume zeuden. Preso gehienak ETako militanteak edo erakun-
dearekin loturaren bat edukitzeagatik errepresaliatutako pertsonak ziren,
baina espetxeak betetzen zituztenen artean beste talde edo erakunde bat-
zuetako aktibista asko ere bazeuden. Gehienak LCR, ORT, FRAP, LAB, LAIA,
IASE, MCE, PECE, PCI, PTE eta POREkoak ziren, baina PSOEko eta EAJko ba-
naka batzuk ere bazeuden.

Juan Carlos I.a Espainiako errege izendatu zutenean, Franco hil osteko lenen
ministro kontseiuak indultu orokorra eman zuen, azaroaren 25ean. Arra-
zoiak nahiz jasotzaileak aintzat harturik, indultu hura diktadurak lantzean
behin ematen zituenen antzekoa izan zen. Etapa “demokratiko” berri bateko
lehena bainoago, diktadurako azken indultua zirudien. Gobernuak zazpie-
hun preso politiko eta sindikalista espainiar askatu zituen, baina beste pre-
so asko espetxean gelditu ziren eta delitu politikoak ez ziren despenalizatu.

Gainera, indultua ez zitzaion aplikatu terrorismoari buruzko lege dekretuan jasotako arrazoiengatik espetxeratutako inori eta, beraz, euskal preso gehienek espetxean jarraitu zuten.



Amnistia
Total.

Grisak, amnistiaren aldeko ekintzaile baketsu bat murrizten



PRESOAK
KALERA
RETORNO
EXILIADOS

Amnistia

Amnistia beti egon zen presente oposizio antifrankistako alderdien imajinario kolektiboan eta aldarrikapenetan, baina ez sindikatuen errebindikazioetan. Sindikatuak Franco hil osteko lehen indultuak eman zirenean hasi ziren amnistia eskatzen (“amnistia laborala” zehazki).

1936ko altxamendu faxistak eragindako gerraren osteko lehen urteetan amnistiaren aldarrikapena motel samarra izan zen. Gerran garaituak izan ziren taldeek ez zuten inola ere espero diktadurak bizirik iraungo zuenik aliatuek Bigarren Mundu Gerran faxismoa azpiratu ondoren, eta are gutxiago 1975era arte luzatuko zenik. Lehen urte haietan, diktadura ezinbestean eroriko zela espero zutenez, erbesteko oposizioa osatzen zuten indar politikoak behin-behineko gobernuak prestatzen aritu ziren, sektore monarkikoekin aliantzak egiten saiatu ziren... Ziur zeuden amnistia berez iritsiko zela Franco agintetik kendutakoan. Komeni da gogoratzea azken amnistia 1936ko otsailean eman zela, Fronte Popularrak hauteskundeak irabazi ostean. Lehenago, 1934an, “eskuinaren amnistia” deiturikoak inpunitatea oparitu zien Errepublikaren kontrako errebelio edo sedizio delituengatik zerbitzutik egotziak izan ziren guardia zibil eta militarrei.

Frankismoaren garaian, amnistiaren aldarrikapenak hartu zuen indarra erakunde politiko edo korrante ideologiko bakoitzeko preso eta erbesteratu kopuruaren arabera izan zen. Amnistiaren aldeko lehen kanpaina EAJk sustatu zuen, 1957an, urte hartan gertatutako atxikoleta masiboen ondorioz. Hasieran EIA Eusko Ikasle Alkartasunako ikasleak atxilotu zituzten, eta geroago EGI Euzko Gaztedi Indarrako gazteak. Kanpaina xumea izan zen eta, besteak beste, ingelesezko dokumentu batzuk plazaratu ziren, torturari buruzkoak gehienbat. Nolanahi ere, kanpaina hura baliagarria izan zen Europako zenbait sektoreri ikusarazteko Espainiako Estatuan eta bereziki Euskal Herrian jendea arrazoi politikoengatik espetxeraten zutela.

Kontzeptuari dagokionez, amnistia eta indultua inoiz ez dira gauza bera izan. Frankismoak preso batzuk askatzen zituen noizean behin, baina kaleratze haiek ez ziren amnistiak, indultuak baizik. Izan ere, amnistiak erabat ezabatzen ditu zigorra bera eta haren ondorio guztiak, eta indultuak zigorra betetzeko beharra soilik ezabatzen du. Amnistiak egitate edo delitu baten gaineko erantzukizun zibil edo penala desagerrarazten du, aurrekari

penalak ezabatzen ditu eta delitu mota bera ere desagertzea ekar dezake. Indultua jasotzen duenak, ordea, errudun izaten jarraitzen du eta haren aurrekari penalak ez dira desagertzen, baina ez du zigorra bete behar, besterik ez. Amnistia eta indultua oso gauza ezberdinak diren arren, frankismoak gauza bera balira bezala erabiltzen zituen biak, kanpora begira zeukan irudi txarra hobetzeko komenigarria iruditzen zitzaionean eta bi kontzeptuen artean berariazko nahastea sortuz.

Hala, 1963an, Joan XXIII.a aita santua hil eta Paulo VI.a haren ordezkotzat izendatu zutenean, Francok “amnistia murriztua” eman zuen eta sei urtetik beharago zigorra zuten euskal presoak ere kalera atera ziren. Propaganda operazio hutsa izan zen, erregimenak diktaduraren “biguntasun” irudia eman nahi baitzuen munduaren aurrean.

Hiru urte geroago, 1966ko azaroan, ministro kontseilu batetik irtetean, Fraga Iribarnek jakitera eman zuen gobernuak erabaki zuela oso barkamen zabala ematea Gerra Zibilarekin zerikusia zuten egintza guztientzat. Dekretua azaroaren 15ean argitaratu zen eta amnistia orokorraz hitz egiten zuen. Zenbait komunikabide are urrunago joan ziren, erbesteratu historikoen balizko itzulera iragarri. Hala ere, ez zen horrelako “barkamenik” egon: isun txiki batzuk barkatu ziren eta euskal presoentzat ez zen inolako aldatasunik etorri. Horrek oso argi erakutsi zuen frankismoaren errepresio makineriaren lehentasunak aldatzen ari zirela. Izan ere, 60ko urteetan errepresioa euskal erresistentziaren kontra bideratu zen nagusiki.

Borroka armatuaren agerpena eta diktadurak erabiltzen zuen errepresio baxua zirela medio, amnistiaren aldarrikapenak beste dimentsio bat hartu zuen, gerraren erreferentziak edo EAJk nahiz PCEk gidatutako lehen oposizio mugimenduak gaindituz. PCEk, esaterako, bere egitura armatuak eta makia desegin zituen eta bestelako ikuspuntuak zituzten kideak baztertu eta deabrutu zituen (Jesus Monzon buruzagi komunista nafarra, esaterako).

1974. urtearen hasieran, ETAk Espainiako Gobernuko presidente Luis Carrero Blanco almirantearen hilketa bere gain hartu zuela jakin orduko, EAJk eta PSOEk bertan behera utzi zuten amnistiaren aldeko kanpaina bateratu bat. Horrek argi erakutsi zuen amnistiaren aldarrikapena alderdien interesen arabera ulertzen hasia zela eta alderdi bakoitzaren estrategia politikoeekin eta jardunbideekin nahasten zela. Edonola ere, mugimendu, eskaera eta indultu partzial guztiak baliagarriak izan ziren oposizio antifr-

kista amnistia sistema aldaketarekin lotutako kontzeptu gisa barneratzen joan zedin.

Franco hildakoan, eta herriaren presio gero eta handiagoak beharturik, erakunde politiko gehienek amnistiaren aldarrikapena jaso eta edukiz bete zuten. Borroka armatuak erreferentzialtasun nabaria lortua zuen ordu-rako –batez ere ETarenak–, baina, errepresio frankista sektore borrokalari guztien kontra bideratzen zenez, joera demokratiko guztietako pertsonak izaten ziren espetxeratuak arrazoi politikoengatik, hala nola laneko greba batean parte hartzeagatik, sinboloak erakusteagatik, propaganda banatzeagatik edo legez kanpoko erakundeetan militatzeagatik.

Diktadurako azken urteetan, amnistiak askotariko aldarrikapenak barnebildu zituen, baina guzti-guztiek lotura estua zuten errepresioaren amaierarekin, aldaketa sozial eta politikoarekin eta Euskal Herriaren askatasunarekin. Erreforma proiektura gerturatzeko ari ziren indar politikoak ez zeuden ados esanahi horrekin, baina azkenean bat egin behar izan zuten herriaren aldarriarekin, gogoz kontra bazen ere.

Hala, amnistia kontzeptua politikaren eremuan kokatu zen eta oso esanahi zehatza hartu zuen: frankismoaren aurkako erresistentziarekin lotutako “delitu” guztien ezabatze formala ekarri behar zuen, lege nahiz dekretu bidez. Beste era batera esanda, amnistiak inolako erantzukizun penalik gabe utzi behar zituen faxismoari aurre egiteagatik zigortuak izan ziren edo zigortuak izan zitezkeen pertsona guztiak. Diktadura ezinbestean desagertuko zela eta haren ordeztu sistema demokratiko bat (Errepublikak) ezarriko zela espero zenez, mundu guztiak bidegabetzat jotzen zuen erregimen politiko baten kontrako delitu guztiak ezeztatu egin behar ziren.

Hala ere, erregimenak berak, Fraga Iribarnek eta gainerako frankista erreformatu guztiek terminoaren adiera eta esanahi grekoan ulertzen zuten amnistia kontzeptua: “ahantzura” eta “barkamena”. Eta beraiantzat bazeuden inola ere ahaztu eta barkatu ezin ziren jokabide politiko antifaxista batzuk, hala nola, eta bereziki, frankismoaren aurkako borroka armatua. Horregatik, lehen urteetan erregearen edo gobernuaren indultu soilak ematera mugatu ziren, herriak eskatzen zuen amnistia orokorrari uko eginez. Geroago, berriz, “amnistiak” eman zituzten zenbait lege dekreturen bidez. Lege dekretu haiek ez zioten betebete erantzuten herriak eskatzen zuenari, eta, gainera, amnistia kontzeptua hutsaltzeko eta terminoaren interpretazio berriak zabaltzeko bidea ireki zuten.

Ezker Abertzaleak inork baino hobeto barneratu zuen amnistia kontzeptua eta 1976. urtearen hasieran bere gutxienekoen programan jaso zuen. Zortzi puntuko lehen KAS Alternatiba hartan, kontzeptuan sakontzen zuen: “1. Askatasun demokratiko osoen ezartzea, inolako murrizterik gabe. 2. Amnistia osoa: preso politiko eta sindikal guztientzat askatasuna; erbesteratu guztien berehalako itzultzea”. Garai hartako terminologiaren eta interpretazioaren arabera, amnistia erabatekoa izan behar zen, bestela indultua besterik ez baitzen izango. Horregatik, KAS Alternatiban jasota geratu ondoren, eta eztabaidan sakondu ahala, amnistia kontzeptua gatazkaren arrazoiak desagertzearekin lotu zen.

Amnistiaren aldeko lehen astea 1977an antolatu zen. Ordurako, eta aurrerago ikusiko dugun bezala, Amnistiaren Aldeko Batzordeek Euskal Herriaren demokratizaziorako alde aurreko urrats gisa ulertzen zuten amnistia. Gainera, argi eta garbi adierazten zuten arazoa konpontzeko ez zela aski presoak irtetea eta erbesteratuak itzultzea. Horrez gain, ezinbestekoa zen espetxera edo erbestera eraman zituzten legeak indargabetzea.



Josu Zabalaren heriotzaren urteurrena, 1977ko iraila. Argazkian: Lepoz Monzon.
eta lehen planoan, Tomas Egaña, Josefa Ganuza, Izko de la Iglesia, Jokin Gorostidi...



**DISOLUCION CUERPOS
REPRESIVOS
AMNISTIA DANONTZAT**

Salbuespen legedia, Espainiako Auzitegi Nazionala...

Gauetz eta azpikeriaz, horrela sortu zen Espainiako Auzitegi Nazionala deritzon auzitegi berezia. Frankismoaren garaiko Ordena Publikorako Epaitegia (TOP) eta haren justizia ordezkatzeko sortu zen eta espainiar “demokrasiak” ezker abertzalea eta Euskal Herriko sektorerik borrokalarientzat espetxeratze eta deabruzteko erakusten zuen grinaren ikono bihurtu zen. Gauetz eta azpikeriaz sortu zen, beraz, zorigaiztoko urte bat bukatzeaz eta hura bezain dramatikoak izango zen beste bat (1977) hastear zelarik.

Lehenago, abuztuaren 26an, Franco ohean eta hilzorian zegoelarik, gobernu frankistak 10/1975 Lege Dekretua onartu zuen, “terrorismoaren prebentzioari” buruzkoa. Lege dekretu hura ez zen izan frankismoko azken lege errepresiboa, baizik eta erregimenak Espainiako erreforma politikoari legetuko zion “lege antiterroristaren” aurrekaria (lehen lege hura 1979ra arte egon zen indarrean, eta oso antzekoa zen beste batek ordezkatu zuen urte horretan).

Urtebete geroago, 1976ko abenduaren 30ean, urteko azken ministro kontseiluak Ordena Publikorako Epaitegia (TOP) desegitea erabaki zuen, “terrorismo delituak jurisdikzio arruntera” igaroko zirela adieraziz. Hala ere, albiste horrek egun bereko beste bat ezkutatu zuen: salbuespen auzitegiak eta jurisdikzioak ez ziren desagertuko. Bigarren karlistaldia –hirugarren gerra karlista Espainiako historiografian– bukatutakoan 1882tik aurrera indarrean egon zen Prozedura Kriminalaren Legeko 304. artikuluari helduz, Espainiako Gobernuak Auzitegi Nazionala sortu zuen, haren egoitza Madrilén ezarrita. Hala, ia mende bat geroago aplikatu zuen Auzitegi Nazionala sortzea ahalbidetzen zuen legea. Euskal disidentzia ito nahirik, Espainiako Estatuak diktadurako logika errepresiboa eguneratu eta luzatu zuen horrela, ustez demokratizazio prozesuan zegoen arren.

Auzitegi Nazionala sortu zen garaian, Hego Euskal Herriak hainbat salbuespen egoera pairatu zituen. Ageriko arrazoiengatik, salbuespen egoerak ordenamendu juridikotik kanpo geratuko ziren abiatzeaz zen sistema berrian. Horrenbestez, salbuespenekotasunak izaera iraunkorra hartu zuen Auzitegi Nazionalaren bidez eta, beste neurri batean, mota guztietako lege

antiterroristen bidez. Justizia tresna gisa erabiltzen zen eliteen proiektua inposatzeko eta proiektu horrekin ados ez zeudenak zigortzeko, batez ere proiektu alternatibo bat defendatzen zutenak (euskal independentismoa, adibidez). Auzitegi Nazionala justiziaren instrumentalizazio horren adierazpide nagusietako bat izango zen.

Hainbat hamarkadatan zehar, ehunka euskal herritar pasatu dira Auzitegi Nazionaletik, izaera politikoko delituak leporaturik. Auzitegi Nazionalako epaileek tortura babestu dute, testigantza guztiei entzungor eginez eta are mespretxua ere erakutsiz. Ezker abertzaleak izan ezik, azken berrogei urteotan inork ez du auzitan jarri egitura hori, duela gutxira arte: 2013ko maiatzean, Amaiur, CiU, EAJ eta Izquierda Pluraleko bozeramaileek Auzitegi Nazionala desegiteko eta haren eskuduntzak epaile naturalen esku uzteko eskatu zuten Espainiako Kongresuan. Parlamentuko eztabaida hartan argi eta garbi geratu zen Auzitegi Nazionalak giza eskubideen urraketa sistematikoa sustatu eta babestu dituela.

Beraz, diktadorearekin gertatu zen bezalaxe, frankismoaren errepresio makineria erreformatu egin zen itxura demokratikoa emateko. Helburu nagusia estatuaren eta errepresio aparatuen depurazioa eragoztekoa zen, eta horrek demokrazian sakontzeko aukera oro blokeatzen zuen. Gaur egun, hainbat hamarkada geroago, horren guztiaren ondorioak inoiz baino agerikoagoak dira: Espainiako Estatuaren zilegitasun krisiak lotura estua du euskal independentismoaren kontra oso gogor jo duen baina ustelkeriaren eta baliabide publikoen arpilatzearen aurrean “ez ikusiarena” egin duen aparatu judizialarekin. Hainbat hamarkadaren buruan, haustura galarazi izanaren prezioa oso nabaria da hala Euskal Herrian nola Katalunian eta estatu osoan. Besteak beste, disidentzia oro kriminalizatzearen logika gero eta “etsai” gehiagoren kontra bideratzen da.

Beste era batera esanda, salbuespen legedia eta jardunbideak ez dira inola ere desagertu. Aitzitik, sedimentatu egin dira eta gero eta sektore gehiago kolpatzen dituzte. Ziur aski, orain sektore horiek damu dira iraganean jarriera ausartagoak hartu ez zituztelako eta otzan makurtu zirelako “terrorismoaren kontrako borrokaren” logikara.



Gutierrez Mellado Adolfo Suarez zoriontzen erreforma politikoaren erreferendumaren ostean.



51. AV
ORT
ORGANIZACION REVOLUCIONARIA DE

ORT-ren mitina, Iruñean. Beste alderdi asko bezala, tartean independentistak nahiz karlistak, alderdi iraultzaileak ez ziren legalizatuak izango hauteskundeak pasa arte.

Egitura frankisten erreforma, legalizazioak eta ilegalizazioak

Franco hil baino lehenago, Euskal Herriko oposizioko hainbat eragile indarrak biltzen eta alternatiba demokratiko bateratuak taxutzen saiatu ziren. KAS ezkerreko indar abertzaleen batasun iraunkorra izan zen, baina elkartze zabalagoak gorpuzteko saiakerak ere egin ziren. PCEk, esaterako, PSP, PT, CCOO eta USO ere biltzen zituen Euskadiko Asanblada Demokratikoa sortu zuen, baina oso gutxi iraun zuen. Euskadiko Herriko Batzarrak, berriz, KASeko erakundeak eta indar estatalista batzuk elkartu zituen (LCR, ORT eta MCE). Hala ere, alderdi nagusien desadostasunak eta interes partikularrak zirela medio, ekimen bateratu eta plural horietako batek ere ez zuen luze iraun. Alderdi nagusiek beste arlo batzuetan kokatzen zituzten beren lehentasunak.

Erregimen frankista oposizioaren zati handi bat bere posizioetara erakartzeko gai izan zen. Horretarako, borondateak erosteaz gain, mota guztietako azpijokoak erabili zituen hausturaren aldeko apustua egiten jarraitzen zutenak zokoratzeko. Diktadurako estatu aparatuen apustu hori bereziki erabakigarria izan zen Felipe Gonzalez eta Alfonso Guerraren kasuan, Surresnesko Kongresuaren ostean PSOEko zuzendaritzara iritsi zirenean.

Gobernuak oposizioko alderdi politikoen jarduera publiko guztiak sistematikoki erreprimitu eta haien sustatzaileak atxilotzen zituen bitartean, 1976ko otsailean PSOEko idazkari nagusi Felipe Gonzalezek bira bat egin zuen Euskal Herrian, Arias Navarroren gobernuaren eta Manuel Fraga Gobernazio ministroaren oniritziarekin. Erantzun gisa, erakunde politiko independentista eta ezkertiar gehienek boikota egin zieten Sarrrikoko Ekonomia Fakultatean, Eibarko Astelena pilotalekuan eta Donostian antolatutako ekitaldiei.

Hilabete geroago, estatu mailako bi plataforma elkartu egin ziren: Konbergentzia Demokratikorako Plataforma (PSOEK gidaturik, MCE, ORT, UGT, Ezker Demokratikoa eta zenbait erakunde sozialdemokrata eta kristau-demokrata independente biltzen zituen) eta Espainiako Junta Demokratikoa (PCEk gidaturik, PSP, PTE, Alderdi Karlista eta CCOO biltzen zituen, besteak beste). Horrela, oposizioko erakundeek Koordinazio Demokratikoa

izeneko koordinakundea sortu zuten (azkenean “Platajunta” izenez ezagunagoa izango zen). Haren helburu nagusiak amnistia, askatasun politikoak eta hauteskunde konstituziogileak ziren. Hala ere, oposizio bateratu hori handik gutxira desegin zen, PSOEek eta Adolfo Suarezren gobernuak erreforma politikoaren agenda eta edukiak adosteko egin zituzten negoziazio partikularren eta bilera ezkutuen ondorioz.

1976ko maiatzean, Gorte frankistek bilera eta manifestazio eskubidea arautzen zuen lege bat onartu zuten. Lege horren arabera, hogeit pertsonatik gorako bilerak egin ahal ziren lokal itxietan nahiz kalean, baldin eta antolatzaileek beren burua identifikatu eta 72 ordu lehenago gobernadoreari deialdiaren berri ematen bazioten. Geroago, “elkarte politikoen” legea etorri zen (eufemismo hori erabili zen alderdi politikoez ez hitz egiteko) eta Elkartearen Erregistroa sortu zen haren baitan. Alderdi kontserbadoreak, liberalak eta eskuindarrak inskribatu ahal izan ziren erregistro horretan, baina ez erakunde marxistak, komunistak edo independentistak.

Hala ere, bilera eskubidea arautzen zuen lege berriari helduz eta otsailean Felipe Gonzalezek Euskal Herrian egin zuen bira aurrekari gisa baliatuz, ekainaren 13an EAJk, PCEk, PSOEek eta EKAK mitin bateratu bat antolatu zuten Donostiako Anoeta pilotalekuan. Gobernuak ez zuen ekitaldia debekatu, baina ikurrinak legez kanpo jarraitzen zuen, erakunde independentistetako militante ugari espetxean zeuden, amnistiaren aldeko manifestazio guztiak erreprimituak izaten ziren eta “inkontrolatuek” independentismoaren kontra abiatutako gerra zikina orokortu egin zen.

1976ko udatik aurrera, indar abertzaleek hartu zuten erreformaren kontrako borroka politikoaren eta antolakuntzaren protagonismoa. KAS osatzen zuten erakundeek alternatiba politiko komun bat adosteko eztabaia abiatu zuten urte hasieran, eta uztailean hasierako zirriborro programatikoaren aldaketak eta eranskinak onartu zituzten. KASen alternatiba taktikoa –edo alternatiba politikoa– 1976ko abuztuaren 18an zehaztu zen, manifestu baten bidez. Alternatibak zazpi puntu zituen, eta haren zabalkundeari nahiz KASen izaerari buruko zortzigarren atal bat.

Hala, programa taktiko gisa ulertuta, Euskal Herriaren eskakizunei eta aldarrikapenei erantzute aldera trantsizio prozesuak bete beharko lituzkeen gutxieneko baldintzak laburbiltzen zituen KAS Alternatibak. Ardatz nagusiak honako hauek ziren: askatasun demokratikoak ezartzea, amnistia ema-

tea, errepresio indarrak desagitea, langileen lan eta bizi baldintzak hobetzea, Euskal Herriaren burujabetza nazionala eta autodeterminazio eskubidea onartzea, behin-behineko autonomia eguneratu bat ezartzea (Hego Euskal Herri osorako, botere politiko eta ekonomiko guztiekin, euskara ofiziala...) eta behin-behineko euskal gobernu bat eratzea (haren eginkizuna izango zen konstituzio berri bati buruz hitz egitea frankismoaren ostean sortutako gobernu zentralarekin eta estatuko beste botere batzuekin, Hego Euskal Herriaren izenean). Azkenik, zortzigarren atal batek argi adierazten zuen erreibindikazio haiek guztiak faxismoaren iraupena haustera bideratutako borroka prozesu herrikoien baten baitan kokatzen zirela. Horrenbestez, KA-Sek erakunde politiko eta masa erakunde guztiei eskaintzen zien bere alternatiba, Euskal Herriaren borroka hori gidatuko zuen erakunde bateratu bat sortzeari begira. KAS Alternatiba Iruñean aurkeztu zen, abuztuaren 30ean. Egun horretatik aurrera, KASeko erakundeek aurkezpenak egin zituzten Euskal Herri osoan, gutxienezkoen alternatibak jasotzen zituen puntuak ezagutarazteko.

Egun haietan, ETApren VII. Biltzarra egin zen, Donapaleun. ETApren bi erakundetan banatzea erabaki zen: batek funtzio politikoa beteko zuen eta besteak funtzio militarra. Horrenbestez, zuzendaritza politikoa bere gain hartuko zuen alderdi bat sortzea erabaki zen. Horixe zen biltzarrean onartutako Otsagabia ponentziak proposatzen zuena.

Lehenago, 1976ko ekainaren 6an, Euskal Sozialista Biltzarrak (ESB) bere lehen kongresua egin zuen Arantzatzun, klandestinitatean. 1975az geroztik, ESBk sektore sozialdemokratak, nazionalistak, ELAtik banandutako sindikalistak eta kooperatibetako zenbait koadro biltzen zituen. Hurrengo hilabeteetan, EAE-ANV –nazionalismo historikoaren esparruko alderdi ezkertiarra– bere militantzia berreskuratzen eta frankismoaren osteko egoerari aurre egiten saiatu zen. Horretarako, bere II. Biltzarra egin zuen Sarrikon, erdiklandestinitatean. Horrela, errepublikanismo nazionalista eta laikoak bere proiektua gehitu zien ordurako existitzen ziren korrante independentista ezkertiarrei, hau da, ESBren sozialdemokraziari eta KASeko alderdien sozialismo iraultzaileari.

1976. urtearen bukaeran, erreformari buruzko erreferenduma egin baino zenbait aste lehenago, Erakunde Demokratikoen Plataforman bildutako oposizioak beredatzi pertsonaz osatutako batzorde bat izendatu zuen frankismoaren legatuaren ondorengoekin negoziatzeko. Honako hau zen

“bederatzen batzorde” haren osatera: Joaquin Satrustegi (AL Aliantza Liberala), Felipe Gonzalez (PSOE), Francisco Fernandez Ordoñez (PSD Alderdi Sozialdemokrata), Anton Cañellas (kristau-demokrata), Tierno Galvan (PSP Alderdi Sozialista Popularra), Simon Sanchez Montero (PCE), Jordi Pujol (CDC Convergencia), Valentin Paz Andrade (gallegista) eta Julio Jauregi (EAJ). Garai hartan, Xabier Arzalluzek adierazi zuen EAJk “Euskadi-Espainia” negoziazio zuzena bilatzen zuela, baina sekula ez zen halakorik izan.

Abenduko erreferendumarekin, Espainiako Gobernuaren estrategiak herri-tarren gehiengoaren babesa lortu zuen estatuaren luze-zabalean. Hurrengo urratsa eraiki beharreko eredu berriaren mugak adostea izan zen, baina oposizioko sektore liberalekin eta sozialdemokratekin soilik. Horrela, eta Europako Ekonomia Erkidegoaren nahiz Estatu Batuen sostenguekin, Adolfo Suarezek bere “irekitzea” garatzeko epeak markatu zituen, iniziativa politikoa bere eskuetan atxikitzeko eta laster egitekoak ziren lehen lege-gintza hauteskundeetan bere sokako sektoreen interesak babesteko (Eliza, bankuak, kapital monopolista finantzarioa eta Armada).

1977ko otsailean, aurreko urtean onartutako legea malgutu zuen gobernuak, erakunde politikoak eratzeko eskubideari buruzko lege dekretu berri baten bidez. Besteak beste, alderdi politikoak inskribatzeko eta legeztatzeko leihatila bat ireki zen Gobernazio Ministerioan. PSOEek presaka utzi zuen “bederatzen batzordea”, bere kabuz negoziatzeko. Berehalaxe, Elkarte Politikoen Erregistroan inskribatu zen eta beste alderdi sozialdemokrata, liberal eta kristau-demokrata batzuekin batera legeztatu zuten. Honako hauek izan ziren orduan legeztatutako alderdiak: Francisco Fernandez Ordoñezen Alderdi Sozialdemokrata (PSD), Enrique Larroqueren Alderdi Liberala (PL), Joaquin Ruiz Gimenezaren Ezker Demokratikoa (ID), Enrique Tierno Galvanen Alderdi Sozialista Popularra (PSP), Ignacio Camuñasen Alderdi Demokrata Popularra (PDP) eta Manuel Maysounaveren Alderdi Proberista (PP). Udaberrian, EAJk gauza bera egin zuen, Aberri Eguneko errepresioa zuribide gisa erabiliz. Bide horretan, PSOE eta EAJ hausturaren aldeko jarreretatik urruntzen joan ziren eta azkenean frankismoaren erreformaren agenda onartu zuten. Apur bat geroago, PCEk bide beretik jo zuen. Azkenean, alderdi horiek jarri zuten baldintza bakarra beraien eta euren inguruko sindikatuen legeztapena izan zen.

Erreforma prozesuaren lerro nagusiak askoz lehenagotik zeuden murriztuta, baina orduan hasi ziren zehazten eta forma hartzen. Neurri handi ba-

tean, indar politiko askok azkenean hartu zuten norabide erreformista alde z aurretik josi ziren eta gizarteari nahiz alderdi horietako militantziari berari sistematikoki ezkutatu zitzaizkien itun eta konplizitateen eszenaratzea izan zen.

1977ko martxoan, ordurako hauteskundeetarako lasterketan buru-belarri murgildurik, EAJ alderdi gisa legezatu zen eta Nazio Batzarra egin zuen Iruñean, martxoaren 25etik 27ra bitartean. Erbestetik itzuli berri, Manuel Irujok batzarrean parte hartu zuen.

Bitartean, ezker abertzalean bi prozesu paralelo garatu ziren: desdoblamentu politikoa eta berrelkartzea. Erakunde politiko-militarraren desdoblamentuak EIA alderdiaren “berrelkartze mahaiak” ekarri zituen berekin. Zenbait hilabetez herriz herri lan egin ondoren, 1977ko apirilaren 3an EIAk bere aurkezpen publikoa egin zuen Gallartako frontoian, jendetza handi baten aurrean. Aldi berean, bloke politiko-militarretik kanpo kokatzen ziren KASeko kideek beren berrelkartze prozesuari ekin zioten, KASeko indar politikoak eta militanteak bilduko zituen alderdi abetzale iraultzaile bakar bat sortzeko helburuarekin. 1977ko lehen hilabeteetan, EHASEk protagonizatu zuen indar abertzale sozialisten berrelkartze prozesua. Geroxeago, ekaineko hauteskundeon ondoren, HASI jaio zen, prozesu horren emaitza gisa.

PCEren legalizazioa Suarez eta Carrilloren arteko alde biko negoziazioen ostean iritsi zen. Negoziazio haietan, komunistek uko egin zieten Gerra Zibilaren garaitik beraien ibilbide politikoa ezaugarritu zuten ikurrei eta nor-tasun adierazleei. Armadaren Kontseilu Nagusiak honako erabaki honen berri eman zuen ohar oso gogor batean: *“ministro jaunari aho batez jakinaraztea Alderdi Komunistaren legalizazioak Armadako unitate guztien gaitzespen erabatekoa eragin duela”*. Testu berean, erabakia onartzen zuen azkenean: *“Hala ere, goragoko interes nazionalak aintzat harturik, diziplinagatik onartzen du ekintza burutua”*.

PCE legegintza hauteskundeetarako bi hilabete besterik falta ez zirenean legezatu zuten, eta gobernuak “euskal aferarantz” bideratu zuen agintari militarren hasierako haserrea. KASeko hiru alderdi politikoek ere (EHAS, EIA eta LAIA) beren estatutuak aurkeztu zituzten gobernu zibilean, beren helburuak Euskal Herriaren independentzia nazionala eta iraultza soziala zirela adieraziz. Gobernuak ez zien onartu legalizazio eskaera, frankismoaren osteko erreformaren mugak agerian utziz.

Izan ere, erreformaren diseinuak izaera diskriminatzaile nabaria izan zuen. Erregimenak erreformaren mugak onartu zituztenak saritu zituen, legalizazioaren bidez, baina Franco bizi zenean bezalaxe kriminalizatu eta zigortu zituen hausturaren aldeko tesiak defendatzen jarraitu zutenak (ezker abertzalea, adibidez). Azkenean, alderdi historiko handi guztiek Espainiako Gobernuaren inposizioak legitimatu zituzten, baina, aldi berean, gizartearen itxaropenekin jolasten aritu ziren, dena aldatu nahi zutela esanez. Hala ere, inoiz ez zituzten zinez auzitan jarri proiektu erreformistaren zutabe nagusiak: frankismoaren eredu sozioekonomikoaren iraupena, Espainiako Estatuaren eremu kapitalistan txertatzeko estrategia, monarkia, Espainiaren batasuna eta diktaduraren garaiko Armadaren, epaileen, zerbitzu sekretuen eta polizia indarren gailentasuna eta inpunitatea.

Erreformari buruzko erreferendumaren eta 1977ko ekainean egin ziren Espainiako Gorteetarako hauteskundearen arteko sei hilabeteetan, errepre-sioak hamahiru hildako eragin zituen Hego Euskal Herrian. Alderdi independentistak marko berritik at eta legez kanpo gelditu ziren, estatu mailako beste erakunde iraultzaile batzuk (ORT, PTE, MCE, LCR, OIC) eta karlismoa (EKA) bezalaxe. Guztiek amnistia eskatzen zuten, monarkiaren kontra zeuden eta polizia indarren depurazioa exijitzen zuten. Alegaltasunetik eta hautesle elkartearen bidez aurkeztu behar izan ziren hauteskundeetara. Hala, Espainiako Estatuaren botereek erreforma prozesua babesten zuten indar politikoetarantz bideratu zituzten herritarren itxaropenak, beldurraren mezua baliatuz: erreforma prozesua aurrera atera ezean, egoera soziala jasanezin bihurtuko zen eta inboluzioa ekarriko zuen.



EUSKERA OFIZIALKI KASTOIAZ FUJINETAN

AMNISTIA ITZULI
BERRAZA

Bergarako plaza jendez gainezka Jose Luis Elkoroen hitzartea entzuten foruen deuseztatzearen mendeurrenean



Alkate mugimenduaren bilera Bergarako udaletxean.

Alkateen Taldea: euskal trantsizio instituzionalerako saiakera bat

Alderdi politikoak alde batera utzita, erreformaren garaiko lehen urteetan beste protagonista batzuk ere izan ziren. 1976ko udaberrian, euskal kulturari lotutako elkarteen bidez eta udal agintari batzuek hutsik utzitako kargua betez zinegotzi bihurtu ziren hainbat pertsonak nagusiki alkatez osatutako talde bat sortu zuten. Talde horrek gero eta indar handiagoz eskatu zuen ikurrinaren legalizazioa, amnistia eta autonomia, eta era aktiboan parte hartu zuen Xibertako elkarrizketetan, indar politiko abertzaleen arteko elkar-ulertzea bilatuz.

1976ko martxoaren 29an egindako osoko bilkura berezi batean, Bergarako Udalak bi eskaera egin zituen: foruak guztiz berrezartzea eta autonomia estatutu bat idaztea, bere garaian Eusko Ikaskuntzak egin zuen eta 1931ko ekainaren 14an Euskal Herriko Udalen Batzarrak Lizarran onartu zuenaren antzekoa. Apirilean, Hondarribiko, Oñatiko, Zarauzko, Eskoriatzako, Arrasateko, Elgetako eta beste herri batzuetako udalen osoko bilkurek eskaera hori bera egin zuten.

Maiatzaren 6an, Gobernu Zibilak Bergarako Udalaren erabakia baliogabetu eta udal ordezkarien bilerak debekatu zituen, baina ezin izan zuen eragozti Euskal Herriko udal gehiagok autonomiaren aldeko mozioak onartzea. Maiatzaren 17an, Eibarko Udalak eskatu zuen Euskal Herriko udalek euren gain har zezatela penintsulako lau lurraldeetarako estatutu berri bat idazteko ardura, eta hilaren bukaerarako 26 ziren eskaera horrekin bat egin zuten Gipuzkoako eta Bizkaiko udalak.

Uztailaren 21ean, foruak ezeztatu zituen 1876ko legearen mendeurrenean, Euskal Herriko 69 udalerrik Bergarako udaletxearen aurrean elkartzeko deialdia egin zieten herritar guztiei. Guardia Zibila elkarretaratzea eragozten saiatu zen, errepide kontrol zorrotzak jarrita. Hala ere, oztopo guztien gainetik, Bergarako Udalak osoko bilkura berezia egin zuen, Euskal Herriko beste udal batzuetako ordezkariak ere bertan zirela. Plaza leporaino betetzen zuten milaka herritarren aurrean, Jose Luis Elkorok foruak berrezartzeko eskatzen zuen idazki bat irakurri zuen udaletxeko balkoitik: Bergarako Manifestua. Lehen ekitaldi horrek hasiera eman zion Euskal Alkateen Mu-

gimenduari. Haren aldarrikapenak honako hauek ziren: euskararen ofizialtasuna, ikurrinaren legeztapena, amnistia preso guztientzat, foruen berrezarpena eta autogobernua Euskal Herriarentzat.

Alkateek honakoa adierazi zuten 1976ko udan onartu zen amnistia lege-dekretuaren inguruan:

“Tenemos voluntad de reconciliación. No podemos por menos de alegrarnos de la petición de amnistía realizada por el Gobierno. Y sin embargo, debemos constatar que no ha supuesto una solución para nuestro Pueblo. No es fácil el tipificar como delitos de sangre acciones cometidas en un contexto muy especial en el que los hechos de fuerza han venido a constituir el derecho, ya que cuando la fuerza causa estado, la fuerza es el derecho. Nos gustaría poder preguntar a nuestro Pueblo, si al igual que hoy hemos tributado homenaje póstumo a los que en épocas pasadas lucharon y murieron en defensa de nuestros derechos y libertades, no merecen nuestra atención aquellos que en épocas más recientes, también han luchado, y algunos han muerto, en defensa de esos mismos derechos y libertades”.

Irailean, Gipuzkoako alkate talde bat gobernadore zibilarekin elkarrizketatu zen Polizia Armatuaren eta Guardia Zibilaren jokabideagatik protesta egiteko. Zenbait egun geroago, Marcelino Oreja Atzerri ministroa, Emilio Rodríguez Roman Estatuko Segurtasun zuzendari nagusia eta Rodolfo Martín Villa Gobernazio ministroa talde horretako 17 alkaterekin bildu ziren. Alkateek beren kezka azaldu zizkieten: Euskal Herriaren egoera larria, herritarren segurtasunaren arloko arazoak, ikastolen ziurgabetasuna eta ikurrinaren legezkotasunik eza.

1977ko urtarrilerako, Hego Euskal Herri osoko alkate ugari gehitu zitzaizkion Bergarako lehen bilkura hura sustatu zuen taldeari, eta bilera bat antolatu zuten urtarrilaren 16rako, Etxarri Aranatzen. Guztira, 176 izan ziren deialdia sustatu zuten alkateak (Nafarroako 70, Gipuzkoako 50, Bizkaiko 42 eta Arabako 14).

Urtarrilaren 16an ehun mila pertsona inguru Etxarrira iristen saiatu ziren ikurrinaren legeztapena, amnistia, elebitasuna eta foruen berrezarpena eskatzeko. Guardia Zibilak kontrolak jarri zituen errepide guztietan eta atzera eginarazi zien autobus eta autoei. Polizia Armatuak, berriz, herriko kaleak hartu zituen. Egoera horretan, Etxarri Aranazko udalbatzak herritarren pre-

sentziarik gabe egin behar izan zuen bilkura. Aldi berean, Etxarrira iristea lortu ez zuten milaka pertsonak elkarretaratzeak eta manifestazioak egin zituzten Guardia Zibilak geldiarazi zituen lekuetan, hala nola Agurainen, Altsasun, Irurtzunen, Urkiolan, Gasteizen, Arrasaten eta Bergaran. Goizean, errepide kontrol ugariak gainditu ezin izan zituzten 1.500 pertsona inguru Urkiolako mendatean elkartu ziren, ikurrinekin.

Arrasaten biltzeko alferrikako saiakera egin ondoren, arratsaldean 30 alkatek Bergarako udaletxean batzartzea lortu zuten, 6.000 pertsona ingururen babesarekin. Bestetik, Arabako bost alkate (Dulantzikoa, Laudiokoa, Okondokoa, Aguraingoa eta Aramaiokoa) Gasteizen bildu ziren, mila lagun inguruk babesturik. Bitartean, Etxarriko udalbatza pleno artean bildu zen, herriko kaleak hutsik zeudelarik. Ikurrina eta Nafarroako bandera aretoko leku nagusian jarrita, Javier Mauleon alkateak bere kexua agertu zuen gainerako alkateei bertan egotea eragotzi zitelako eta euskal alkateen adierazpena irakurri zuen, berehalako adiskidetzea lortzeko ezinbestekotzat jotzen zituzten hiru baldintzak nabarmenduz: *“amnistía total para cuantos sufren cárcel, destierro o marginación por actos de intencionalidad política; plena reintegración foral, no entendida como la resurrección de unas instituciones caducas, sino como el restablecimiento de poderes originarios; y cooficialidad del euskera”*.

Bergaran, bertan biltzea lortu zuten 30 alkateen izenean, Jose Luis Elkorok Etxarriko adierazpen bera irakurri zuen plaza betetzen zuen jendetzaren aurrean, udaletxeko balkoitik eta ikurrina eskuan.

Zenbait hilabete geroago, 1977ko martxoaren 13an, ETak guardia zibil bat hil eta bi zauritu zituen Arrasaten. Hurrengo egunean, 43 alkatek bigarren bilera bat egin zuten Bergaran, aurreko astean polizia indarrek Ezkio-Itsasoko segadan eta Donostiako amnistiaren aldeko manifestazioan eragindako hiru heriotzengatik protesta egiteko, eta Arrasateko atentatua ere aipatu zuten bileran adostutako manifestuan. Laburbilduta, manifestu hartan amnistia eskatzen zen, hura jasoko ez zuen saiakera demokratiko ororen balioa ukatzen zen, amnistia ez emateak ekar zezakeen indarkeriaz ohartarazten zen eta, ondorioz, amnistia osoa emateko eskatzen zitzaion Espainiako Gobernuari.

Bergaran bildutako 43 alkateen manifestu horrek garrantzi handia hartu zuen hala hurrengo hilabeteetan nola aurrerago ere, gatazka konpontzeko funtsezkoak ziren hainbat gai jorratzen zituelako:

“No podemos estar de acuerdo con las muertes vengan de donde vengan ni podemos permitir que éstas sean utilizadas por nadie para llevar a nuestro Pueblo por el camino de la violencia. Pero tampoco podemos caer en la simpleza de considerar sin más dichas muertes aislándolas del contexto en el que se están produciendo. Los acontecimientos vividos la semana pasada no han hecho sino ahondar la huella de un camino de violencia dejando de manifiesto que el respeto a la persona y a la vida son valores olvidados en el viejo baúl de los recuerdos que hemos colaborado todos de una u otra forma a enterrar (...). La amnistía es una causa vital para nuestro pueblo y nos parece perfecto que se manifieste para conseguirla. Pero con objetivos claros con la honradez que nos ha caracterizado siempre. La amnistía con ser importante, con ser vital y precisamente por ello no puede ser utilizada como bandera de los que a río revuelto pretenden servirse de ella para consolidar precisamente la situación que la amnistía pretende evitar (...). La amnistía ni es una panacea en si misma ni supone la solución a nuestros problemas, pero es la puerta que necesariamente tenemos que abrir para poder dar un tratamiento político al problema del Pueblo Vasco”.

Erreforma politikoak ondo neurtu zituen bere erritmoak. 1976ko urriaren 12an argitaratutako dekretu batek sine die atzeratu zituen indar demokratikoak behin eta berriz eskatzen ari ziren udal hauteskundeak. Beraz, ez ziren 1977an egingo, behetik gorako prozesu konstituziogile oro eragozteko eta auzo batzarrak nahiz Bergarakoaren tankerako alkate taldeak hartzen ari ziren protagonismo gero eta handiagoa mugatzeko.

Hauteskunde orokorrak alderdi guztiak legeztaturik egon gabe egin ondoren, Konstituzioari buruzko eztabaida eta erreferenduma iritsi ziren. Erregimenak Espainiako Konstituzioa onartuta eta “preautonomikoa” bideratuta egon arte itxaron zuen hurrengo urratsa egiteko. Hala, 1979ko martxoan Gorteetarako bigarren hauteskunde orokorrak egin ziren, eta 1979ko apirilean Franco hil osteko lehen udal hauteskundeak.

Alkateen Taldea eratu zenetik 1979ko hauteskundeak egin ziren arte igaro ziren bi urteetan, haren protagonismoa moteltzen joan zen. Hala ere, Euskal Herriko udal frankista askok dimisioa eman zuten eta haien ordeztatu ziren gestorek udal jarduerari eutsi zioten udal berriak sufragio unibertsalez hautatu ziren arte.



EUSKADI Nahi Dugu
KINISTIA OSOTARPAIA KINISTIA
ATZERETUKI ETXETAN
INDEPENDIENTE

EIA POR UNA EUSKADI REUNIFICADA
INDEPENDIENTE
SIN CENSURA

PERTURBACIONERA
EZ DUTEN

Manifestazioa Algortan (1977) aldarrikapen guztiak presente.



Amnistiaren alde buruturiko manifestazio jendetsuetarik bat.

Herri ofentsiba eta Amnistiaren Aldeko Batzordeak

Diktadorea fisikoki desagertu ostean, ekimen sindikal eta soziolaboralak ugaltzearekin batera, herri mugimenduek eta mugimendu sozialek ere gero eta protagonismo handiagoa hartu zuten. Ekimen kolektibo haiek askotariko gaiak lantzen zituzten, hala nola kutsadura, auzoen egoera, gazteen arazoak, euskara, euskal kosta ez-nuklearra eta, bereziki, amnistia.

Bere apustu estrategikoari eutsiz, EAJk herri ekimen ororen aurka jotzen zuen. Izan ere, jeltzaleen helburua oso argia zen: erbesteko Eusko Jaurlaritza izatea erreferentzia politiko bakarra Euskal Herriko bizitza politikoan. Hala eta guztiz ere, herri mugimenduak aurrera egitea lortu zuen, hainbat sektore sozialen eta ezker abertzalearen aldarrikapenak bere eginik. Denborarekin, alderdi klasikoek (PSOE eta EAJ) oztopo gisa ikusi zuten herri mugimenduak agertoki politikoan esku hartzea, haien interes nagusia ez baitzen herri borroka demokratikoa sustatzea, legeztatena albait azkarren lortzea baizik.

Urte haietan, gazteriaren esnatze nabaria gertatu zen. IAM (Ikasle Abertzale Mugimendua) sortu zen eta bi aldarrikapen nagusi jarri zituen mahai gainean: euskal eskola publikoa sortzea eta ikasleak eragile sozial eta protagonista gisa onartzea hezkuntzaren arloan. Bestetik, garrantzi handiko gazte erakunde abertzale bi sortu ziren: EGAM (Euskadiko Gazteri Abertzale Mugimendua), bloke politiko-militarraren eskutik; eta GAI (Gazteri Abertzale Iraultzailea), KASeko beste sektorearen eskutik.

Euskararen aurrerapen sozialari dagokionez, aipatzekoak dira ofizialtasunaren aldarrikapena, Euskaltzaindiaren eskakizunak eta Bergarako alkate taldeak eskatzen zuen koofizialtasun osoa. Bestetik, ikastolen lehen biltzarra egin zen Gasteizen, non Euskal Herri osoko 188 ikastolak euskarazko irakaskuntzaren doakotasuna eskatu baitzuten, eta Udako Euskal Unibertsitatea lehen aldiz egin zen Hego Euskal Herrian.

1977a Lemoizen eraiki nahi zuten zentralaren kontrako mugimendu antinuklearraren sendotze urtea ere izan zen. 1976. urtearen erdialdetik aurrera, Euskal Itsasalde ez Nuklear baten Defentsarako Batzordeak lideratu zituen Lemoizko zentral nuklearraren kontrako mobilizazioak. Urte horre-

tako udan 50.000 pertsonak parte hartu zuten Plentzia eta Gorlizen arteko martxa batean. 1977ko udan, berriz, 150.000 pertsonatik gora bildu ziren “*Antes que energía nuclear, consulta popular*” leloarekin Bilbon antolatutako manifestazio erraldoian. Ezin argiago geratu zen herria zentrala eraikitzearen kontra zegoela.

Nolanahi ere, amnistiaren aldekoa izan zen herri mugimendurik indartsuena, dinamikoena eta aktiboena. Beste edozein mugimenduk baino atxikimendu zabalagoa jaso zuen eta askotariko mobilizazioak eta ekimenak antolatu zituen, garai hartako jendetsuenetakoak. Amnistiaren Aldeko Batzordeen inguruan egituratuta, mugimendu hori inoizko ofentsiba herritar eta politikorik handienaren protagonista izan zen 1977an, urte osoan zehar.

1975ean, eta bereziki euskal militanteen aurkako epaiketa sumarisimoen aurreko hilabeteetan, amnistiaren aldeko mobilizazioak egin ziren Hego Euskal Herriko herri eta hiri gehienetan, presoen askatasuna eskatuz.

Orduz geroztik, amnistiaren aldarrikapena berez hedatzen joan zen eta Franco hil ondoren inoiz baino indar handiagoa hartu zuen. Presio horren aurrean, erregimenak hainbat indultu eman behar izan zituen. Hara ere, indultu guztiak alferrikakoak izan ziren, “odol delituengatik kondenatutakoak” haietatik kanpo gelditzen zirelako. Bitartean, errepresio etengabeak ohiko ondorio latzak ekartzen jarraitu zuen: hildakoak, zaurituak, espetxeratzeak, milaka atxiloteta eta tortura nahiz tratu txar sistematiakoak.

1976ko lehen hilabeteetan, amnistiaren aldeko mobilizazioek indar handia hartu zuten eta manifestazio jendetsuak egin ziren Bilbon eta Donostian. Herri ofentsiba espontaneo hura sendotzeko eta artikulatzeko asmoz, 1976ko martxoaren 31n amnistiaren aldeko lehen batzordea sortu zen, Donostian, preso politiko guztientzat amnistia eskatzen zuten hainbat pertsona ezagunez osatua. Urtariletik aurrera, batzorde hori antolatzen aritu ziren abokatu talde bat eta Gipuzkoan izen handia zuten hainbat pertsona, haien artean Eduardo Txillida eskultorea, Andoni Elizondo Real Sociedadeko entrenatzaile ohia, Felix Soto eskubaloia entrenatzaile ohia, Miguel Castells eta Juan Maria Bandres abokatuak...

Apirilean, kartzelatik irteteko inolako aukerarik aurreikusten ez zenez, 29 preso politikok Segoviako espetxetik ihes egin zuten. Ihesaldi hura erreforma politikoaren garaiko odisearik epikoena izan zen, baina oso amaiera

dramatikoa izan zuen: hildako bat eta bi zauritu. Gainera, bost izan ezik, iheslari guztiak harrapatu eta espetxera itzuli zituzten. Horrek berriro jarri zuen erdigunean amnistiaren aldarrikapena.

Luze gabe, gainerako herrialdeetan pertsona ospetsuen bidez eratutako hainbat batzorde gehitu zitzaizkion Donostiako Amnistiaren Aldeko Batzorde aitzindariari, eta 1976ko ekainaren 1ean lehen prentsaurreko bateratua eman zuten. Urte batean, tokian tokiko 60 batzorde baino gehiago sortu ziren. Maiatzean eta ekainean gobernuak bilera, manifestazio eta elkartzeko eskubideari buruzko lege berriak onartu zituela baliatuz, Amnistiaren Aldeko Batzordeek ekitaldi bat antolatu zuten ekainaren 27rako, Donostiako Anoeta pilotalekuan. Eduardo Txillidak, Miguel Castellesek eta Juan Maria Bandresek egin zuten eskaera, baina ezezkoa eman zieten.

Une hartatik aurrera, herri ekimenak pertsona ezagunen protagonismoan oinarritutako eredia gainditu zuen eta presoak kaleratzeko aldarrikapena herrietatik dinamizatu zen. Uztailaren 8an, 130.000 pertsona inguruk amnistiaren aldeko manifestazio jendetsua egin zuten Bilboko kaleetan. Hurrengo egunean, Guardia Zibilak tiroka desegin zuen Sardinaren Jaiaren harira Santurtzin egin zen amnistiaren aldeko manifestazio bat. Helburua argia zen: amnistiaren aldeko deialdien arrakasta zapuztea. Tiro batek Normi Mentxaka santurtziarra jo eta bizia kendu zion. Dolua adierazteko, uztailaren 10ean Iruñeko Sanferminetako herri berbenak bertan behera geratu ziren eta amnistiaren aldarrikapenak kaleak hartu zituen.

1976. urtearen erdialdean, trantsizio gobernuaren gidaritzak hartu bezain laster, Adolfo Suarez amnistiaren irismena zehazten saiatu zen, delitu politikoei zegokienez frankismoak erabili zuen tipifikazioa irizpidetzat hartuz: *“helburu politiko sozialekin egiten diren baina ondasunei nahiz pertsonen bizitzari edo osotasunari eragiten ez dieten delituak”*, hau da, errebelio, bandidaje edo terrorismo gisa tipifikatzen ez ziren delituak. Hala, 1976ko uztailaren 30ean, Ministro Kontseiluak iragarri zuen “amnistia” emango ziela preso politikoei, baina, Zigor Kode berria betez, “odol delituak” eta borroka armatuarekin nolabaiteko lotura zuten delitu guztiak dekretuaren aplikaziotik kanpo utzi zituen.

Gobernuarentzat eta eskuineko oposizioarentzat, amnistia emanda zegoen dekretu horrekin. Estatuko oposizioak, aldiz, dekretua kritikatu zuen, esanez amnistia partzial hura ez zela “espero zen amnistia”. Hala ere, estatuko

preso politiko gehienak kalera atera zirenez, oposizioa desmobilizatu egin zen. Euskal Herrian, ordea, sasiamnistiatzat hartu zen eta ez zituen herriaren itxaropenak bete, “Estatuaren segurtasunaren kontrako atentatuak” kanpoan uzten zituelako. Euskal preso politiko gehienak esplizituki uzten zituen kanpoan, eta horrek oso erantzun zabala eragin zuen: gose grebak egin ziren kartzeletan, Euskal Herriko udal askok amnistia hura guztiz murrizta zela salatu zuten eta, bereziki, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eratu ziren espetxean gelditu ziren presoek herrietan. Leku askotan, herriko jaiak baliatu ziren elizetan itxialdiak egiteko eta amnistiaren aldeko manifestazioak antolatzeko, Perturren desagerpena ere salatuz. Hondarribian, Guardia Zibilak tiroka eraso zion amnistiaren aldeko manifestazio bati. Josu Zabala irundarra bularraldean bi tiro jasota hil zen eta jaiak bukatutzat eman ziren. Hurrengo egunean, Hondarribiko balkoiak eta kaleak ikurrinaz bete ziren, xingola beltzekin, eta irailaren 11n bertan behera geratu zen Donostiako Nazioarteko Zinemaldia inauguratzeko egitekoa zen gala afaria. Protestak hiriko kaleak hartu zituen eta Poliziaren kargetik bala-zauritu gehiago eragin zituzten.

Udazkenean egoerak berdin jarraitu zuen. Azaroan, Gobernu Zibilaren onespeneraren zain egon gabe, Bizkaiko Amnistiaren Aldeko Batzordeak jendaurreko aurkezpena egin zuen, Jose Angel Iribar Athleticeko nazioarteko atezainaren eskutik. Helburua hauxe zen: “esklusiorik gabeko amnistia osoa” lortzea kartzelan gelditzen ziren 130 euskal preso politikoentzat eta arrazoi politikoengatik erbesteratutako pertsona guztientzat.

Abenduaren 13an, Burgosko espetxean zeuden ETAko presoek gose greba hasi zuten, eta hilaren 19an amnistiaren aldeko itxialdia abiatu zen Bilboko Gotzaindegian. Horrela, hasiera eman zitzaion amnistiaren aldeko kanpainari bati, “Gabonetarako Presoak Etxera” leloarekin. Abenduaren 23an, Poliziak kalera bota zituen Bilbon itxialdia egiten ari zirenak, eta Eguberri egunean manifestazioak egin ziren Basauriko espetxearen aurrean eta Nafarroako hiriburuan.

Gabon gauean, Alfonso Sastre, Telesforo Monzon, Piarres Larzabal, Mariano Zufia karlista aurrerakoaia eta beste pertsona ezagun batzuk buru zituen talde batek protestaren lekukoa hartu zuen. Gose greba hasi zuten Baionako katedralean, euskal errefuxiatuen egoera salatzeko. Frantziako Poliziak birritan aterarazi zituen katedraletik, baina berriro sartu ziren eta itxialdiarekin nahiz gose grebarekin jarraitu zuten.

Abenduaren 29an beste gose greba bat hasi zen, Oreretan, eta manifestazioak egin ziren hainbat herritan. Hilaren 30ean, Poliziak amnistiaren aldeko manifestazioak desegin zituen Gasteizen, Eibarren eta beste leku batzuetan, eta Donostiako eta Elgoibarko udalek aho batez erabaki zuten Espainiako erregeari amnistia eskatzea preso eta erbesteratu guztientzat.

Itxialdiak Euskal Herri osora hedatu ziren. Garrantzitsuenetako bi urtarri-laren 2an Donostiako Artzai Onaren katedralean eta Bilboko San Anton elizan egindakoak izan ziren. Hilaren 4an, itxialdien osteko manifestazio jendetsuak gobernu zibiletaraino joan ziren, amnistiaren aldeko sinaduraz betetako orriak ematera. Abian zen amnistiaren aldeko herri ofentsiba, historia egingo zuen mugimendu indartsu bat buru zuela: Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Ordurako, ehun baino gehiago ziren batzordeak zituzten herriak eta auzoak, eta haien koordinazio egitura sendoak 1977a amnistiaren urtea izango zela iragartzen zuen. Amnistiaren aldeko asteen eta Askatasunaren Ibilaldiaren urtea.



Gaikako kronika

Hilabete lehenago, ikurrina legeztatu zuen herriak berak Atotxako futbol zelaiari.

Urte hasiera: ikurrina, Euskal Herriko bandera nazionala

Ikurrina legezkoa zen Ipar Euskal Herrian. Balkoietan ikus zitekeen eta autoan itsasteko eranskailu gisa saltzen zen nonahi. Hego Euskal Herrian, ordea, debekatuta eta gogor jazarrita zegoen. Batzuetan, polizia nahiz guardia zibilak tiroka hasten ziren ikurrina erakusten zutenen kontra, eta hainbat pertsona hil zituzten.

Diktaduraren garaian, ikurrina sinbolo antifrankista nagusia bilakatu zen eta, horregatik, beste edozein baino gogorrago jazarria izan zen. Diktadorea hil eta erreforma prozesua hasi zenean, polizia indar guztiek bere horretan eutsi zioten ikurrinaren kontrako jazarpenari, eta legeztapena aldarrikapen politiko gero eta zabalagoa bilakatu zen. ETAk, berriz, ikurrina bere lehergailuei itsatsita jartzeari ekin zion. Besteak beste, Arantzazun hiru guardia zibil hil ziren ikurrina bat kendu ondoren, hari lotuta zegoen lehergailuak eztanda egin zuenean.

1976ko maiatzean, Manuel Fraga Gobernazio ministroak elkarrizketa antologiko bat eman zion Venezuelako telebista bati. Bere gordinean, nekez ahazten diren elkarrizketa horietako bat izan zen, oso argi erakutsi baitzuen zeinen handia zen trantsizioaren sustatzaileen harrokeria. Ikurrinaz ari zela, honakoa esan zuen Fragak:

“Hemos autorizado todas las banderas regionales menos la vasca, porque no es una bandera regional, es una bandera separatista, es una bandera, si es que me permite que lo diga, falsa. La llamada Ikurriña y mal llamada vasca, fue dibujada por Sabino Arana con fines separatistas... y es una mala copia de la bandera inglesa; que por cierto no es un buen paralelo para un español, trasladar la Unión Jack a otros colores. Y esa para muchos vascos es un insulto, y para los españoles, por supuesto. Hay una diferencia entre una bandera por la cual se ha atentado contra la unidad española, y las banderas regionales como la catalana o la valenciana que están perfectamente limpias... Voy a decir lo siguiente: yo he planteado esa cuestión y han sido los vascos los que han dicho que no la aceptan de ninguna manera... la mayoría de los vascos no la quieren. No estoy hablando de españoles, sino de vascos cuando digo esto. Y en todo caso, antes de permitir exhibir esa bandera, pasarán sobre mi cadáver...”

Urte horretako irailean Hego Euskal Herrira egindako bisita batean, Rodolfo Martín Villa Gobernazio ministroak esan zuen ikurrina ez zela Euskal Herriko bandera, baizik eta alderdi baten bandera, EAJrena hain zuzen ere. Ikurrina legeztatzeko eskaera etengabeaz galdetu ziotenean, Martín Villak erantzun zuen agian haren erabilera baimenduko zutela EAJren ekitaldientan, baldin eta alderdi horrek elkarte politikoen lege berriari men egiten bazion, baina inola ere ez zuela uste etorkizunean Euskal Herriko bandera “erregionala” izango zenik. Horrenbestez, legezapena herri osoaren aldarri bihurtu ezean, ikurrinak legez kanpokoa izaten jarraituko zuen eta haren etorkizuna alderdi politiko zehatz bati lotuta egongo zen. Hala ere, handik gutxira gobernuaren planak ezerezean geratu ziren: abenduaren 5ean ikurrina Atotxako futbol zelaiaren erdian agertu zen, Iribar eta Kortabarria Athleticeko eta Realeko kapitainen eskuetan. Egun gogoangarri hartan herriak legeztatu zuen ikurrina.

Instituzioei dagokienez, alkateen mugimendu demokratikoa izan zen ikurrina legeztatzeko herri aldarriarekin bat egin zuen adierazpide instituzional bakarra. 1977ko urtarrilaren 16an egin zuen ekitaldi handian ehunka ikurrina ikusi ziren, eta indar erakustaldi horren ostean argi geratu zen debekuak ezingo zuela luze iraun.

Ikurrinak gero eta babes handiagoa zuen gizartearen aldetik eta, denborarekin, horrek agerian utziko zuen erregimenaren porrota, ustezko demokratizazioaren mugekin gertatu zen bezalaxe. Urtarrilaren 18ko gauean, biharramunetik aurrera ikurrina inolako mugarik gabe erabili ahalko zela zioen zirkular bat bidali zen gobernu zibiletara. Horrek sutan jarri zuen Jose Antonio Zarzalejos Altares Bizkaiko gobernadore zibil eta Mugimenduko probintzia buruzagia, eta dimisioa aurkeztu zuen egun horretan bertan. Herria, ordea, izugarri poztu zen. Poz handi horren adierazgarri, Donostian ikurrina atera zuten San Sebastian eguneko danborradan. Hurrengo egunetan, hainbat udalek ikurrina udaletzeko mastan jartzea erabaki zuten (Iruñea, Aurrabia...), eta handik aurrera haren erabilera normalizatzen joan zen.

Hala ere, hainbat urte geroago, Espainiako Estatuak berriro ekin zion ikurrinaren kontrako ofentsibari. Banderen erabilera arautzen zuen 1981eko legearen arabera, Espainiako bandera derrigorrez jarri behar zen “bandera autonomikoa” jartzen zen leku eta ekitaldi guztietan. Bederatzigarren artikulua “lege urratzeak zuzentzeko” agintzen zien gobernadore zibilei.

Atzerapausu horren ondorioak inon baino zuzenagoak eta gordinagoak izan ziren Nafarroan. 1981eko abenduan, Iruñeko Udalak ikurrina udal-
txeko balkoitik kentzea erabaki zuen, UCD, UPN eta PSOEren botoekin. Ordurako, Nafarroako Parlamentuak erabakita zeukan Erresuma Zaharre-
ko udalek “era ofizialean bandera gorri-horia eta herrikoa soilik” erabili
ahalko zituztela.

Zenbait urte geroago, 2003ko apirilaren 4an, Nafarroako Parlamentuak Na-
farroako Ikurren Legea onartu zuen, herrialdeko udalei ikurrina jartzea era-
gozteko, baina 2017ko martxoan aldametaren gobernuak legea indargabetu
zuen. Nolanahi ere, Nafarroako indar espainolistek ikurrinaren kontrako
jazarpenari eusteko asmoa agertu dute, beste bide batzuetatik bada ere.

Era berean, 2003tik aurrera espresuki debekatuta egon zen eraikin ofizia-
letan ikurrina erakustea haren aldamenean Espainiako bandera jarri gabe.
2007an, hainbat helegiteri erantzunez, Espainiako Auzitegi Gorenak kasu
guztietan ikurrinaren ondoan Espainiako bandera jartzera behartu zituen
Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio guztiak.



ACHIAGA AGUIRRE
Detenido el 76
Carcel de Carabanchel



IZKO DE LA IGLESIA
Detenido el 69
Carcel de Cordoba



GOTIA BATIZ
Detenido el 75
Carcel de Burgos



PEREZ BEOTEGUI
Detenido el 75
Carcel de Burgos



URIARTE ROMERO
Detenido el 69
Carcel de Cordoba



ELORRIAGA MIKEL
Carcel de Nancarras




MUNTXAKATORRE AGUIRRE
Detenido el 76
Carcel de Burgos



BLANCO CHIVITE
Detenido el 75
Carcel de Cordoba



MURUA KOLDO
Carcel de Nancarras



A.M. SAGUIS
Detenido el 77



GONZALEZ GILMAS
Detenido el 76
Carcel de Valenciennes



EGASA ARISTI
Detenido el 76
Carcel de Valencia




ARRUABARRENA ESNAOLA
Detenido el 74
Hospital de Carabanchel



LARRASAGA JUARISTI
Detenido el 77
Carcel de Martenes



MENDIZABAL BENITO
Detenido el 76
Carcel de Burgos



YARZA ECHIBIQUE
Detenido el 73
Carcel de Cordoba



ALDANONDO
Detenido el 77
Martinez



IBARGUREN AZKUE
Detenido el 75
Carcel de Burgos



DORRONSORO CEBERIO
Detenido el 68
Carcel de Cordoba



GONZALEZ TERRON
Detenido el 75
Carcel de Barcelona



PELLO BASCON
Detenido el 77



AGUIRRE ECHAURI
Detenido el 75
Carcel de Burgos



PANISELLO DANIEL
Detenido el 75
Valencia



GOROSTIDI ARTOLA
Detenido el 69
Carcel de Caceres



SARASQUETA IBANEZ
Detenido el 68
Carcel de Puerto de Sta. Maria



EZ
DA
NEGOZIATZEN
HERRIA ARI DA LORTZEN



EGIA FELIX
Detenido el 75
Hospital de Carabanchel



PAGOAGA GALLASTEGUI
Detenido el 76
Carcel de Carabanchel



ONANDIA NACHIBONDO
Detenido el 69
Carcel de Cordoba



ALDALUR AROCENA
Detenido el 76
Carcel de Zamora



M. JESUS AUZIN
Detenido el 77



GARMENDIA ARTOLA
Detenido el 74
Carcel de Caceres



GOHBURU MENDIZABAL
Detenido el 75
Carcel de Burgos



BAZTAN CARRERA
Detenido el 77



MUGICA ARRIGUI
Detenido el 75
Carcel de Burgos




LARREA XABIER
Detenido el 69
Carcel de Caceres

AMNISTIA

OROKORRA

ETA ORAIN



Argazkiak: FANTZTEK, Pire, 80. Argazkiak: Z. O. S. (R) 1987



Martxoak 3aren lehen urteurrena Gasteizen, 1977. Fondaia: Arabako artxibo forala.

Otsaila-martxoa. Amnistiaren aldeko lehen astea. “Amnistia ez da negoziatzen, herria ari da lortzen”.

Erreformari buruzko erreferendumaren urteak amaiera beroa izan zuen Hego Euskal Herrian: bost presoak Basauriko espetxetik ihes egin zuten eta, Gabonetan, preso politikoak kaleratzearen eta erbesteratuak itzultzearen aldeko mobilizazio kanpaina indartsua egin zen (itxialdiak, manifestazioak, gose grebak, ahobatezko adierazpen instituzionalak...). Urte berria Amnistiaren Aldeko Batzordeen egutegian idatzita ageri zen “Amnistia orokorra, presoak kalera” leloarekin hasi zen. 1977an preso politikoen afera agenda politikoaren erdigunean eta demokratizazio eskaeren lehen lerroan egongo zela iragartzen zuen horrek.

Berehala frogatu zen hala izango zela. Urtarrilaren 8an, Sestaoko elizan egindako itxialdi baten ostean, hiru mila pertsonak amnistiaren aldeko manifestazioa egin zuten herriko kaleetan, eta Guardia Zibila nahiz Polizia Armatua gogor oldartu zitzaizkien. Karga etengabeek sei zauritu eragin zituzten eta Juan Manuel Iglesias hamabost urteko gaztea hilda erori zen poliziaren indarkeriatik ihesi zihoanean. Hurrengo egunetan Ezkerralde osoa zutik jarri zen. Manifestazio jendetsuak egin ziren Sestaon, Portugaleten eta Santurtzin, eta Babcock Wilcox lantegiko asanbladak hilaren 11n greba orokorra egiteko deia zabaldu zuen. Hamazazpi erakunde politiko eta sindikalen atxikimenduarekin, greba orokorrak itsasadarraren ezkerralde osoa gelditu zuen.

Otsailean, Basauriko ustezko ihesa gertatu eta ia bi hilabete geroago, kamioi batek kartzelako patioaren zorua apurtu zuen, bukatu gabeko tunel bat agerian utziz. Horrela jakin zen abenduan ez zela inolako ihesaldirik egon. Ustez ihes egin zuten bost presoak espetxe barruan ezkutaturik aurkitu zituzten.

Otsailaren 11n, *La Gaceta del Norte* egunkariak Jose Maria Portell kazetariaren artikulu bat argitaratu zuen, honako titulu honekin: “Gobernua, ETA-rekin negoziatzeko prest”. Kalean oihukatzen ziren edo jendeak paparrean eramaten zituen “Presoak Kalera” eta “Amnistia Denontzat” leloak erreali-

tate bihurtzeko balizko aukerari buruz hitz egiten zuen artikuluan. Kazetariaren arabera, gobernuak prest omen zegoen amnistia emateko edo presoak askatzeko hauteskundeetara atentaturik gabe iristea ahalbidetuko zion sueten baten truke. Hala ere, aurreko hilabetean, estatuko oposizioak – “be-deratzien batzordearen” bidez– Adolfo Suarezren gobernuarekin negoziatu zituen alderdi politikoek eta sindikatuen legeztapena, hauteskundeetarako araudia eta prozedura eta “benetako amnistia”, eta negoziazioen emaitza oso adierazgarria izan zen: gobernuak lehen bi eskaerak onartu zituen, bai-na amnistia ez.

Horren aurrean, Amnistiaren Aldeko Batzordeek argi ikusi zuten ezin negoziatio batzordek ezin izango zuela lortu herriarren borrokak kalean lortuko ez zuen ezer. Horregatik, amnistiaren aldeko aste bat antolatu zuten otsailaren amaierarako, “Amnistia ez da negoziatzen, herria ari da lortzen” leloarekin. Deialdia egitean, antolatzaileek azpimarratu zuten diktadura batetik gizarte demokratiko bateranzko trantsizio batean ezin zela inola ere onartu preso multzo bat kanpoan utziko zuen negoziatuz, horrek egoera politikoa eta bortxa adierazpenak katramilatu besterik ez baitzuen egingo.

Horrenbestez, hasiera eman zitzaion 1977ko amnistiaren aldeko lehen aste-ari. Otsailaren 26an hasi eta martxoaren 6an bukatuko zen. Aste osoan zehar, Amnistiaren Aldeko Batzordeek askotariko mobilizazioak eta ekimenak antolatu zituzten, aldarrikapen nagusi baten inguruan: eskusiorik gabeko amnistia, Euskal Herrian bizitza eta bizikidetzak normalizatzen has-teko ezinbesteko urrats gisa.

Astearen hasieran, itxialdiak egin ziren eliza eta udaletxeetan, eta amnistia osoaren aldeko manifestazio ugari. Gipuzkoari dagokionez, otsailaren 26an eta 27an milaka lagun mobilizatu ziren Oleretan, Bergaran eta beste herri batzuetan. Bestelako ekimen asko ere egin ziren, hala nola gose grebak ikas-tetxeetan, kateatzeak, hitzaldiak... Ia ez zen istilurik egon.

Bizkaian, ordea, amnistiaren aldeko asteak beste jite bat hartu zuen hasie-ra-hasieratik. Polizia indarrek sistematikoki jo zuten manifestazio guztien kontra eta indarrez desegin zituzten itxialdi guztiak, Bilbon, Markinan, Lu-txanan, Bermeon... Istilurik larrienak Elorrion eta Lekeition gertatu ziren, otsailaren 26tik 27rako gauean. Goizaldeko hiruretan, itxialdietan parte hartzen ari zirenak kulata ukaldika kanporatuak izan ziren. Berrogeita ha-mar zauritu larri egon ziren, buruan kolpe gogorrek hartuta.

Martxoaren 2an, 3.500 pertsonak ibilaldi jendetsua egin zuten Donostiatik Martuteneko espetxeraino. Martxoaren 3an, berriz, greba orokorra egin zen Araban, amnistia aldarrikatzearekin batera Gasteizko masakrea gogoratuz. Hilaren 4an eta 5ean ere manifestazio jendetsuak egin ziren, eta Realeko jokalariek Atotxako futbol zelaiaren erdira eraman zuten amnistiaren aldarrikapena, “Eusko gudariak etxean nahi ditugu. Presoak kalera” zioen pankarta bat erakutsiz. Azkenik, eta asteari amaiera emateko, Amnistiaren Aldeko Batzordeek martxoaren 6an Gasteizera joateko deialdi nazionala egin zuten. Guardia Zibilak ehunka kontrol jarri zituen errepideetan eta Poliziak hiriko kaleak hartu zituen. Sarrera guztiak itxita zeudenez, Gasteizera iristea lortu ez zutenek manifestazio jendetsuak egin zituzten Idiazabal, Oretetan eta Tolosan. Milaka lagun elkartu ziren “Presoak kalera” eta “Amnistia Denontzat” leloen inguruan.

1977ko amnistiaren aldeko lehen asteak epilogo odoltsua izan zuen: martxoaren 8an, Nicolas Mendizabal *Zaharra* eta *Sebas* Goikoetxea segada batean hil ziren, Guardia Zibilak Ezkio-Itsason jarritako kontrol batean tirokatu. Erantzun gisa, greba orokorra eta oso manifestazio jendetsuak egin ziren Gipuzkoan, amnistiaren aldeko astea luzatuz. Hala ere, odol isurtzea ez zen hor bukatu. Martxoaren 12an, Poliziak Jose Luis Aristizabal Lasa hogeituro urteko ikaslea hil zuen Donostian, amnistiaren aldeko mobilizazio bat desgitean. Gomazko pilota batek aurpegia txikitu zion.

Martxoaren 13ko goizean, gazte donostiarraren heriotzaren albistearen oraindik zabaldu ez zelarik, amnistiaren aldeko manifestazio bat Anoetako belodromoan sartu zen, Pista Estaliko Europako Atletismo Txapelketaren erdian. Hiru mila pertsonak pista osoa hartu zuten eta txapelketa ordu erdiz eten behar izan zen. Hogeita lau herrialdetatik iritsitako kazetari eta argazkilariak zur eta lur geratu ziren.

Martxoaren 14an, Aristizabalen heriotzaren berri jakin ondoren, Donostiako denda, banketxe eta enpresa gehienek atak itxi zituzten. Gaztearen hiletan hamar mila pertsonak amnistiaren aldeko manifestazioa egin zuten.

Hilketa hark are indar handiagoa eman zion errepresio indarrak desgiteko aldarrikapenari. Amnistiaren aldeko mobilizazioen arrakastarekin batera, zentzuzkoa da pentsatzea gobernua horren ondorioz onartu zituela amnistiari eta aurreko indultuei irismen handiagoa eman zieten dekretuak. Grazia neurriei buruzko 19/1977 Errege Lege Dekretua eta indultu oroko-

rrari buruzko 388/1977 Errege Dekretua martxoaren 14an argitaratu ziren. Hala ere, dekretu horiek ez zuten amnistia osoa ekarri eta, espetsuean zeuden 110 euskal preso politikoetatik, 74ri soilik aplikatu zizkieten.

Egun bat lehenago, ABC egunkariak honako titulu hauek ekarri zituen: *“Amnistia hau inoiz eman den eskuzabalenetako bat izan daiteke”, “Politikoak eta arruntak kontuan hartuz, berrehun preso gera daitezke aske”, “Hogeita bi kasu banan-banan aztertu behar dira”...* Hogeita bi kasu horiek atrakoengatik eta kalte handiak eragiteagatik 60ko hamarkadaren bukaeratik edo 70eko urteen hasieratik espetsuean zeuden ETA V eta ETA VI erakundeetako hogeita bi euskal preso politikoak ziren.

Martxoko dekretuak indarrean sartu ziren egunetik maiatzera bitartean hirurogeita hamar bahitu politiko inguru atera ziren kalera, baina, beste askotan gertatu zen bezala, “odol delituengatik” kondenatutakoak dekretuen aplikaziotik kanpo geratu ziren. Hala ere, “bederatzien batzorde” hartako kidea zen Julio Jauregi EAJko negoziatzaileak honakoa esan zuen: *“Gobernuak bere promesa guztiak bete ditu. Izan ere, martxoaren 14ko dekretuek preso politiko guztien askatasuna ekarriko dute”*. Mingarria zen hori esatea, ez baitzuen kontuan hartzen oraindik 39 preso politiko gelditzen zirela kartzelan, haien artean Burgosko prozesuan eta beste prozesu sumarisimo batzuetan heriotzara kondenatuak izan ziren guztiak. Euskal Herrian, gizartearen gehiengoa ez zetorren bat “negoziatzaile jeltzalearen” interpretazioarekin, amnistia osotzat jotzen baitzituen martxoko dekretuak. Horregatik, Amnistiaren Aldeko Batzordeek amnistiaren aldeko beste aste bat antolatu zuten, maiatzerako.



Eserialdia Oreretako plazan, Amnistiaren aldeko bigarren astean.



Urte bete geroago, 1978an, poliziak berriz lapurtuko du guztia Oreretan; oraingo honetan, apurtutako erakusleihoetatik.

Maiatza. "Amnistia Orokorra eta Orain". Amnistiaren aldeko bigarren astea odolez bete zen

Martxoko amnistia dekretu murrizten osteko lehen kaleratzeak iritsi zirenean, argi ikusi zen herri oso bat zegoela bere presoan atzean. Jaioterrira itzultzen zen preso ohi bakoitzak bere herrikideen harrera beroa jasotzen zuen. Ongietorri hunkigarriak egin zizkieten guztiei.

Hala ere, pozak ez zuen luze iraun. Martxoaren 29an, Isidro Susperregi hil zen Donostian, Polizia amnistiaren aldeko manifestazio baten kontra oldartu zenean. EAE-ANVko militantea zen, 69 urte zituen eta "Eusko Indarra" batailoiko gudaria izan zen. Beste behin ere, frankismoaren garaian polizia indarrei eman zitzaizen inpunitate erabatekoaren iraupenak agerian utzi zituen erreformaren mugak.

Apirilean, kaleko mobilizazio etengabeek beren ekarpena egin nahirik, Espainiako kartzelatan zeuden euskal presoak gose greban sartu ziren, lehenik Caceresen eta hurrena gainerako espetxe guztietan. ETAkoak izateagatik zigor handiak zituzten 39 euskal preso politiko gelditzen ziren kartzelatan. Haiez gain, estatuko edo Espainiaren menpeko nazioetako hogeit hamar preso politiko zeuden.

Horrek amnistiaren aldeko beste aste bat antolatzea eskatzen zuen, baina, hauteskundeak hurbil zeudenez, Suarezekin beren legeztapena hitzartuta zeukaten alderdietako zuzendaritzek amnistiaren aldeko herri mugimendua desmobilizatzea erabaki zuten. Hausturaren aldeko diskurtso sut-suak albo batera utzita, eliteen arteko negoziazioa eta mesede nahiz onura trukea hobesten zituzten mezuak gero eta argiagoak ziren. Testuinguru horretan, oztopo gisa ikusten zuten presoekiko elkartasunaren zentraltasun politikoa eta herri erakundeen protagonismoa zein mobilizazio gaitasuna. Preso politikoek sinbolizatzen zuten erreferentzia traba handia zen beraientzat, erdigunean jartzen zituelako diktaduraren kontrako konfrontazio zuzena eta erregimenarekin benetan hausteko aldarrria. Gainera, agerian uzten zuen beraien estrategia bera ere: herriaren borroka gainezkatuko ez zuen trantsizio bat bermatzea, frankismoaren buruzagiekiko akordioaren eta konplizitatearen bidez.

Hala ere, Amnistiaren Aldeko Batzordeek gizartean irabazia zuten legitimitatea talde politiko gehienen gainera zegoen eta, beraz, beste borroka aste baterako deialdia egin zuten. Maiatzaren 8an hasiko zen, hauteskundeetarako hautagaitzak aurkezteko epea bukatzen zen egunean hain zuzen ere.

Maiatzaren 15era arte iraungo zuen amnistiaren aldeko bigarren aste hori Bergaran, Ordizian eta Oreretan egindako manifestazio jendetsuekin hasi zen. Poliziaren bala batek asteko lehen zauritua eragin zuen, Bidebietan (Donostia).

Hilaren 9an eta 10ean proiektzioak, hitzaldiak eta mahai inguruak egin ziren, martxoaren 14ko dekretuen bidez askatu berriak ziren preso gehienen parte hartzarekin. Bestetik, alderdi abertzaleen ordezkari bat Espainiako Gobernuko presidentearekin elkarrizketatu zen, amnistia urgentziaz eskatzeko.

Maiatzaren 11n manifestazioak egin ziren Elgoibarren, Eibarren, Bergaran, Irunen eta Donostian. Poliziaren kargarik bortitzenak Donostian gertatu ziren. Maiatzaren 12a borroka eguna izan zen. Gipuzkoa osoak lanuztea egin zuen eta, goiz-goizetik, manifestazioak, kargak eta barrikadak egon ziren nonahi. Donostian bi bala-zauritu egon ziren, baina istilurik larrienak Oreretan gertatu ziren, bost bala-zauriturekin. Egoera baretu zenean, Guardia Zibilaren bala batek bizia kendu zion Rafael Gomez Jauregiri. 68 urte zituen, Pasaiko portuan lan egiten zuen, ELA-STVko militantea zen eta EAE-ANVko hautagaia izan zen 1933ko hauteskundeetan. Gerra ostean erbestera joan zen; gero, atxilotu, espetxeratu eta hiltzera kondenatu zuen; eta, azkenean, 1977an erail zuten amnistia eskatzeagatik.

Albistea oso azkar zabaldu zen eta, erantzun gisa, maiatzaren 13an greba Euskal Herri osora hedatu zen. Oreretan, herria mobilizatzen eta bezperako heriotzaz informatzen saiatu ziren, baina Poliziaren kargek eta tiroek beste hiru zauritu eragin zituzten. Egun berean, Clemente del Caño Ibañez auto batek harrapatuta hil zen Bilbo-Behobia autobidean, Guardia Zibilak behartuta barrikada bat kentzen ari zenean. Oreretako Beraun auzoan, berriz, Guardia Zibilaren bala batek sabelean jo zuen Gregorio Maritxalar Aiestaran, etxeko balkoian zegoelarik. Oso larri ospitaleratu zuten. Egun berean, Iruñean, Polizia Armatuko kabo batek Jose Luis Cano Perez 27 urteko gaztea erail zuen. Jipoitu eta ostikatu ondoren, tiro bat eman zion garondoan.

Poliziaren errepresioaren inguruko azken datuen berri jakin bezain laster, protestak, baretu beharrean, biziagotu egin ziren. Maiatzaren 14an, Ortuellan, Guardia Zibilaren bost ibilgailuk Manuel Fuentes Mesa 30 urteko gaztea geldiarazi zuten. Agenteetako batek bizkarretik tiro egin zion eta bala batek buruan zauritu zuen. Gurutzetako ospitalean hil zen. Egun berean, Luis Santamaria Mikelena bihotzekoak jota hil zen Iruñean. 72 urte zituen eta etxeko balkoian zegoen polizien eta manifestarien arteko borrokak ikusten. Halako batean, Poliziak jaurtitako gomazko pilota batek balkoia-
ren kontra jo zuen eta bihotzekoa eragin zion.

Maiatzaren 15ean, amnistiaren aldeko asteko azken egunean, istiluen kontrako polizia talde batek jipoi izugarria eman zion Francisco Javier Nuñezi, Bilbon. 38 urte zituen. Hilaren 17an jipoia salatzerantz joan zen epaitegira. Handik irtetean, ezezagun batzuek bahitu egin zuten eta botila bete koñak eta botila bete ron edanarazi zizkioten. Horren ondorioz hil zen, ospitalean sei egun eman ondoren.


Gregorio Maritxalar Aiestaran oreretarra maiatzaren 24an hil zen, Poliziaren bala batek eragin dako zaurien ondorioz hamar egun ospitaleratuta egon ondoren. Hala, amnistiaren aldeko bigarren astean hildakoen kopurua zazpita igo zen. KASek oso argi adierazi zuen euskal gizartearen kontrako eraso basati eta odoltsu haren gordintasuna: *“Aste bakar batean urte osoan baino errepresio handiagoa erori da Euskal Herriaren gainera”*.

Denboran, amnistiaren aldeko bigarren aste odoltsu hura garrantzi handiko beste bi gertaerarekin batera etorri zen: Xibertako elkarrizketak eta 40 urteko diktaduraren osteko lehen hauteskunde kanpainaren atarikoak. Hurrengo ataletan ikusiko dugun bezala, amnistiaren gaiak eta amnistiaren aldeko bigarren astearen balantze tragikoak erabat baldintzatu zituzten indar abertzaleen jokabidea eta hauteskunde kanpaina bera.





Telesforo Monzon eta Argala, Txibertako elkarrizketetako protagonistetako bi.



Txibertako elkarrizketak irudikatzen dituen bineta.

Xiberta: bestelako trantsizio eredu bati begira aliantza demokratiko abertzale bat eratzeko saiakeraren porrota

1977ko agenda politikoaren ardatz nagusia erreforma eta haustura estrategien arteko lehia izan zen. Bi ereduaren arteko talkak egon ziren, baina baita bide berriak urratzeko gai izan zitezkeen aliantzak sortzeko saiakerak ere. Haien artean, nabarmentzekoak dira Xibertako elkarrizketak. Apirilean eta maiatzean garatu ziren, Alkateen Taldeak sustaturik.

Bi elementu aipa genitzake Xibertako proiektuaren atariko gisa: EAJren Nazio Batzarrak elkarrizketak homologatu zituen eta trantsizioaren kudeatzaileek begi onez hartu zituzten hasiera-hasieratik. Ezker abertzalearen indarra ikusirik (ETA-ren eta ETApm-ren barne), estatua jeltzaleek proposatutako negoziazio bideen alde agertu zen, beste edozein proposamendi atea itxiz. Estatuak Hego Euskal Herrian erakusten zuen ahuleziaren eta narriaduraren aurrean, EAJ izango zen erreformaren babesle nagusia gure lurraldean.

Errepresioa saihestu nahirik, Euzko Alderdi Jeltzaleak bere Nazio Batzarra atzeratu zuen eta, otsailaren 17ko bilkuran Euzkadi Buru Batzarrak hala erabakita, Uri Buru Batzarrei galdetu zien ea egokia iruditzen zitzaien alderdia erregistratzea elkarte politikoei buruzko lege berriak xedatutakoa betez. Militantziaren gehiengoa horren alde agertu zenez, EBBk alderdia legeztatzea erabaki zuen eta martxoaren 16an notario aurrean aurkeztu zituen bere estatutuak, Iruñean. Martxoaren 23an, Juan Ajuriagerrak, Gerardo Bujandak eta Carlos Garaikoetxeak alderdia inskribatu zuten Gobernazio Ministerioko erregistroan, Madril. EAJ legeztatuta geratu zen.

Bitarte horretan, EAJk Errepublikaren osteko lehen herrialde batzarrak egin zituen, otsailean Bizkaian eta martxoaren hasieran Gipuzkoan. Geroxeago, alderdia legeztatu bezain larter, martxoaren 25ean eta 27an Nazio Batzarra egin zuen Iruñean.

Nazio Batzarrean parte hartu zuten 200 ordezkariak lau ponentzia eztabaiatu zituzten: politikoa, sozioekonomikoa, kulturala eta alderdiaren anto-

lakuntzari buruzkoa. Nazionalismoaren jarraitutasun historikoaren aldeko apustua egin eta honela definitu zuten alderdia: udal erakundez osatutako euskal alderdi konfederatua, klaseartekoa eta kristau inspiraziokoa baina akonfesionala. Xabier Arzalluzek idatzi zuen batzarrean onartu zen ponentzia politikoa eta Juan Ajuriagerra ordezkatu zuen alderdiaren kontrolean. Ajuriagerra alderdiko behin-behineko lehendakaria izan zen hogeita hamar urtez, Doroteo Ziaurriz hil zenetik. Haren ordeztu, Iruñeko batzarrean Carlos Garaikoetxea izendatu zuten EBBko lehendakari. Nazio Batzarraren ostean, EAJk Juan Jose Pujana EBBko kidea izendatu zuen Telesforo Monzonek sustaturik Donibane Lohizuneko Xiberta hotelean egitekoak ziren elkarrizketetarako ordezkari.

Handik aurrera, beren hauteskunde estrategia garatzeko orduan, jeltzaleak oso uzkur agertu ziren aliantza politika zehatz batzuen aurrean. EAJ Euskal Herriko jardura politikoaren erdigunetik alboratuta baina frankismoaren aurkako borrokan inoiz izan ez zuen zentraltasun bat erdiesteko asmoarekin iritsi zen Xibertara. Izan ere, euskal erresistentzia armatuaren izaera berritzaile eta aurrerakoia EAJren gaintik gailendu zen frankismoaren garaian. EAJk kezka handiz egiaztatu zuen Euskal Herriari buruzko beste ikuspegi bat zeukan independentismo berri batek abertzaletasunaren erreferentzia kendu ahal ziola. Gainera, ezkerreko posizioen gorakadak eta mugimendu sozialen indarrak beldur handia eragiten zioten, bere posizioa ahulduta ateratzeko arriskua sumatzen baitzuen. Horrek guztiak beste ildo bat hartzera bultzatzen zuen EAJ: gero eta adostasun sakonagoa bilatzea erregimenaren indarrekin eta goitik kontrolatutako erreforma proiektua jadanik bultzatzen ari ziren estatu mailako alderdiekin (PSOE). Azken batean, kontua ordenaren aldeko apustua egitea zen, gainezkatze agertoki oro errotoz eragozteko (oso gogoan zeukaten Portugalen gertatutakoa).

Xibertakoa frankismoaren erreformaren aurrean fronte bateratu nazional bat eratzeko proiektua izan zen. Lehen helburua 1977an egitekoak ziren lehen hauteskunde orokorren aurrean jarrera adostu bat hartzea zen. Euskal Herriko hainbat sektore kezkaturik zeuden eremu antifrankistan gertatzen ari ziren zatiketa eta liskarregatik, eta antagonismo horiek gizartearen gehiengo handi baten itxaropenak zapuztea eragotzi nahi zuten.

Irizpideak bateratzeko ekimenen testuinguruan, eta Telesforo Monzon Anai Artea elkarteko presidentek egindako lanari esker, Erreforma Politikorako Legea erreferendum bidez onartu zenetik indar abertzaleek saia-

tu zituzten proiektu guztietan egonkorrena hezurmamitzea lortu zen, Ipar Euskal Herrian.

Urte hasieran, ETAm-ko zuzendaritza Telesforo Monzonekin bildu zen. Bileran hartan, Monzonek adierazi zien abertzaleen arteko batasuna behar-beharrezkoa iruditzen zitzaioela Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako autonomia estatutu bat lortzeko. ETAm-ren oniritzia jaso ondoren, Monzonek ETApM-ri aurkeztu zion bere proposamena, eta hark ere ontzat eman zuen. KASeko gainerako erakundeen onespina jasotakoan, Monzonek EAJrekin hitz egin zuen eta, aldez aurreko urrats gisa, ETAm-rekin biltzea proposatu zion, ikuspuntuak trukatzeko. Bitartean, martxoaren 7an bilduta, KASeko indar guztiak kontaktuak abiatzearen alde agertu ziren, baina nolabaiteko eszeptizismoa erakutsiz, ez baitzuten uste EAJk abertzaleen arteko aliantza bat lortzeko benetako borondatea zuenik.

Aldez aurreko formalitate horiek guztiak burututakoan, ETAm-k eta EAJk lehen iritzi trukea egin zuten, apirilaren 24an. Erakunde armatuak argi azaldu zion EAJri zein izango zen hauteskundeetan parte hartzearen inguruan hala KASen baitan nola beste erakunde politiko batzuekiko bilereetan erabiliko zuen diskurtsoaren ardatza: “Amnistia osoa, honela ulertuta: preso politiko guztiak eskubide zibil guztien jabe askatzea eta erbesteratu guztiak baldintza juridiko berberetan itzuli ahal izatea. Gutxieneko askatasun demokratikoak, hau da, euskal indar politiko guztien erabateko iritzi askatasuna nahiz jarduera publikorako askatasuna eta herritarrek beren aldarrikapenen alde manifestazioak egiteko askatasuna”.

ETApM-ren iritzi, euskal erakunde guztiek bat egin behar zuten aldarrikapen horiekin, eta epemuga bat jarri zuen: maiatzaren 15a. Gero, epe hori hilaren 24ra arte luzatu zen, hauteskunde kanpaina hasiko zen egunera arte, alegia. Eskaera eta puntu haiek guztiak egun horretarako bete ezean, erakunde armatuak beren su-eten tazittoa hautsiko zuten eta euskal alderdiak hauteskunde prozesutik erretiratu beharko ziren.

EAJren ustez, ordea, ezinbestekoa zen hauteskundeetan parte hartzea, amnistiarekin zein amnistiarik gabe. Ordurako, gainera, Senaturako zerrenda bateratuak prestatzen ari zen PSOErekin. Apirilaren 26an, bi alderdietako zuzendaritzek behin betiko onartu zituzten zerrenda bateratuak (Fronte Autonomikoa izenarekin). Horrenbestez, Xibertako bilerak EAJren ekintza burutuak politikak baldintzatuta hasi ziren.

Lehen esan dugun bezala, Telesforo Monzonek, Alkateen Taldeak eta ETAm-k bultzatu zuten Xibertako proiektua. Bigarren bilera (edo lehen bilera orokorra) apirilaren 30ean egin zen, honako indar hauen parte hartzearekin: ETArekin bi adarrak, Alkateen Taldea, KAS Koordinakundeko alderdiak (EHAS, LAIA, EIA), EAJ, EAE-ANV, EKA eta ESEI. Bilerara ESB eta ES alderdiak ere gonbidatuta zeuden, baina ez ziren joan.

1977ko maiatzaren 10ean, Xibertako taldearen ordezkari bat Adolfo Suarezekin elkarrizketatu zen Madrilen. Xibertan bildutako indar politikoen lehentasun osokotzat edo garrantzi handikotzat jotzen zituzten hiru gaiak jarri zizkioten mahai gainean: amnistia, euskal alderdien legeztatpena eta autonomia estatutua.

Honako hauek izan ziren Xibertako taldeak Madrilerara bidali zituen ordezkariak: Jose Luis Elkoro (Alkateen Taldea), Santi Brouard (KAS), Valentin Solagaistua (EAE-ANV), Juan Jose Pujana (EAJ) eta Carlos Caballero (ESB). Bileratik irtendakoan, zailtzat jo zuten gobernuak hauteskudeen aurretik amnistia ematea. Prentsaren aurrean itxaropentsu agertu ziren arren, KASeko ordezkariak Xibertako taldearentzat egindako txostenean idatzi zuen Suarezek argi hitz egin zuela eta ez zela amnistiarik egongo.

Madrilgo bileraren ostean, hamaika indar politikoen (EAJ, EAE-ANV, EKA, EHAS, ES, EIA, LAIA, ESB, ESEI, ETApM eta ETAm) eta Alkateen Taldeak komunikatu bateratu bat plazaratu zuten, une hartan gobernuaren interes politiko nagusia indar abertzaleak zatitzea zela esanez. Komunikatua honela bukatzen zen: “Azkenik, Euskadiri jardun bateratua eskaintzeko, indar sinatzaileen arteko elkarrizketak segitzeko gure nahia adierazten dugu.”

Hala ere, handik gutxira Xibertako proiektuak porrot egingo zuen, hiru arrazoi nagusirengatik: Suarezekin izandako bilerari buruzko balorazio ezberdinak, indar abertzaleek horren aurrean hartu beharreko jokabidearen inguruko desadostasunak, eta hauteskudeen hurbiltasuna. Hori guztia ageri-agerian geratu zen maiatzaren 12ko eta 14ko bileretan.

Xibertako hirugarren bilera maiatzaren 12an egin zen, hautagaitzak aurkezteko epea bukatu eta lau egun geroago eta Suarezekin izandako bilerari buruzko komunikatu bateratua plazaratu eta bi egun geroago. Hirugarren bilera horretan, Telesforo Monzonek esan zuen bi posizio finko ikusten zituela: “*Bi postura daude hemen: batetik, ETA Militarrak dio hilaren 15etik au-*

rrera erasoaldia hasiko duela, eta kitto; eta bestetik, EAJk dio hauteskondeetara joango dela, eta kitto". ETA prest agertu zen jarduera armatuaren berrabiatzea atzeratzeko, baina EAJk gogor eutsi zion bere jarrerari: *"Abstentzioa ala parte hartzea hautatu beharra bada dena, mahai hau desagertu eta hautsi egiten da. Beste zerbaitek izan behar du oinarri"*.

Laugarren bilera handik bi egunera egin zen. Ordurako, indar politiko guztiek bazuten amnistiaren aldeko bigarren astean izandako lehen heriotzen berri. Horren aurrean, ETAm honela mintzatu zen: *"Gertatuak gertatu, ekintzak egiteko ez gara itxarotearen aldekoak, uste dugu hautagaitzak berehala erretiratu beharko lirakeela, baina EAJk du hitza, zeren ados badago, hauteskondeak baino 15 egun lehenagora arte itxarotea onartuko genuke, nahiz eta ez gauden alde"*.

ETApm ados agertu zen ETAm-rekin. EAJk, aldiz, beste urrats bat egin zuen eta are argiago utzi zuen bere jarrera: *"Hauteskondeetara aurkeztu behar dela uste dugu, herria bozkatzera joango da eta ez du inongo alderdi abertzalek ordezkatu. Dena den, aurreikusi bezala, jende hori bozkatzera joateko modukoak dira baldintzak. Egungo egoera gorabehera, egungo gobernuak hauteskondeak egitea ahalbidetuko du. Proposamen horretan kaleko istiluetarako bidea baino ez dugu ikusten. Eta ez joatea herriari traizio egitea litzateke. Hauteskondeetan parte hartuko dugu. Egoera alda dezaketen gauzak gerta daitezke hilabete honetan, baina une honetan hori da gure jarrera"*.

Monzon beste gela batean bildu zen EAJrekin eta bere erabakia berriz pentsatzeko prest al zegoen galdetu zion. Bilera bukatutakoan, honakoa adierazi zien gainerakoei: *"Atsekabe handiz esan behar dut ez dagoela aterabiderik, hartutako erabaki baten mandatariak dira eta deus gehiago"*. Jarraian, EAJk bileratik alde egin zuen eta ez zuen hurrengoetan parte hartu. Horrenbestez, Xibertan alferrik galdu zen abertzaleen batasuna lortzeko aukera paregabe bat.

Azkenean, ETApm-k, ETAm-k, EIAk, EHASEk, LAIAk, EKAK, ESBk eta ESEIk honako konpromiso hau hartu zuten maiatzaren 14ko bileran: uztailaren baterako amnistia eta alderdi abertzaleen legeztapena eman ezean, beren hautagaitzak erretiratuko zituzten. Hala ere, KASEko erakundeek eta ETApm-ko Bereziek soilik bete zuten konpromiso hori.

Bere aldebakarreko erabakia hartuta, EAJk ez zuen parte hartu Xibertako azken bileretan (maiatzaren 17an eta 23an). Horrenbestez, fronte abertzale

bateratu bat eratzeko saiakeraren porrota agerian geratu zen eta gainerako protagonistek nork bere bidea hartu zuten.

Laburbildurik, hau zen Xibertan jokoan zegoena: hausturarik gabeko trantsizio politikoa onartzea ala haustura lortzeko ahalegin guztiak egitea. Nabarmendu beharra dago Xibertan mahai gainean egon zela borroka armatuari amaiera emateko aukera, azkenean hala gertatu baino zenbait hamarkada lehenago.

Xibertan hiru baldintza jarri ziren borroka armatuari amaiera emateko. Lehenik, eta baldintza nagusi gisa, hausturaren aldeko apustua egitea. Bigarrenik, preso guztien askatasuna, lehen baldintza bezain garrantzitsua. Hirugarrenik, hauteskundeetan baldintza zehatz batzuetan soilik ala inolako baldintzarik gabe parte hartzea. Azken baldintza hori taktikoagoa zen, baina azkenean hura izan zen erabakigarriena. Desadostasunak hasiera-hasieratik azaleratu ziren eta presa ez zen batere lagungarria izan sakoneko gaiei lasaitasunez heltzeko. Ez dago jakiterik zenbateraino izan zen erabakigarria erreforma politikoa inposatutako agendaren presioa, baina komeni da gogoratzea EAJk askoz lehenagotik finkatuta zeukala bere estrategiaren ardatz nagusia: Espainiako Estatuak sustatutako agertokia onartzea.

Oposizio antifrankista osatzen zuten gainerako indar historikoeekin gertatu zen bezalaxe, EAJko zuzendaritzak bazekien estatuko aparatuek eta haien nazioarteko babesleek (Estatu Batuetatik hasi eta Alemaniako sozialdemokraziaraino) erreforma eredia ezusterik eta gainezkatzerik gabe inposatzeko apustu irmoa egina zutela eta oso gogor joko zutela hausturaren aldeko apustuari eutsiko zion edonoren aurka.

EAJk lehenagotik hartuta zeukan erabakia, baina, Xibertako saiakerak porrot egin ostean, ESEI, ESB eta EAE-ANV alderdiek ere hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuten. Azkenean, horrek zatiketa eragin zuen KASen baitan ere: EIAk hautagaitzak mantentzea erabaki zuen; EHASEk eta LAIAk, aldiz, hauteskundeetara ez aurkeztea, beren hautagaitzak erretiratzea eta abstentzio aktiboa sustatzea hobetsi zuten.



Telesforo Monzon euskal konfinatuekin.



Errefuxiatuen aldeko itxialdia Baionako katedralean.

Frantziaren inplikazioa eta “konfinamenduak”

Frankismoaren osteko lehen urteetan, jende gehienarentzat berriak edo ezezagunak ziren hainbat hitz eta kontzeptu politiko gehitu zitzaizkion euskal herritarren ohiko hiztegiari. Batzuk berehala errotu ziren gure artean, hala nola amnistia eta autonomia. Beste batzuek, ordea, errepresioaren mapa ordua arte ezezagunak marrazten zituzten: bizileku asignazioa, konfinamendua, atzerriratzea, estradizioa...

Konfinamendu hitza 1976ko apirilean entzun zen lehen aldiz eta, laster, honela ulertzen hasi zen: inolako epaiketarik gabe euskal errefuxiatuak Ipar Euskal Herrikan kanpo bizitzera kondenatzen zituen zigorra. Zehazki, beraien ohiko bizilekutik urrun zaintzapeko “askatasunean” bizitzera behartzen zituzten.

1976ko apirilean, kazetarien espekulazioek Euskal Herri kontinentalean kokatzen zuten ETApn-k bahitutako Angel Berazadi industrialaria. Apirilaren 6an, Berazadi aurkitzeko aitzakiarekin, Frantziako Poliziak kontrolak jarri zituen Ipar Euskal Herriko errepide nagusietan eta hogeita hamar errefuxiatu inguru atxilotu zituen, sare horretan harrapatuak. Hiru egun geroago, Michael Poniatowski Frantziako Barne ministroak haietako sei Britainiako Yeu uhartera deportatzeko agindua sinatu zuen. Goizaldean, CRS Errepublikako Segurtasun Konpainiek Baionako suprefeturatik Yeu uhartera eraman zituzten. Hurrengo egunetan, konfinatu gehiago iritsi ziren uhartera, haien artean Segoviako espetxetik ihes egin ondoren muga zeharkatzea lortu zuten lauak. Azkenik, maiatzaren 5ean, Jose Manuel Pagaoga Gallastegi Peixoto Baionako espetxetik atera eta uhartera eraman zuten. Guztira, hamabi errefuxiatu geratu ziren Yeu uharrean konfinaturik.

Horrela, Frantziaren eta Espainiaren arteko kolaborazioak ezkutukoa izateari utzi zion eta argitara ateratzen hasi zen, errefuxiatuen kontrako sarekaden eta badaezpadako atxiloketen bidez. Gainera, errepresaliatu mota berri bat agertu zen: Frantziako lurraldean konfinatutako edo deportatutako errefuxiatua. Goitik kontrolatutako erreformaren estrategiak gero eta babes zabalagoa zuen nazioartean eta, neoliberalismorantz lerratzen hasia zen espazio atlantiko-kapitalista batean kokatuta, Frantziako Errepublikak ere haustura alternatiba ororen kontra jotzeari ekin zion.

Edonola ere, eta garai hartan hala ulertu ohi zen arren, gertatzen ari zena ez zen Espainiako Estatuarekiko kolaborazio hutsa. Izan ere, Frantziako Estatuak oso argi izan du beti gatazkak izaera politikoa duela eta, horren aurrean, lehen mailako papera jokatu du betidanik, Madrilek bezalaxe berak ere kosta ahala kosta eragotzi nahi baitu Pirinioen bi aldeetako euskal lurraldeen independentzia. Jende gehienaren irudiko, Frantziako Errepublikak *asilo lurraldea* zen beren ideia politikoengatik jazarritako pertsonentzat, eta zaila izan zen irudi hori apurtzea. Hala ere, 1976an lerrokatze berri baten lehen zantzuak antzematen hasi ziren. Frantziako Estatuaren jarrera berria izugarri kaltegarria izango zen euskal kausarentzat, eta haren adierazpideak eta ondorioak oso tragikoak (gerra zikina, kanporatze eta entregatzeak, horren ondoriozko torturak...).

Apirilean eta maiatzean Yeun konfinatuak izan ziren hamabi euskal herritarrek uhartetik desagertu ziren ekainaren 10ean. Lau hilabete geroago, urriaren 13an, beste euskal deportatu batzuk iritsi ziren Yeura. Ordurako, CRSei kanpamendu berezi bat ezarria zuten bertan. Hurrengo egunetan, Espainiako erregeak urriaren 27tik 29ra bitartean Frantziako hiruburura egingo zuen bisita ofizialaren aurreko egunetan bereziki, Frantziako Gobernuak errefuxiatu gehiago deportatu zituen Yeura. Azaroaren erdialderako, Britainiako uharte horretan konfinatutakoak hamabi ziren berriz ere.

Yeun konfinatuta zeuden hamabi militanteek ehunka euskal herritarren bisita jasotzen zuten astero, eta elkartasun adierazpenak gero eta ugariagoak ziren Britainiako mugimendu nazionalistaren eta Frantziako ezkerren aldetik ere. 1977ko otsailaren 10ean, amnistiaren aldeko mitin-ikuskizun masibo bat egin zen Parisko *La Mutualite* etxean, eta handik hamar egunera beste bat egiteko asmoa zegoen, uhartearen aurrean dagoen Les Sables d'Olonne herrian, baina azkenean bertan behera geratu zen. Izan ere, otsailaren 17an Frantziako Gobernuak konfinamendua kendu zuen eta Yeun zeuden hamabi militanteak kontinentera itzuli ziren, zaintzapeko askatasunean.

Hauteskunde kanpaina hasi aurretik, Xibertako bilerak su-eten baten gerizpean egin ziren, baina hori batasuna hautsi ondoren soilik jakingo zen. ETApM-k hainbat egunez luzatu zuen bere su-etena, EIAk 1977ko hauteskundeetan parte hartzeko hartu zuen erabakia babestu nahi zuelako. ETAm-k eta Bereziek, ordea, kanpaina armatu gogor bati ekin zioten. Berezien ekintzek argi erakutsi zuten haien erakundea bizkor sendotzen ari zela ETApM-ko barne krisiaren ostean. Ekintzarik garrantzitsuena maiatza-

ren 20an egin zuten. Bizkaiko oligarkiako kiderik enblematikoenetako bat bahitu zuten Negurin: Javier Ybarra Berge.

Bere aldetik, ETAm-k ekainaren 4an Madril inguruan hainbat lehergailu era sinkronizatuan eztandaraziz eman zuen amaitutzat bere su-etena. Estatu-tuko hiruburuaren heren bat argirik gabe geratu zen ekintza horren ondorioz. ETAm-ren ekintzak etengabeak izan ziren hauteskunde kanpainako hurrengo hamaika egunetan. Guztira, 34 ekintza egin zituen.

Horixe zen, hain zuzen ere, Espainiako eta Frantziako agintariak eragotzi nahi zutena. Hauteskunderen aurretik amnistia ematen ez bazuten ETArek adar guztiek su-etena apurtuko zutela jakinik, Frantziaren eta Espainiaren arteko kolaborazioak urrats berriak egin zituen, Ipar Euskal Herrian badaezpadako atxiloteta ugari eginez. Maiatzaren 26ko gauean, hamarnaka euskal errefuxiatuaren zerrenda eskuan, Gendarmeriak eta Polizia Judizialak Lapurdin eta Nafarroa Beherean bizi ziren hogeita hamar errefuxiatu atxilotu zituzten. Maiatzaren 27an, haietako hamar Mediterraneo itsasoko Porquerolles uhartean konfinatu zituzten, Var departamentuan. Honako hauek ziren: Angel Iturbe, Josu Urrutikoetxea, Jose Joaquin Villar Gurrutxaga, Fco. Javier Aia Zulaika, Jose Martin Sagardia, Miguel Makazaga, Joxemari Zapirain, Jesus Zugarramurdi, Jose Angel Otxoantesana eta Jesus Arin Baztarrika. ETAm-ko eta Bereziak taldeko kideetat jotzen zituzten guztiak.

Hauteskunderen biharamunean aske uzteko asmoa zutenez, Frantziako agintariak Porquerolles uharteko Relais de la Poste hotelean konfinatu zituzten hamabi errefuxiatuak, hondartzaren ondoan. Ezin argiago zegoen zein zen deportazio haien benetako helburua: hausturarik gabeko erreformaren egutegia inolako trabarik gabe beteko zela ziurtatzea, hauteskundeak bermatuz eta kanpaina armatuen berrabiatzea oztopatuz. Urte hasieratik, helburu hori bera bilatzen ari zen Espainiako “inteligentzia”, prentsako espekulazioen bidez eta gezurrezko negoziazio kontaktuen inguruko zurrumurruak zabalduz.

Ybarra askatzeko gestioak egiten ziren bitartean, ekainaren 2an Frantziako Poliziak Angel Gurmindok, Jose Ramon Martinez de la Fuente eta Miguel Angel Apalategi atxilotu zituen Hendaian. Lehenengo biak handik egun gutxira askatu zituzten. Miguel Angel Apalategi *Apala*, ordea, Porquerolles uhartean konfinatu zuten eta Espainiako Gobernuak haren estradizioa eskatu zuen ofizialki, Bereziekin lotzen baitzuen.



Errefuxiatuen aldeko eta frantses jatorriko produktuekiko boikota eskatzeko mobilizazioa. 80ko hamarkada.

Berriro Eusi

ak,
EI SKOB

KADIN LIBRE





Atzerriratuen agerpena Durangon.

“Deserriratzeak”. Presoak Europara atzerriratzea amnistia faltsu gisa

1977ko maiatzaren 20an, amnistiaren aldeko hirugarren astea hasi aurretik eta bigarren asteko herri erantzun sendoaren txingarrak itzali nahirik, Espainiako Gobernuak 1870eko arau batean inspiratutako formula bat baliatu zuen presoak kaleratzeko: deserriratzea. Neurri hori, berez, askatasuna murrizten zuen zigor bat zen. Izan ere, espetxetik irten bezain laster, presoak “lurralde nazionaletik” kanporatua izaten zen ezarritako zigorra bete arte.

Talde guztiak neurri horren alde agertu ziren, baita Alianza Popular (AP) alderdi eskuindarra bera ere. Zehazki, Eduardo Manzanedo Gipuzkoako bozeramaileak honakoa esan zuen: *“Amnistia beharrezkoa zen eta Monarkia-ren Gobernuak konkordia eta adiskidetze nazionalerako egindako proposamenak osatzera dator”*. EAJk, berriz, honakoa adierazi zuen deserriratzeari buruz: *“Irtenbide gogorra da, baina beti izango da espetxea baino hobea”*.

Deserriratzeak ibilbide judizial korapilatsua izan zuen. Haren abiapuntua 1870eko indultu legea zen, baina beste bi arau ere hartu zituen erreferentziatzat: 1938ko apirilaren 22an Gerra Zibilaren erdian promulgatutako lege bat eta 1977ko martxoaren 14ko lege dekretua. Zume “legal” horiekin, Justizia eta Armada ministerioek Ministro Kontseilura eraman zuten proposamena, alde aurretik euskal abokatu batzuekin kontrastatu ondoren. Hala ere, deserriratuentzako indultuak uztailaren 28an argitaratu ziren Estatuko Aldizkari Ofizialean, Juan Carlos I.ak sinatutako errege dekretu baten bidez. Hau da, presoak deportatu eta hilabete geroago argitaratu ziren. Azpimarratu beharra dago ordurako haietako gehienak klandestinoki itzuliak zirela Euskal Herrira.

Espainiako Administrazioak Juan Maria Bandres eta Iñaki Esnaola abokatuekin eta Joaquín Aperribai Debako alkate ohiarekin adostu zuen presoak Europako zenbait herrialdetara bidaltzeko neurria. Garai hartan, preso guztiak ETApm-koak ziren, lau izan ezik. Haien izenean, Bandresek bilera izugarri luzea egin zuen Suarezekin. Bilera bukatutakoan, presoekin kontsultak egiteari ekin zion, edozein espetxetan edozein ordutan sartzeko baimena ematen zion dokumentu bat eskuan.

Suarezek baldintza bakarra jarri zuen: aukeratutako preso guzti-guztiek onartu behar zuten deserriratzea; bestela, operazioak ez zuten baliorik izango. ETAm-k eta ETApm-k bilera bat egin zuten Ipar Euskal Herrian, Telesforo Monzonen etxean, proposamena aztertzeko. Peio Ansola milien ordezkariak jarri zuen mahai gainean azkenean nagusitu zen argudioa: erabakia presoek hartu behar zuten.

Deserriratzeak maiatzaren 21ean hasi ziren. Egun horretan, hegazkin batek Madrildik Bruselara eramán zituen lehen presoak: Jokin Gorostidi, Mario Onaindia, Eduardo Uriarte, Xabier Larena eta Jose Mari Dorronsoro. Beraiekin batera, ETaren kontrako borrokarako poliziaburu nagusia joan zen hegazkin berean: Andres Gomez Margarida komisarioa. Zenbait egun geroago, preso gehiago atzerriratu zituzten: Juan Mari Aldalur, Jose Luis Mendizabal, Enrique Pagoaga, Agustin Atxega eta Juan Miguel Goiburu Danimarkara; Jose Mentxakatorre eta Jose Ignacio Egaña Vienara; eta Xabier Izko, Iñaki Mujika Arregi, Jose Antonio Garmendia, Iñaki Sarasketa eta Iñaki Perez Beotegi Oslora. Kondenatu gabeko presoak deserriratzea juridikoki ezinezkoa zenez, hauteskunde orokorretarako egun gutxi falta zirenean gobernuak aske utzi zituen Eva Forest, Emilio Goitia eta Jose Mari Arruabarrena. Presioa gaintetik kentzeko, indultua eman zien kondenatuta ez zeuden eta, beraz, deserriratu ezin zituen presoek, legeak aukera hori jazozen baitzuen.

Danimarkara deserriratutako gehienak Alsgarde herriko landetxe batean bizi izan ziren, eta Juan Miguel Goiburu Kopenhagen. Soledad Intxausti –Pagoagaren bikotekidea eta Yeseriasen egondako preso ohia– Alsgardekoekin bizitzera joan zen. Konfinatuta egon ziren bitartean, mantenurako diru kopuru txiki bat jaso zuten Danimarkako Gobernuaren aldetik. Jatorriz Ibarrakoa zen eta Danimarkan bizi zen euskal mediku batek egin zien Euskal Herriarekiko zubi lana.

Norwegian, bost deserriratuak banandu egin ziren. Iñaki Mujika Arregi Oslotik hurbil jarri zen bizitzen, familiarekin batera. Xabier Izko eta Jose Antonio Garmendia hiriburuan geratu ziren. Iñaki Sarasketa Suediara joan zen familiarekin batera. Eta Iñaki Perez Beotegik Norvegiatik alde egin zuen. Espainiako prentsak esan zuen klandestinoki itzuli zela Hego Euskal Herrira, baina familiak gezurtatu egin zuen. Norvegiako Gobernuak hiru hilabeterako etxebizitza, garraioa eta mantenu gastuak eskaini zizkien.

Hainbat astez, deserriratuek Euskal Herrira itzultzeaz eztabaidatu zuten, askotariko aukerak aztertuz. Aukera horietako bat zen denak batera agertzea hauteskunde kanpainaren erdian, Euskadiko Ezkerraren alde. Ezker abertzalearen barruko zatiketaren eraginez, horretan ez ziren ados jarri, baina aho batez erabaki zuten itzultzeak ezingo zuela areagotu estatuarekiko eta harrera herrialdeekiko enfrentamendua. Azkenean, erabakia adostu zuten.

Bi hilabete geroago, uztailaren 21ean, deserriratuak izan zirenetako hamar jendaurrean agertu ziren Durangon, Telesforo Monzonen aldameanean, Askatasunaren Ibilaldia handik igaro zenean. Bi egun geroago, prentsaren aurreko agerraldia egin zuten Bilbon, eta honakoa adierazi zuten: *“deserriratzea hausteak esan nahi du ez dugula onartu irtenbide hori” eta “oraindik gure herrietan eta gure etxeetan ez bagaude, ez da zerbaiten beldu garelako, baizik eta programa bat dugulako eta programa hori guztiz bete arte ezin garelako etxera joan”*.

Durangon azaldu ziren hamar deserriratuek eta Jon Aldalur itzuli berriak beste agerraldi bat egin zuten ekainean, Perturren desagertuen leheneren urtemugarren karietara Anoetako belodromoan bildutako 15.000 lagunaren aurrean.

Deserriratuek agerraldi gehiago ere egin zituzten eta haien presentzia ohikoa bilakatu zen Euskal Herrian. Abuztuaren 28an, esaterako, beraiek izan ziren protagonista nagusiak Askatasunaren Ibilaldiaren amaiera ekitaldian, Telesforo Monzonekin batera. Geroago jakingo zenez, KASetik koordinatutako operazio batean eta ETaren muga aparatuen laguntzarekin, UCDren gobernuak deserriratutakoak hilabete lehenago itzuli ziren Hego Euskal Herrira, muga klandestinoki zeharkaturik. EIAko, LAIAko eta HASIko militanteen etxeetan gorderik egon ziren zenbait astez.

Horrela, deserriratuek beraien abokatuek Suarezekin sinatutako konpromisoa hautsi zuten eta amnistia eta burujabetza nazionala aldarrikatzen zituen herri mugimenduari batu zitzaizkion. Espainiako eta Frantziako gobernuak esperimentatu zituzten leheneren deportazioen amaiera izan zen. Geroago, 80ko hamarkadaren erdialdean, berriz ekin zieten deportazioei, baina oraingoan Afrikara eta Amerikara.





Amnistiaren aldeko mobilizazioetan erailldako baten omenezko dolua.



Eva Foresten irteera Yeserías kartzelatik, 1977ko Ekainak 1.

Ekaina. Amnistia osoaren aldeko hirugarren astea

Amnistiaren aldeko bigarren aste odoltsua bukatu eta gutxira, Frantziako Gobernuak errefuxiatu gehiago konfinatu zituen Porquerollesen. Espainiako Gobernuak, berriz, preso batzuei indultua eman zien eta beste batzuk Belgikara, Norvegiara, Danimarkara eta Austriara atzerriratu zituen. Neurri horiei esker, Burgosen heriotza zigorra jaso zutenak eta beste hamabi preso inguru kartzelatik irten ziren, baina ez zen amnistiarik egon eta, beraz, espetxeak ez ziren hustu.

Amnistiaren Aldeko Batzordeek paper erabakigarria jokatu zuten otsaileko, martxoko eta maiatzaren hasierako protesta eta mobilizazioetan. Haien salaketek eta proposamenek amnistiaren aldeko herri aldarria bideratu zuten, eta bazirudien helburua apurka-apurka lortzen ari zela. Hala ere, alderdi politiko berriak hauteskundeei begira zeudenez, militante asko Amnistiaren Aldeko Batzordeen jardueratik aldentzen joan ziren. Hauteskunde kanpaina hastear zelarik, amnistiaren aldeko asanbladak egin ziren herriz herri. Gutxienez hiru jarrera azaldu ziren asanblada haietan: borrokarekin jarraitzeko asmorik ez zutenena (EAJ, PCE, ESEI, ESB), ados zeudela esan arren ezer egiteko prest ez zeudenena (ORT, PTE, EMC), eta amnistiaren aldeko borrokarekin guztiz konprometituta jarraitzen zutenena (EHAS, LAIA, EIA, LKI, OIC...).

Aste odoltsuaren ondorioek, deserriratzeek eta hauteskunde kanpainak krisi sakon batera eramán zituzten Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Legeztatu-tako alderdiek zalantzan jarri zuten ordura arteko mobilizazio ereduarekin aurrera jarraitzearen egokitasuna, gero eta deserosoago sentitzen baitziren eredu horretan. Hala ere, maiatzaren bukaeran, gehiengoz onartutako komunikatu bat plazaratu zuen Euskadiko Amnistiaren Aldeko Batzordeak. Amnistiari zegokionez, komunikatuak honela baloratzen zuen gobernuaren jokabidea:

“La amnistía total que hemos exigido aún no se ha realizado y lo conseguido hasta la fecha es un autentico fraude desmovilizador. Aún quedan presos y exiliados. La medida de extrañamiento, disminuye el número de encarcelados pera aumenta el de exiliados. Tanto las cárceles como el exilio son contradictorios con la amnistía, más aún todas las medidas de extrañamiento (...).” Las

leyes represivas siguen en vigor (...). Las fuerzas del orden han surgido dentro del estado fascista con la única misión de mantenerlo y por ello pedimos su disolución. Ninguna de esta tres exigencias mínimas se han dado, luego no existe amnistía. La amnistía bañada por la sangre del pueblo aún no se ha conquistado, es para ello que siguiendo la línea habitual de movilización de estas gestoras se reafirman en la necesidad de proseguir la lucha conscientes por experiencia comprobada que sólo la lucha popular y no las promesas incumplidas del Gobierno harán efectiva la total liberación de todos los presos y exiliados políticos como primer paso de una amnistía total.”

Hortaz, amnistiaren aldeko hirugarren aste baterako deialdia egin zuten. Ekainaren 9an hasiko zen, hauteskondeak baino astebete lehenago. Hirugarren aste horrek aurreko bi asteetan erabilitako leloak berreskuratu zituen (“Amnistia Orokorra” eta “Amnistia ez da negoziatzen, herria ari da lortzen”), baina protestak ahulagoak eta bakanagoak izan ziren. Manifestazioak ez ziren izan aurreko bi asteetakoak bezain jendetsuak eta jende gutxiagok parte hartu zuen itxialdi eta eserialdietan. Hala ere, azpimarratu beharra dago helburu gisa jarri ziren 60.000 sinadurak lortu zirela.

Esan bezala, amnistiaren aldeko hirugarren astean erantzuna motelagoa izan zen eta jende gutxiagok parte hartu zuen mobilizazioetan. Horren zergatiak aztertzeko orduan, hiru faktore hartu behar dira kontuan: ordurako gobernuak preso gehienak kaleratu edo deserriratu zituen, ehunka erbesteratu itzuli ziren eta ekainaren 15eko hauteskondeak oso hurbil zeuden.

Hauteskundeetan abstentzioaren aldeko hautua egitea deliberatu zuen ezker abertzalearen sektoreak (KAS) honako ideia hau zabaltzera bideratu zituen bere ahaleginak: “Amnistiarik gabe, abstentzioa”. Gainerako erakunde politikoek, ordea, hauteskundeetan jarri zuten arreta guztia. Nola edo hala, EAJk, ESEIk, Euskadiko Ezkerrak, PCEk, PSOEek eta beste erakunde batzuek amnistiaren gaia atera zuten beren mitinetan, baina ez zuten inola ere bultzatu amnistiaren aldeko herri borroka.

Alderdi gehienak hauteskunde lehian buru-belarri murgilduta zeuden bitartean, Amnistiaren Aldeko Batzordeek bi ekimen antolatu eta bultzatu zituzten: greba orokorra ekainaren 14rako eta hauteskundeei boikota 15erako. PCEk, PSOEek, EAJk, ELA-STVk, CCOOk, UGTk eta USOk espresuki eskatu zuten greban nahiz amnistiaren aldeko astean egitekoak ziren gainerako ekimenetan parte ez hartzeko.

Ekainaren 15eko hauteskondeak egin zirenean, hogeita bat euskal militante zeuden espetxean, haietako lau Frantziako Estatuan. Espainiako Estatuko presoak honako hauek ziren: Fran Aldanondo, Francisco Javier Larrañaga, Daniel Pasinello, Manuel Blanco Txibite, Luis Murua, Xanti Urzelai, Josean Galparsoro, Javier Esnal, J. M. Wangenebarg, Luis Fernandez, Maria Illarramendi, Pedro Trueba, Encarna Mujika, Eduardo Menendez, Fermin Lorenzo, Jose Goraiun eta Jose Ramón Urigen. Frantziako Estatuko lauak, berriz, Oscar Gonzalez, Angel Apalategi, Hilario Albizu eta Iñaki Gracia ziren. Belgikan, Norvegian, Danimarkan eta Austrian deserriratuta zeudenekin batera, espetxean jarraitzen zuten preso horiek guztiek agerian uzten zituzten indultuen aplikazioaren mugak. Halaber, esan genezake horrek argi eta garbi erakusten zuela zein zen trantsizioa hartzen ari zen norabidea. Diktadurako kriminalak zigortzea eta frankismoaren errepresio aparatua depuratzea ez zegoen trantsizioaren agendan, baina –askoz gutxiago ziren arren– oraindik euskal preso politikoak gelditzen ziren.





Amnistiaren aldeko manifestazioa eta protesta Bilbon, 1977.



CONDICIONES
CONTRA EL
PESQUID LIBRE
POR LA
UNIDAD
OBRERA

Euskadiko Ezkerraren hauteskunde mitina Arriagan, 1977.

Madrilgo Gorteetarako “lehen” hauteskundeak

Berrogei urte baino gehiago igaroak ziren Espainiako Estatuako herritarrek hauteskunde batzuetan botoa emateko aukera izan zuten azken alditik. Hauteskunde haiek 1936ko otsailean egin ziren, bi itzuliko sistemaren bidez, eta Fronte Popularrak irabazi zituen, ustekabean. Errepublika ezarri zenetik, estatuko eliteek sekula ez zuten baztertu estatu kolpe bat emateko aukera, bere garaian Primo de Riveraren diktadura ezartzeko egin zuten bezala. 1936an, ezkerraren ustekabeko garaipenak aztoraturik, beren estrategia kolpista bururaino eramatea erabaki zuten.

Nazioartean krisia zen nagusi eta, Errusian tsarren inperioa erorarazi zuen iraultzaren birusa kontinente osora hedatzeko mehatxuaren aurrean, Europako eskuina izaera gero eta faxistagoa hartzen ari zen. Testuinguru horretan, Espainiako sektore atzerakoiek armadaren bidezko altxamendu armatuaren aldeko hautua egin zuten. Potentzia nagusien pasibotasuna lagun, eta haietako batzuen konplizitate nabariarekin, Errepublika suntsitu zuten gerra zibil odoltsu batean. 1936ko uztailaz geroztik, denetariko izugarrikeriak egin zituzten nonahi, baita gerra frontierik izan ez zen lekuetan ere (Nafarroan, adibidez). Gerra bukatutakoan, berriz, irabazleek masakre ikaragarria egin zuten demokraten kontra.

Bando nazional-katolikoko espainiar faxisten garaipenak lau hamarkada iraungo zuen diktadura bat ezartzea ahalbidetu zion Francori. Mussoliniren Italiak eta Hitlerren Alemaniak lagunduta hasieran, Gerra Hotzaren testuinguruan Estatu Batuek eman zioten babesari esker iraun ahal izan zuen hain denbora luzez.

1976ko udan gobernuaren agenda erreformista ezagutarazi zenetik, mundu guztiak zekien hauteskunde orokorrak egingo zirela, baina urtea bukatu zenean erabateko ziurgabetasuna zegoen. Azkenean, 1977ko martxoaren 18an, hauteskunde buruzko errege lege dekretu bat argitaratu zuen gobernuak, hauteskunde prozesua bera eta Gorte frankistak ordezkatuko zituzten 350 diputatuak eta 207 senatariak hautatzeko sistema arautuz. Hala ere, apirilera arte ez zuen data zehaztu: hauteskundeak ekainaren 15ean egingo ziren. Alderdi guztiak legeztatuta egon gabe ere, hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 8an bukatuko zen. Hauteskunde kanpaina maiatzaren 24an hasiko zen eta 21 egun iraungo zuen.

Abenduan eta urtarrilean, KASeko erakundeen eta estatu mailako zenbait alderdi ezkertiarren arteko bilerak egin ziren eta guztien elkargune izan nahi zuen mahai plural bat eratu zen. Ordura arte Euskal Herrian saiatu ziren baina porrot egin zuten oposizio plataformak izan ziren ekimen horren jatorria, baina oraingoan helburu nagusia ez zen diktadurari aurre egitea, baizik eta akordio programatiko bat adostea, mobilizazioa sustatzeko asmoz eta, ahal izanez gero, hauteskundeei erantzun bateratua emateko ere. Otsailaren 28an, ekimen plural horrek Euskal Erakunde Herritarra izena hartu zuen eta bertan parte hartzen zuten eragile guztiek hamaika puntuko dokumentu-programa bat izenpetu zuten. Besteak beste, programa bateratuak honako puntu hauek jasotzen zituen: KAS Alternatiban oinarritutako haustura demokratikoa lortzea, Hego Euskal Herrirako autonomia estatutu berri bat egitea eta, azkenik, estatutu hori aplikatuko zuen eta euskal asanblada konstituziogile baterako hauteskundeak antolatuko zituen behin-behineko gobernu bat eratzea.

Honako hauek ziren programa bateratuaren sinatzaileak: KAS (EIA, LAIA, EHAS), Eusko Sozialistak, MCE, PTE, ORT eta PCU. Indar politiko horiek “goi bilera” batera deitu zuten Euskal Herriko oposizio guztia. Martxoaren 4an egin zen, Bergarako udaletxean. Euskal Herriko hogeita bat talde politikoren ordezkariak elkartu ziren bilera hartan (hau da, Euskal Herriko oposizioa osatzen zuten indar politiko ia guztiak). LKI, OIC, EK eta LC alderdiek ez zuten begi txarrez ikusi Euskal Erakunde Herritarra eratzea eta bertan parte hartzea. EKA (Alderdi Karlista) eta ESEI, beren hauteskunde estrategia lehenetsiz, programarekin ados azaldu ziren baina ez zuten parte hartuko erakundean. EAJk, PSOEk, PCEk eta ESBk ez zuten programa onartu eta erakundean parte hartzeari uko egin zioten, hauteskundeetan burubelari murgilduta baitzeuden jadanik.

Euskal Erakunde Herritarraren lehen mobilizazio bateratuak Gasteizko Aberri Eguna eta Maiatzaren Lehena izan ziren. Arrakasta handia izan zuten biek, gobernu eta polizia indarrak bata zein bestea eragozten eta erreprimitzen saiatu ziren arren. Hala ere, hauteskundeei Euskal Erakunde Herritarra osatzen zuten indar politikoek adostutako irizpideen arabera ekiteko unea iritsi zenean, KASeko hiru alderdiek (EHAS, EIA, LAIA) bi baldintza jarri zituzten hauteskundeetan parte hartzeko: amnistia osoa eta erabateko askatasun politikoak. Bi baldintza horiek bete ezean, ez zuten parte hartuko.

Hauteskunde prozesua zalantza sakonez, proiektu handiz eta hitz arranditsuz ziprztinduta abiatu zen. Hautagaitzak aurkezteko epea amnistiaren aldeko bigarren astea hasiko zen egunean bukatzen zen. Egun horretan, Euskadiko Ezkerrak (oraindik legeztatuta ez zeuden ezker abertzaleko alderdiek eta bereziki EIAk eta EMK-k sustatutako koalizioa) bere hautagaitzak formalizatu zituen Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, Euskal Erakunde Herritarraren proiektua eta programa bere eginez. Nafarroan, aldiz, UNAI hauteskunde koalizioa sortu zuen (Union Navarra de Izquierdas-Ezkerreko Nafar Batasuna), ezkerreko beste indar independente batzuekin batera.

Euskadiko Ezkerraz gain, honako hauek izan ziren hautagaitzak aurkeztu zituzten indar politiko legeztatuak: EAJ, EAE-ANV, PSOE, PSP, PCE, eta Espainiako eskuin osoa (UCD Zentro Demokratikoaren Batasuna, EKD Euskal Kristau Demokrazia, AP Aliantza Popularra, GU Gipuzkoa Batua –APren filiala Gipuzkoan–, AFN Nafar Aliantza Forala, Agrupacion Popular Navarra, DIV Euskal Demokrata Independentek...). Legeztatuta ez zeuden erakunde ezkertiarrek, ordea, hautesle elkarteak sortu behar izan zituzten, hala nola FUT Langileen Batasunerako Frontea (OICk eta LKIk), AET Langileen Hautesle Elkartea (ORTk), FDI Ezkerreko Fronte Demokratikoa (PTEk), Montejurra Hautesle Elkartea (EKAk)...

Hauteskunde kanpaina hasi baino apur bat lehenago, amnistiaren aldeko bigarren asteo heriotzek eta Xibertako elkarrizketen porrotak amaiera eman zioten parte hartzearen inguruko eztabaidari. EAJk, ESEIk, ESBk eta EAE-ANVk beren hautagaitzak mantendu zituzten. EIAk –KASen adostutako irizpideen kontra eta koordinakundeko kidea zen arren– bere hautagaiak mantetzea erabaki zuen, Euskadiko Ezkerran. EHASEk eta LAIAk, ordea, hautagaitzak erretiratu eta abstentzio aktiboa sustatu zuten.

Ekainaren 15eko emaitzek ezusteko batzuk ekarri zituzten. Araban eta Nafarroan, alderirik bozkatuena UCD izan zen (gobernuaren alderdia, alegia) eta PSOE bigarren gelditu zen. Gipuzkoan eta Bizkaian, berriz, EAJ izan zen lehen indarra eta PSOE bigarrena.

Emaitzak UCDrentzat eta PSOErentzat soilik izan ziren onak, hurrenkera horretan nagusitu baitziren estatu osoan. Diputatu eta senatari kopururik handiena Adolfo Suarezek lortu zuenez, beraren gain geratu zen gobernu berria osatzeko ardura.

EAJk 313.741 boto jaso zituen Hego Euskal Herrian, eta PSOEk 322.848 boto. Abstentzioa KASEk espero zuen baino txikiagoa izan zen: 21 urtetik gorako hautesleen %23 ez ziren joan bozkatzera (376.000 pertsona).

Hego Euskal Herriko 26 diputatuak honela banatuta geratu ziren: EAJk 9, PSOEk 9, UCDk 1, APk 1 eta EEk 1. Eta 16 senatarien banaketa honakoa izan zen: Fronte Autonomikoak 9, UCDk 6 eta EEk 1. Euskadiko Ezkerrak bi ordezkari lortu zituen Gipuzkoan: Francisco Letamendia Kongresurako eta Juan Mari Bandres Senaturako. Guztira 64.126 boto jaso zituen, baina UNAI koalizioak Nafarroan jasotakoak gehitu behar zaizkio kopuru horri (ia 25.000).

Ezkerreko gainerako bozkek PCEn eta PSPren artean banatu ziren (52.337 eta 25.000 hurrenez hurren), baina biak ala biak ordezkartzarrik gabe geratu ziren. Alderdi iraultzaileek aurkeztutako koalizioen emaitzak apal samarrak izan ziren: ORTk sustatutako Langileen Hautesle Elkarteak (AET) 16.000 bozka jaso zituen, PTEren Ezkerreko Fronte Demokratikoak (FDI) 11.000, LCR-OICren Langileen Batasunerako Fronteak (FUT) 10.000 baino apur bat gehiago, eta EKAREN Montejurra Hautesle Elkarteak 9.000 baino gutxiago.

Gainerako alderdi abertzaleei dagokienez, ESBren eta EAE-ANVren emaitzak oso txarrak izan ziren. Espero zuten baino askoz ere boto gutxiago jaso zituzten: ESBk 36.000 eta EAE-ANVk 6.500 inguru.

KASEko erakundeak hauteskunde haien kontra agertu ziren hasiera-hasieratik, eta emaitzek frankismoaren garaian Euskal Herriko bizitza politikoan eragin handia izan zuten alderdi politiko batzuen gainbehera ekarri zuten. Besteak beste, hala gertatu zitzaizen ORTri eta EKARI (karlistek Nafarroako botoen %3 soilik eskuratu zituzten). PCE alderdi ia marjinala bilakatu zen Hego Euskal Herrian eta, indar abertzaleen eremuan, ESBren nahiz EAE-ANVren emaitza txarrak errealitatearen adierazle gordinak izan ziren bi alderdi horientzat.

Hauteskundeak egin eta lau egun geroago, Hego Euskal Herrian hautatuak izan ziren 40 diputatu eta senatarietako 28 Gernikan bildu ziren eta Madrilen autonomia defendatzeko konpromisoa hartu zuten. 1947an Ipar Euskal Herrirako autonomia estatutu bat eskatu zuen Jean Etxeberri-Aintxart Pirinio Atlantikoetako kontseilari nagusiak ere parte hartu zuen bilera hartan. Euskadiko Ezkerrako bi hautetsiak eta UCDk Nafarroan eta Araban lortutakoak, ordea, ez ziren azaldu.

Hausnarketarako denbora apur bat hartu ondoren, ETaren adar bakoitzak hauteskunderen inguruko bere iritzia ezagutarazi zuen eta, espero izatekoa zenez, oso balorazio ezberdinak egin zituzten. Abuztuaren 27an, ETAm-rekin bat egin aurreko azken agiria plazaratu zuten Bereziek, hauteskunderen ostean sortutako egoera berria honela aztertuz:

"Mucha gente esperaba que las elecciones legislativas iban a cambiarlo todo de la noche a la mañana, que íbamos a acostarnos en medio de la dictadura militar de tan larga vida y ya se han desengañado. Pero no sólo ellos, sino también aquellos cuya esperanza era menos apremiante y más realista. Y es que, a dos meses de las elecciones, estamos como si nada hubiera pasado, puesto que nada ha cambiado, y especialmente en Euskadi. Salieron un grupo de presos extrañados, y clandestinos continúan. Incluso más, uno de ellos, Larena, ha vuelto a ser encarcelado. Por otra parte, no parece haber ningún cuidado de que los funcionarios de prisiones se aburran, puesto que nuevos presos, en número mayor que los extrañados, han ingresado en las cárceles. Todos ellos, antes de pasar a prisión han sido torturados, como siempre. ¿Los grupos incontrolados? Como siempre. ¿Los cuerpos represivos? Los de siempre y para los mismos. ¿Reconocimiento del hecho nacional vasco? Ni soñar. Ahora, las Vascongadas se las puede llamar Euskadi, pero es la misma "región" de siempre, con las mismas tres provincias de siempre".

ETApm-ren iritiz, hauteskunderen eta haien emaitzek berretsi egin zuten egokia izan zela KASeko gainerako erakundeekiko loturak hausteko politika, eta berehala gauzatu zuen lehendik hartutako erabakia. Hauteskunderen egin eta gutxira, ETApm-k adierazi zuen bere jardunbide politiko eta militarra nabarmen aldatuko zela handik aurrera: *"Barka ezinezko politika miopia litzateke, hala eta guztiz ere, Estatuaren egungo antolaketaren izaerari, hauteskunderen aldakuntza kualitatibo bat erakarri diotela ahaztea. Momentu honetatik, orain arte zuenaren legezkotasun zeharo desberdina du agintaritzak; lehen indar soilean finkatzen baldin baten, orain legezkotasuna herriaren aukeratik dator".* ETApm-ren (eta EIAren) arabera, hurrengo hilabeteetako zeregin nagusia PSOErekin eta EAJrekin batera Hego Euskal Herrirako autonomia estatutu bat lortzea izan behar zen, masa borroka, borroka instituzionala eta borroka armatua uztartuz. Ikuspegi horretatik, presoek kaleratze eta erbesteratuen itzultze gisa ulertutako amnistia aldarrikatzen zuten mobilizazioak desagertzen joan behar ziren, horren ordez estatutuaren aldarrikapenean oinarritutako mugimendu sozial bat artikulatzen hasteko.

ETAm-k ez zuen egin bere estrategia berritzeko planteamendurik, baina posizioak definitzen joan zen borroka armatuaren erabilera politikoa publikoki gaitzesten hasiak ziren indar parlamentario berrien aurrean. ETAm-ren ustez, KAS Alternatibako puntuak lortzeak benetako agertoki demokratiko baterako ateak irekiko zizkion Hego Euskal Herriari, eta hortik aurrera ez zuen beharrezkotzat joko bere jarduera armatua. Beraz, ETAm-rentzat borroka armatua jadanik ez zen bere helburu politikoak erdiesteko oinarria, baizik eta Euskal Herriari bere eskubideak erabiltzea ahalbidetuko zion estadio politiko batera iristeko tresna. Aurrerago ikusiko dugun bezala, 1978ko urtarrilean ETAm-k gai horiei buruzko adierazpen esplizituago bat egin zuen, KAS Alternatiba eguneratzearekin batera.



ASKATASUN
MARCHA
MARTIÑOKE
COLUMNA 3 DE MARZO



Atzerriratuak Askatasun ibilaldiaren bukaeran Arazurin, 1977ko abuztuak 28.

Uztaila eta abuztua. Askatasunaren Ibilaldia

Amnistia ez zen sekula iritsi, ezta ekainaren 15eko hauteskundeetan era adostu batean parte hartzeko aukera ireki zezaketen berme demokratikoak ere. Zentzuzkoa da pentsatzea horrelako urrats batek su-eten agertoki bat edo jarduera armatuaren bukaera bera ekar zezakeela. Garai hartan hainbat taldek erabiltzen zuten borroka armatua, baina kontuan izan behar da marko demokratiko batera iristeko borroka tresna gisa kokatzen zela une zehatz hartan.

Bestelako bide bat ireki zezakeen demokratizazio borondateetik oso urrun, errealitatea hau zen: deportatuak espresuki debekatuta zeukaten Hego Euskal Herrira itzultzea, Frantziako eta Espainiako kartzeletan euskal preso politikoak zeuden oraindik, eta zalantza handiak zeuden exiliora joan behar izan zuten pertsonen etorkizunaz eta itzuleraz.

Juan Maria Bandres eta Iñaki Esnaola abokatuak bitartekari lana egin zuten Ipar Euskal Herriko komunitatearen eta Gobernazio Ministerioaren artean, tirabira amaigabe batean errefuxiatu zerrendak trukatu. Azkenean, Espainiako agintariek beti kentzen zituzten izen batzuk errefuxiatuen asanblada jendetsuetan osatzen ziren zerrendetatik.

Hauteskundeak egin eta gutxira, kolektibo herrikoi batzuk “Amnistia” lelo nagusizat hartuta Hego Euskal Herri osoa zeharkatuko zuen ibilaldi handi bat antolatzen hasi ziren. Telesforo Monzonek prentsari adierazi zion ordu-ra arte inoiz ez zela tamaina horretako proiekturik gauzatu Euskal Herrian. 1931n, Eli Gallastegik antzeko ekimen bat antolatu nahi izan zuen, baina estatu kolpe faxistak ezinezko bihurtu zuen.

Gallastegiren asmoa mitinez, folklore jaialdiz eta kultur ekitaldiz jositako ibilaldi handi bat antolatzea zen, Euskal Herritik Genevaraino, Nazioen Elkartearen egoitza nagusia hiri horretan baitzegoen. Askatasunaren Ibilaldiaren antolatzaileek Eli Gallastegiren ideia hura berreskuratu zuten, mundu zabaleko esperientzia gogoangarri batzuk ere aintzat hartuz, hala nola Gandhik sustatutako Gatzaren Ibilaldia edo Martin Luther Kingek Washingtonen antolatu zuen martxa. Espazioan nahiz denboran hurbilago, 1976an Katalunian egin zen askatasunaren aldeko ibilaldi arrakastatsua ere hartu zuten eredutzat.

Askatasunaren Ibilaldia ekainaren 27an aurkeztu zuten, Bilbon. 48 egunez, Euskal Herri osoa zeharkatuko zuen, era sinboliko batean irudikatzeko Euskal Herria askatasunerantz ibiltzen hasia zela.

Euskadiko Askatasunaren Ibilaldia lau zutabez osatuta egongo zen. Gernikatik, Zarauztik, Aguraindik eta Lodosatik abiatuta, zutabe bakoitzak 15 kilometro egingo zituen egunean, Euskal Herriko geografia osoan barrena. Abuztuaren 28an lau zutabeak Iruñean elkartuko ziren.

Jorge Oteizak eta Nestor Basterretxeak egindako logotipo batekin eta Telesforo Monzonek idatzitako manifestu batekin, antolatzaileek ibilaldian parte hartzeko deia egin zieten abertzale guztiei eta Euskal Herriarentzako autonomia zabal bat nahi zuen orori. Ibilaldiaren helburuak erreibindikazio programa argi eta labur batean jasota geratu ziren:

1. **AMNISTIA OROKORRA.** Gure herriak eskatzen duen egiazko amnistia, demokrazia arora baino lehen nahitaezko pausua.
2. **GURE NAZIO-NORTASUNAREN EZAGUTZA.** Horra nola: euskararen ofizialkidetasuna, Euskal Unibertsitatea, gure nazio-sinboloak haintzat hartzea.
3. **AUTONOMI ESTATUA.** Autodeterminazio eskubiderako lehen pausua.
4. **ZIGOR-SAILAREN DEUSEZTATZEA.** Azken odol isurketek aski garbi erakutsi dute zein beharrezko den euskaldunok geure hertzainak izan ditzagun, benetan herritar eta demokratikoak: herriaren zerbitzutan, eta ez Estatu edo maila menderatzaile baten morroi”.

Oso ugariak izan ziren deialdiarekin bat egin zuten alderdi politikoak eta mota guztietako elkarteak. Legeztatuak izan ondoren gehiengo parlamentarioa eskuratu berria zuten PSOE eta EAJ alderdiek, ordea, boikot aktiboa egin zioten. Honela argudiatu zuten Askatasunaren Ibilaldiaren kontrako jarrera: aldarrikapen guztiak (kasu honetan, amnistia) eta Euskal Herriaren burujabetzaren onarpena Madrilgo Gorteetan bideratu beharreko kontuak ziren. CCOO, USO eta UGT sindikatuek ere amaiera ekitaldian parte hartzeari uko egin zioten.

Mobilizazio ugari egin ziren hilabete haietan, baina, inolako zalantzarik gabe, Askatasunaren Ibilaldia Euskal Herrian inoiz egin den mobilizazio kolektiborik handiena izan zen. 50 egun iraun zuen eta, batez beste, zutabe bakoitzak 400 kilometro egin zituen. Askotariko esperientzien bozgorailua izan zen, baina aldarrikapen guztiak bi sinboloren inguruan uztartu ziren: ikurrina (Hego Euskal Herrian legezatu berria) eta “askatasuna” beste edozein leloren gainetik.

Istiluak, kontrolak eta polizia indarrekiko tentsio uneak oso ugariak izan ziren, baina ibilaldian parte hartzen ari zirenekiko elkartasuna zailtasun guztien gainetik gailendu zen herri eta auzoetan. Ordura arte zeinek bere arloan protagonismo nabaria izan zuten mota guztietako kolektiboak eta tokian tokiko taldeak aktibatu ziren ibilaldiari harrera egiteko.

Gobernuak Europako zenbait herrialdetara “deserriratutako” preso ohiek ustekabeko agerraldiak egin zituzten ibilaldiko etapa batzuetan eta, batez ere, amaiera ekitaldian. Bestetik, gero ikusiko dugun bezala, etapa bukaera asko Miguel Angel Apalategiren estradizioaren kontrako manifestazio jendetsuak bilakatu ziren.

Askatasunaren Ibilaldiko lau zutabeek uztailearen 10ean ekin zioten bideari, HASI, LAIA, EIA, ESB, EAE-ANV, LKI, OIC, EMK, ORT, PTE, PCE eta EKA alderdi politikoen eta IAM, EGAM eta UJM gazte erakundeen sostenguekin.

Zarauztik “Erribera” zutabea abiatu zen, 600 pertsonarekin; Gernikatik “Txikia” zutabea, 1.500 pertsonaz osatuta; Aguraindik “Matalaz-Apala-Txirrita” zutabea, 20 pertsonarekin; eta Lodosatik “Martxoak 3” zutabea, hiru pertsonarekin hasieran. Aukeratutako izenak herri eta auzoetatik igarotzean ibilaldiak jendeari eragin nahi zion zirraren adierazle argiak ziren.

Ibilaldiko lehen astean, Arabako eta Nafarroako zutabeetako ibiltari kopurua txiki samarra izan zen. Bizkaiko eta Gipuzkoako zutabeek, ordea, jendetza handia bildu zuten ibilbide osoan eta manifestazio jendetsuak bilakatzen ziren herri batean sartzen ziren bakoitzean.

Lau zutabeek etapaz etapa zeharkatu zuten Euskal Herri osoa: Donostia, Bermeo, Altsasu, Allo...; Orereta/Hondarribia-Lohizune...; Bakio-Mungia-Plentzia-Algorta...; Zegama-Ordizia-Tolosa...; Lizarra-Antzin-Kanpezu...

Hilaren 13an, prentsak Pirinio Atlantikoetako prefetaren agindu bat argiratu zuen: Askatasunaren Ibilaldiak debekatuta zeukan Ipar Euskal Herrian sartzea. Biharamunean, hiru mila lagun Hondarribitik abiatu ziren “Erribera” zutabearen, baina Poliziak Santiago zubian geldiarazi zituen. Traba horren aurrean, talde txikiak osatu eta ezkutuan zeharkatu zuten muga. Gero, 400 ibiltari inguru Sokoan elkartu ziren eta aurrera jarraitu zuten.

Bigarren astean ere, istiluak izan ziren Ipar Euskal Herriko zutabearen. Araban eta Bizkaian, berriz, herriak lehen harrera jendetsuak egin zizkion ibilaldiari, Gasteizen eta Bilbon.

Orduan, Belgikatik bosgarren zutabe bat abiatu zelako albistea zabaldu zen. Hala zen, eta uztailaren 21ean, Askatasunaren Ibilaldia Durangotik igaro zenean, deserriratuak izan zirenetako hamar jendaurrean agertu ziren, Telesforo Monzon aldamenen zutela. Jokin Gorostidi, Unai Dorronsoro, Xabier Larena, Xabier Izko de la Iglesia, Jose Agustin Atxega, Jose Ignacio Mujika Arregi, Teo Uriarte, Mario Onaindia, Jose Ignacio Egaña eta Jose Mentxakatorre deserriratuak Bruselatik, Vienatik, Oslotik eta Kopengagetik alde egin zuten Euskal Herrira itzultzeko. Hori zen bosgarren zutabea. Bruselatik abiatuta, etxera bueltan ekarri zituen atzerriratuak, Euskal Herriarentzat eta beziki preso politiko guztientzat etorkizun aske bat aldarrikatzeko.

Hilaren 25ean, “Matalaz-Apala-Txirrita” zutabea Ipar Euskal Herrian sartu zen. Ainhoan “Erribera” zutabearekin elkartu, eta hainbat egunez batera ibili ziren biak. Bost egun geroago, berriz banandu ziren. Garazitik, “Erribera” zutabea Nafarroara itzuli zen (Luzaide-Auritz-Agoitz-Irunberri...) eta “Matalaz-Apala-Txirrita” zutabeak Zuberoa aldera jo zuen (Larزابale-Donapaleu-Maule-Atharratze...). Beste bi zutabeak Gipuzkoan eta Bizkaian barrena zebiltzan, bata kostaldetik (Lekeitio-Ondarroa-Zumaia-Elgoibar...) eta bestea barrualdetik (Urduña-Laudio-Ugao-Orozko...).

Abuztuaren 6an, milaka lagunez osatutako “Martxoak 3” zutabearen buruan, Telesforo Monzon bere jaioterrira itzuli zen, Bergarara. Hilaren 9an, berriz, zutabe hori Apalaren jaioterrira iritsi zen, Ataunera. Ordurako, Apalak hamabi egun zeraman gose greban, bere estradizioa eragozteko. Bitartean, “Txikia” zutabea berriro sartu zen Araban (Bizkaitik) eta, hegoalderantz bidean, Trebiñu zeharkatu zuen. “Erribera” zutabea, Nafarroa iparraldetik hegoalderantz zeharkatuz, Erribera aldera abiatu zen (Zangoza-Kaseda-Zarrakaztelu-Kaparroso...).

Abuztuaren 12an, “Matalaz-Apala-Txirrita” zutabeak Ipar Euskal Herria utzi zuen eta, Orhi mendiaren magaletik, Nafarroako iparraldera itzuli zen, Uztarrotzera. Hilaren 17an, Hernanitik, Oiartzundik eta Irundik igaro ostean, “Martxoak 3” zutabea ere Nafarroako iparraldean sartu zen, Beratik. Azkenik, zenbait egunez Arabako Errioxan ibili ondoren, “Txikia” zutabea hego-mendebaldetik sartu zen Nafarroan (Vianatik). Beste bi zutabeak lehenagotik zebiltzan Nafarroan, bata Erronkarin barrena eta bestea Tutera inguruan. Horrenbestez, lau zutabeak Nafarroan zeuden jadanik, Iruñean elkartzeko prest.

Hortik aurrera, lau zutabeak Iruñera gerturatzen hasi ziren: “Matalaz-Apala-Txirrita” mendebaldetik (Nabaskoze, Gorza, Jaurrieta, Mezkiritz, Zubi-ri, Uharte, Aratzuri), “Martxoak 3” ipar-ekialdetik (Doneztebe, Almandoz, Lantz, Larraintzar, Berriozar, Aratzuri), “Erribera” hego-ekialdetik (Castejon, Martzilla, Erriberri, Tafalla, Noain, Aratzuri) eta “Txikia” Ebrotik go-rantz (Los Arcos, Lizarra, Oteitza, Zirauki, Gares, Zizur Nagusia, Aratzuri). Zutabe guztiak Aratzuriko landetan elkartu ziren.

Nafarroako gobernadore zibilak lau zutabeen ibilbidea Iruñean amaitzea debekatu zuenez, Askatasunaren Ibilaldiak Aratzuriko landetan egin zuen amaiera ekitaldia, Iruñetik sei kilometrora. Ez aurreko egunetik Iruñerako bide guztiak ixten zituzten kontrolek ez eguraldi txarrak ez zuten eragotzi 100.000 pertsona baino gehiago biltzea amaiera ekitaldian.

Lau zutabeetako hiru goizeko hamar eta erdietan elkartu ziren, eta laugarrena hamaiketan batu zitzairen. Horrela, zutabe guztiek ibilaldi erraldoi bat osatu zuten. Lehen lerroan ikurrina eta 48 eguneko ibilaldian parte hartu zuten zutabeen pankartak zihoazen. Abiatu bezain laster, jendea “Independentzia” eta “ETA, herria zurekin” oihukatzen hasi zen, ehunka ikurrina eta amnistia osoaren nahiz autonomia estatutuaren aldeko pankartak erakusten zituen bitartean.

Jose Antonio Garmendia Tupa eta Jose Luis Mendizabal Benito izan ezik, gainerako deserriratu guztiak amaiera ekitaldian izan ziren. Lehena Norvegiako ospitale batean zegoen, eta bigarrenak ezin izan zuen muga zeharkatu eta Poliziak 1973an tiroka eraildako Eustakio anaiaren izena zeraman “Txikia” zutabeen parte hartu. Beste hamabost deserriratuak Telesforo Monzonen aldamenean egon ziren denbora guztian eta Aratzuriko landetan bildutako jendetzari hitz egin zioten, amnistia osoaren eta askatasuna-

ren beharra nabarmenduz eta autonomia estatutua aldarrikatuz. Ekitaldian ez zen inolako istilurik izan, baina bukatutakoan Guardia Zibila oinez zein zaldiz oldartu zen Aratzuriko landetatik alde egiten ari zirenen kontra. Hala ere, horrek ez zuen lausotu deialdiaren arrakasta. Antolatzaileek adierazi zutenez, Askatasunaren Ibilaldia *“Euskadiren historia osoan bake garaian egindako giza kontzentrazioerik handiena”* izan zen.



Jendarmeak, Apalaren epaiketa burutzen zen artean, Justizia Jauregiaren aurrean Aix en Provence-n.



Miguel Angel Apalategi Marsellako espetxetik irteten.

Abuztua. Estradizio epaiketa Aix-en-Provencen. Apala Askatu

Askatasunaren Ibilaldiaz gain, 1977ko udan beste gertaera garrantzitsu batek bereganatu zuen gizartearen nahiz komunikabideen arreta: Aix-en-Provenceko auzitegian Miguel Angel Apalategi Aierbe *Apalaren* kontra egitekoea zen estradizio epaiketa. Espainiaren eta Frantziaren arteko itunaren arabera, bi irtenbide baino ez zeuden borroka juridiko hartan: auzitegiak estradizioaren aldeko epaia ematen bazuen, Frantziako Gobernuak Espainiako agintarien esku utzi ahal zuen Apala; epaia estradizioaren kontrakoa bazen, aldiz, aske utzi behar zuen.

Egunero-egunero, Apalaren aldeko manifestazioak egiten ziren, haren askatasuna exijituz (“Apala askatu!”) eta Frantziako Gobernuari ez estraditatzeko eskatuz (“Ez, ez, ez, estradiziorik ez!”). Era berean, manifestazio haiek munduari gogorarazten zioten amnistia ez zela ez osoa ez orokorra izan. Apalaren estradizioak aurrez aurre jarri zituen Euskal Herria eta Frantziako Estatuak, eta gure kaleak borroka horren lekuko izan ziren.

Ekainaren 2an, Frantziako Poliziak Miguel Angel Apalategiataundarra atxilotu zuen Ipar Euskal Herrian, eta Espainiako Gobernuak berehala eskatu zuen haren estradizioa. Epaiketa noiz egingo zen erabaki bitartean, Frantziako Gobernuak Porquerolles uhartean konfinatu zuen, lehenagotik bertan deportatuta zeuden hamabi errefuxiatuekin.

Ekainaren 17an, Porquerollesen konfinatuta zeuden errefuxiatu guztiak aske geratu ziren, Miguel Angel Apalategi izan ezik. Izan ere, Espainiako Gobernuak bi delitu leporatzen zizkion: Javier Ybarraren bahiketa (maiatzaren 20tik zegoen bahituta) eta 1974an Beasainen guardia zibil baten aurka egindako atentatua. Bitartean, Ybarrak bahituta jarraitzen zuen eta egoera korapilatzen ari zen. Lehenik, familiak ultimatum bat jaso zuen: ekainaren 15era arteko epea zeukan 1.000 milioi pezetako erreskatea ordaintzeko. Hurrena, epea ekainaren 18ra arte luzatu zen. Azkenik, ekainaren 20an (bahitu eta hilabete geroago), Bereziak-ETApm-ren izenean mintzo zen komunikatzaile anonimo batek Herri Irratiari jakinarazi zion Ybarra hilaren 18an exekutatu zutela. Gorpua ekainaren 22an agertu zen.

Javier Ybarra Berge erregimen frankistari nahiz frankismoaren osteko monarkiari lotutako oligarka familia batekoa zen, Negurikoa. 1936an gogoz jardun zuen estatu kolpe faxistaren alde eta, gerra bukatutakoan, irabazleek hainbat kargurekin saritu zuten. Besteak beste, Bilboko alkate, Bizkaiko Foru Aldundiko lehendakari eta Gorte frankistetako diputatua izan zen. Bahitu zutenean, Babcock Wilcox enpresako administrazio kontseiluko buru, *El Correo Español* egunkariko presidente eta Iberdrolako nahiz Banco de Vizcayako kontseilaria zen. Gainera, finantza interesak zituen beste berrogeita hamar enpresatan.

Bahiketaren bukaera tragikoaren ostean, pagaburu bat behar zen, eta Apalak baldintza guztiak betetzen zituen, gobernuak Bereziak-ETApm erakundearekin lotzen baitzuen.

Ekainean, amnistiaren aldeko hirugarren astean, Amnistiaren Aldeko Batzordeek Apalaren estradizioaren kontrako hirurogei mila sinadura lortu zituzten eta Frantziako kontsulari eman zizkioten, Donostian.

Hala ere, Apalaren etorkizunaz biziki kezkatuak, Goierriko batzordeek Gipuzkoako Amnistiaren Aldeko Batzordeen herrialde batzarrera eraman zuten ataundarraren kasua. Uztailaren 2an, Gipuzkoako 60 herritako Amnistiaren Aldeko Batzordeak bildu ziren eta aho batez erabaki zuten Apalaren alde eta haren estradizioaren kontra kalera ateratzeko deialdi orokorra egitea.

Uztailaren 3an, Frantziako Tourreko laugarren etapak Gasteiz eta Seignosse le Penon arteko ibilbidea egin behar zuen egunean, Apalaren eta amnistiaren aldeko manifestazio batek lasterketa eten zuen Ordizia parean. Horrelaxe hasi ziren asanbladak, itxialdiak eta mobilizazioak. Hilaren bostean, hiru mila lagun kalera atera ziren Oretetan; seian, Frantziako kontsuletxearen aurreko lehen kontzentrazioa egin zen, Donostian; zazpian, Apalaren kasuak oihartzuna izan zuen Sanferminetan; zortzian, mobilizazioak Hernanira, Eibarrera, Bergarara eta Antzuolara hedatu ziren; bederatzian, Ataungo Udalak aho batez erabaki zuen herrikideari sostengu osoa ematea; hilaren 10ean, Askatasunaren Ibilaldia abiatu zen, lau zutabeetako batek “Matalaz-Apala-Txirrita” izena zeramala.

Nafarroako, Bizkaiko eta Arabako Amnistiaren Aldeko Batzordeek ere kanpainarekin bat egin zuten eta udako jaiak Apalaren aldeko pegatinaz, margoketaz, pankartaz eta manifestazioz bete ziren, “Apala askatu!” le-

loarekin. Prentsara iristea lortu arte, hitzaldiak, *track*-ak eta kartelak izan ziren kanpainako euskarri nagusiak. Uztailaren 14an, “Apala askatu!” izan zen lelorik oihukatuen Bilbon 150.000 pertsona bildu zituen manifestazio antinuklearrean. Hilaren 16an, beste alderdi batzuen ekimenarekin bat eginez, Euskadiko PSOEn exekutibak estradizioa ez emateko eskatu zion Frantziako Gobernuari.

Uztailaren 19an, Miguel Angel Apalategiri behin-behineko askatasuna emateko lehen eskaera aurkeztu zen Aix-en-Provenceko auzitegian. Epaileek atzera bota zuten biharamunean bertan. Ordurako, Askatasunaren Ibilaldiko lau zutabeen etapa amaiera guztiak Apalaren aldeko manifestazio jendetsuak bilakatzen ziren. Gasteizen, esaterako, hogeita mila pertsona elkartu ziren. Eta hilaren 23an, Perturren desagertzearen urteurrenean, jendetza handia bildu zen Donostian, Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta.

Uztailaren 30ean, estradizio epaiketa hastear zelarik, Euskal Herriari zuzendutako komunikatu batean Miguel Angel Apalategik iragarri zuen gose greba hasiko zuela Beaumettesko espetxean (Marsella), hara eramanez baitzuten Porquerolles uhartetik atera ondoren. Egun horretan, hogeita bost mila pertsona manifestatu ziren Donostian, EAJk, PSOEek eta PCEk ez beste alderdi guztiek eta Gipuzkoako Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta. Frantziako kontsuletzerantz zihoazenean, Poliziak bidea itxi zien. Mobilizazioak egin ziren Algortan eta Bizkaiko beste hainbat herritan ere, “Apala, Larena askatu!” leloarekin, berriz atxilotua izan zen Xabier Larena atzerri-ratuaren kasua ere salatuz.

Biharamunean, autobus asko abiatu ziren Euskal Herritik Aix-en-Provencerantz. Abuztuaren 2an, estradizio epaiketa hasi zen hango auzitegian, goizeko 9:30ean. Lau ordu inguru iraun zuen eta senideak, lekukoak eta kazetariak soilik sartu ahal izan ziren. Kanpoan geratu zen jendetzaren oihuak eta abestiak ozen entzuten ziren epaiketa egiten ari zen aretoan.

Euskal Herriko alderdi politiko ia guztiak euskal errefuxiatuaren alde deklaratzeko prest agertu ziren, preso politikoa zela berretsiz eta haren kontrako akusazioa ere politikoa zela nabarmenduz. Azkenean, honako hauek izan ziren lekuko gisa deklaratu zuten bakarrak: Txiki Benegas eta Carlos Corcuera PSOEko diputatuak, Francisco Letamendia EEko diputatua, Gerardo Bujanda EAJko diputatua, Jose Luis Elkoro Alkateen Taldearen izenean eta

Marc Palmes abokatu kataluniarra. KASeko hiru alderdiek (EIA, HASI eta LAIA), PTK eta SUK ordezkari bana bidali zuten, behatzaile gisa.

Apala euskara hutsez aritu zen epaiketa guztian eta honela erantzun zion guardia zibil bat hiltzeko saiakera leporatzen zion fiskalari: “*Nik ez diat zer ikusirik horrekin*”. Bigarren akusazioa Javier Ybarraren bahiketa zen eta hiru delitu biltzen zituen: legearen kontrako atxiloketa, estortsioa eta terrorismoarekin lotutako erailketa. Akusazio horren aurrean, Apalak honakoa deklaratu zuen: “*Nik beraneatzen negoen Porquerollesen ez daukat zer ikusirik*”.

Defentsako hiru abokatuak –Sebag, Abeberri eta Castells– agerian jarri ziztuzten akusazioaren kontraesanak eta estradizio eskaeraren helburu politikoa. Gainera, milaka pertsonak eta Euskal Herriko alderdi politiko eta parlamentario guztietako ordezkariak Apalari erakutsitako elkartasun zabala azpimarratu zuten. Azkenik, Frantziaren ohiko abegikortasunaren apologia eginez eta jende askoren begietara *asilo lurralde*a zela gogoraraziz, Apalategiren berehalako askatasuna eskatu zuten.

Epaiketa bukatutakoan, epaileek zortzi eguneko epea hartu zuten gobernuarentzako txostena idazteko. Zortzi egun horietan ere, Euskal Herriko udal eta alderdi asko estradizioaren kontra azaldu ziren eta manifestazioak oso ugariak izan ziren.

Abuztuaren 9an, epaileek urriaren 14ra arte atzeratu zuten Apalaren estradizioari buruzko erabakia. Horren aurrean, Euskal Herrian berriz hasi ziren mobilizazioak eta Apalak jakinarazi zuen gose greban jarraituko zuela askatasuna lortu arte. Abuztuaren 12an, hogeita hamar mila pertsona mobilizatu ziren Iruñean. 14an, Donostiako Salbearen egunean, kaletik iristen ziren “Apala askatu!” eta “ETA, herria zurekin!” oihuak etengabe entzun ziren elizkizun osoan zehar. Urte hartan, aita santuaren nuntzioak eman zuzen meza, Marcelino Oreja ministroa bertan zelarik. Meza bukatutakoan, elizaren aurrean bilduta zegoen jendetzak “harrera” beroa egin zien Orejari eta gainerako agintariei, ataundarraren askatasuna eskatuz. Abuztuaren 15ean, bost mila pertsona mobilizatu ziren Ondarroan.

Miguel Angel Apalategik hiru aste zeraman gose greban eta haren osasun egoera okerrera zihoan. Horren aurrean, itxialdiak, gose grebak eta manifestazioak areagotu egin ziren. Martuteneko espetxean, ETako lau presok –Juan Jose Torregarai, Jose Luis Artola, Leandro Diaz eta Fran Aldanondo–

uko egin zioten jateari. Hilaren 19an, hoge mila pertsona mobilizatu ziren Donostiako Amara auzoan, eta hortik aurrera egunero egin ziren manifestazioak Gipuzkoako hiriburuan. Abuztuaren 20an, Frantziako kontsulak prentsari adierazi zion ez zuela uste Frantziako Gobernuak estradizioa emango zuenik.

Abuztuaren 21ean, bost mila pertsona manifestatu ziren Ordiziatik Ataureraino, bi mila Algortan, mila Portugaleten... Hilaren 20an, manifestazioa egin zen Azkoitian. 23an, Carabanchelen, Iruñean eta Yeseriasen zeuden preso politikoak ere gose greban sartu ziren. Hilaren 24an, honakoa adierazi zuen Gipuzkoako gobernadore zibilak: “*Ez diogu inori utziko baimendu gabeko manifestazioak egiten*”... “*Geldiarazi egin behar da donostiarren eguneroko bizitza suntsitzen ari den hondamendi hau*”. Gobernadorearen mehatxuei desafio eginez, Donostiako Amnistiaren Aldeko Batzordeak beste manifestazio bat eginen saiatu ziren (seigarrena hilaren 19az geroztik). Bestetik, gose grebak hasi ziren Gasteizen eta Portugaleten eta manifestazioak egin ziren Pasaian, Mutrikun, Oñatin, Bergaran eta Antzuolan.

Gipuzkoako Amnistiaren Aldeko Batzordeek manifestazio berezi bat antolatu zuten irailaren 3rako. Hilaren 25an, Iruñean gose greba gehiago hasi ziren eta manifestazioak egin ziren Deban, Bilbon eta Santurtzin. Hilaren 26an, berriz, bost mila pertsona manifestatu ziren Bilbon eta Gasteizen, lau mila Ordizian eta hiru mila Durangon. Aldi berean, gose grebak abiatu ziren Mundakan, Lekeitioan, Bermeon, Plentzian... Harrezkero, 300 ziren gose greban zeuden euskal herritarrek.

Abuztuaren 28an, “Apala askatu!” oihuak nagusitu ziren Askatasunaren Ibilaldiaren amaieran, eta hurrengo egunetan manifestazioak egin ziren Tolosan, Algortan, Basaurin, Lemoan eta Eibarren.

Iraila ere mobilizazioz josita etorri zen. Hilaren 2an, 250.000 pertsona inguruk bete zituzten Bilboko kaleak, Bizkaiko Amnistiaren Aldeko Batzordeek eta 30 erakunde politiko eta sindikalek deituta (EAJ azken unean gehitu zen). Bitartean, Ediciones Vascas argitaletxeak *Apala de maldito a heroe* liburua aurkeztu zuen Donostian.

Irailaren 3an, PSOEk, PCEk eta EAJk ez beste alderdi politiko guztiek eta Gipuzkoako Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta, oso manifestazio jendet-sua egin zen Donostian (200.000 pertsona, Cifra agentziaren arabera). Egun

berean, 40.000 pertsona mobilizatu ziren Gasteizen, PSOEk, PCEk eta EAJk ez beste alderdi guztiek eta Arabako Amnistiaren Aldeko Batzordeek deituta.

Ordurako oso ahul, Miguel Angel Apalategi indarrez elikatzen hasi ziren eta koman sartu zelako albisteak zabaldu zen. Bere abokatuekin hitz egin ondoren, gose greba uztea erabaki zuen. Biharamunean, kilometro batetik gorako luzera zuen manifestazio erraldoi batek Beasainen eta Ataunen arteko bidea egin zuen. Egun berean, Jose Antonio Torrealdaik gose greba utzi behar izan zuen, Martutenen, min izugarria baitzuen hamasei eguneko gose grebaren ondorioz. Gainerako euskal preso politikoei adierazi zuten gose greban jarraituko zutela Apala askatu arte.

Azkenean, irailaren 6an, Aix-en-Provenceko auzitegiak behin-behineko askatasuna ematea erabaki zuen. Arratsaldeko lehen orduan, Miguel Angel Apalategi aske atera zen Beaumettesko espetxetik. Bouches-du-Rhone departamentutik irtetea debekatu zioten arren, Euskal Herria eta Miguel Angel Apalategi garaile atera ziren Frantziako eta Espainiako estatuen kontrako borroka hartan.

Eragile guztientzat argi geratu zen hura ez zela izan gertaera isolatu bat, baizik eta berebiziko garrantzia zuen indar erakustaldia. Herriaren intuizioa ezin hobeto jabetu zen borroka haren garrantziaz. Horregatik, "Apala askatu!" oihuak eta amnistiaren aldarrikapenak bi gauza adierazten zituzten aldi berean: frankismoaren gau luzea atzean utziko zuen demokratizazio erradikal bat gauzatzeko nahia, eta hain denbora luzean elikatutako itxaropenei erantzuten ez zion erreforma prozesu batek eragindako frustrazioa.



Amnistia osoaren alde manifestazioa Sestaon, 1977ko urrian.



BILBON HER

ERR E FUXIA

EY UBIDEEN

Errefuxiatuen aldeko manifestazioa Bilbon.

Urria. Amnistiaren aldeko laugarren astea eta Amnistia Legea

Uda ostean, erreformarekin konprometitutako alderdiek desmobilizazio estrategia biziagotu zuten. Gizartean sortutako giroak pentsarazten zuen amnistia laster iritsiko zela, baina alderdi horiek ez zuten aitortu nahi hori ez zela izan, inola ere ez, parlamentuan egindako lanaren fruitua, herri mobilizazioen emaitza baizik.

Gauzak horrela, amnistiaren aldeko aste bat antolatu zen estatuko nazio guztietan. Urriaren 6an hasiko zen eta helburua preso politiko guztien askatasuna, erbesteratuen itzulera eta amnistia laborala eskatzea zen. Euskal Herrian urriaren 8tik 15era bitartean egin zen eta bortizki erreprimetua izan zen. Hala ere, mobilizazio ugari egin ziren, amnistia, erbesteratu politikoen itzulera eta errepresio indarren desegitea eskatuz.

Xabier Arzalluz (EAJ) eta Enrique Mujika Herzog (PSOE) deialdiaren kontra azaldu ziren. EAJk eta PSOEek egunkariak, irratiak eta telebista baliatu zituzten lasaitasuna eskatzeko, argudio bakarra erabiliz: alderdi parlamentarioek Euskadirentzako amnistia osoa onartu berria zuten, berehala indarrean sartuko zen proiektu negoziatu baten bidez.

Hala ere, amnistia horrek ez zituen kontuan hartzen izaera politikoko delitu guztiak, amnistia laborala baztertzen zuen eta ez zuen planteatzen errepresio lege guztien desagertzea. Urriaren 15ean, Diputatuen Kongresuak Amnistia Legea onartu zuen, bertan ordezkaturak zeuden talde politiko ia guztien botoekin eta AP eskuindarraren abstentzioarekin. Francisco Letamendia Eeko diputatua ere abstenitu egin zen, legea murriztegia eta ez-nahikoa iruditzen zitzaiola adieraziz.

Letamendiak oso argi hitz egin zuen Kongresuan: *“Amnistia ez da haren ostean ere delitugiletzat jotzen diren pertsonen ematen zaien barkamen lotsagarri bat, baizik eta beren bitarteko guztiak diktaduraren kontra borrokatzeko jarri dituztenak aintzatesteko neurri bat”*. Nolanahi ere, bi aste lehenago sortu berria zen Egin egunkariak honako titulu hau aukeratu zuen: *“Euskadik amnistia politikoa lortu du”*.

Parlamentuan onartu ondoren, 46/1977 Legea edo Amnistia Legea urriaren 17an sartu zen indarrean, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Haren aplikazioaren ondorioz, aske geratu ziren erreforma politikoari buruzko erreferendumaren eta ekainaren 15ko hauteskundeen arteko aldian egin-dako delituengatik espetxeratuak izan ziren euskal preso politiko guztiak.

Lehen euskal preso urriaren 21ean irten zen kartzelatik, eta hurrengo aste eta hilabeteetan beste 22 atera ziren. Azkena Francisco Javier Aldanondo Ondarru izan zen. Ezkio-Itsasoko segadan atxilotu zuten, martxoan, Guardia Zibilak Sebas eta Zaharra hil zituen operazio berean. Azaroko azken egunetan eta abenduaren hasieran Ondarru askatzearen aldeko gose grebak eta mobilizazioak egin ziren, kartzelan gelditzen zen preso bakarra baitzen. Horregatik, 1977ko abenduaren 9an Martuteneko espetxetik irten zenean, herriaren pozak gainez egin zuen eta jendetza handi batek harrera beroa egin zion bere jaioterrian, Ondarroan.

1977an, amnistia juridikoaren eta amnistia politikoaren arteko tentsio bizia egon zen urte osoan zehar. Amnistia juridikoa zuzenbidearen arloko profesionalen mintzagaia zen eta ez zuen planteatzen legedian, sistema politikoan edo ezarritako ordenean aldaketa sakonik egitea. Amnistia politikoaren aldekoek planteatzen zituzten gaiak, aldiz, zerikusi zuzena zuten frankismoaren ostean espero zenarekin: amnistia osoa edo politikoa eta erregimen aldaketa sakona. Hala ere, denborarekin, erreforma politikoak eman zuen amnistia hura “puntu eta bukaera” lege gisa ikusi zen, eta ez faxismoaren aurka borrokatu zirenei aitorpena eta erreparazioa emateko neurri gisa.

XXI. mendean, Maria Servini epaile argentinarrak auzibide bat ireki zuen 1977ko urriko Amnistia Legeak babesten zituen agintari frankisten kontra. Gogoan izan behar dugu 1976ko abuztuaren 4ko indultuak eta uztailaren 30eko errege dekretuak ez zituztela aipatu ere egiten erregimen frankistako borroakoak. Herriak amnistia eskatzen zuen askatasunak berrezartzeko edo demokrazia nahiz herrien eskubideak aldarrikatzeko asmoz egindako delitu politikoentzat, baina 1977ko urriko Amnistia Legeak frankismoaren inpunitatea bermatzeko erabakigarria izango zen esaldi bat gehitu zuen: *“Todos los actos de intencionalidad política, cualquiera que fuese su resultado, tipificados como delitos y faltas realizados con anterioridad al día quince de diciembre de mil novecientos setenta y seis”*.

Bigarren artikulua are argigarriagoa zen, espresuki aipatzen baitzituen amnistiatu ahal ziren delituak: *“Los delitos y faltas que pudieran haber cometido las autoridades, funcionarios y agentes del orden público, con motivo u ocasión de la investigación y persecución de los actos incluidos en esta Ley. Los delitos cometidos por los funcionarios y agentes del orden público contra el ejercicio de los derechos de las personas”*.

Hala, 1977ko legea “autoamnistia” lege bat izan zen, eta ez frankismoaren kontrako borrokalariak aintzatesteko eta errugabetzeko lege bat.


Hala eta guztiz ere, euskal gizarteak lorpen handi gisa ikusi zuen amnistia hori. Azken batean, hainbat hildako eragin zituen eta herriak oso garesti ordaindu zuen mobilizazio erraldoi baten emaitza izan zen. Testuinguru horretan, hainbat pertsona ezagunek sortu zuten lehen Amnistiaren Aldeko Batzordeak komunikatu bat plazaratu zuen, bere helburuak lortu zituela eta, beraz, batzordea desegingo zela adieraziz. Biharamunean, Miguel Castells abokatuarekin, Felix Sotorekin eta Fran Aldanondorekin batera egin-dako agerraldi batean, hainbat herritako Amnistiaren Aldeko Batzordeek aditzera eman zuten lanean jarraituko zutela, oraindik ez baitzen lortu preso politiko guztien askatasun osoa (hau da, aurrekari penalik gabe eta gainerako herritarrekiko berdintasun osoan), ez erbestera baldintza berberetan itzultzea, ez amnistia laborala, ez Euskal Herriaren askatasun demokratiko eta nazionalak, ez errepresio legediaren indargebetzea, ez errepresio indarren desegitea.



JOSU IHARRA



MIKEL



ON





ETaren komunikatuaren irakurketa, Luis Carrero Blanco almirantearen aurkako atentatua burutu zuen taldearen eskutik.

LANGILE ETA HERRIARENTZAKO KAS ALTERNATIBA

kas: la alternativa
para la clase trabajadora
y el pueblo vasco



KAS

KAS alternatiba.

Udazkena. Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren berregituraketa: ETA, KAS, Altsasuko Mahaia, Alternatiba...

Amnistiaren aldeko asteen ondorioak, Xibertako elkarrizketetan agerian geratu zen indar abertzaleen zatiketa, hauteskunderen eta haien emaitzen inguruko ikuspegi ezberdinak, Askatasunaren Ibilaldiaren bukaera, EEK “preautonomikoaren” alde egindako apustua... Faktore horiek guztiek eta lehentasun nahiz estrategia ezberdinek mesfidantza giro nahasia sortu zuten ezker abertzalearen baitan. Horren aurrean, bi aukera baino ez zeuden: zauriak barruan jostea edo erakunde bakoitzak bere bidea hartzea.

1977an amnistiaren aldeko borroka izan zen mobilizazio sozial eta politikoaren katalizatzailea, eta erakunde bakoitzak amnistiaren inguruan hartutako posizio taktikoak erreforma politikoarekiko jarrera islatzen zuen. Behin erakunde bakoitzaren estrategia eta lehentasunak argituta, ezinbestekoa bilakatu zen Euskal Nazio Askapenerako Mugimenduaren berrantolatze eta berregituratze sakon bati ekitea.

Erreforma politikoari buruzko erreferendumaren emaitzak eskuan, eta zehaztu gabeko data batean hauteskunde orokorrak egingo zirela iragarritakoan, KASek bilera ugari egin zituen Bigarren Errepublikaren osteko lehen hauteskunderen begira ezker abertzaleak erabili behar zuen estrategia zehazteko. Erreformaren aldeko indarrek beldurra zabaltzeari ekin zioten, diktadura luzatuko zuen kolpe militar bat gertatzeko arriskua zegoela esanez, eta estrategia horrek bere fruituak eman zituen. Ordura arte, oposizio anti-frankistako alderdi gehienek hausturaren alde egin zuten –diskurtso mailan behinik behin–, baina, beldurraren strategiaren ondorioz, jarrera horrek indarra galdu zuen eta gaitzik txikiaren hautua nagusitzen joan zen. Hauteskunderen bidez, frankismoaren osteko garaiaren kudeatzaileek alternatibarik gabeko bide horretan sakondu nahi zuten, eragile guztiei bi aukera bakarrik utziz: beraien strategiarekin bat egitea edo marjinalitate politikoan erortzea eta, gainera, aldaketaren eragozle gisa agertzea herritarren aurrean.

Hauteskundeak hurbildu ahala, askotariko erritmoak eta sentsibilitateak azaleratzen joan ziren ezker abertzalearen eremuan. Berehala ikusi zen

erakunde politiko bakoitza bere jarduera ildo diseinatzen ari zela, bere kabuz eta besteen estrategiak aintzat hartu gabe. Zurrumbilo horretatik kanpo geratu ziren bakarrak ETAm eta KASeko erakunde batzuk izan ziren (LAIA eta EHAS), azken unera arte bete baitzuten koordinakundeak amnistia eta alderdi politikoen legezapena lortzeko ezarritako epea.

ETApm-ren VII. Biltzarretik sortutako alderdiak EIA izena hartu zuen (Euskal Iraultzarako Alderdia). 1977ko apirilaren 3an egin zuen jendaurreko aurkezpena, Gallartan, bere burua langileen alderdi antikapitalista eta independentista gisa definituz. Bitartean, ETApm-ko zuzendaritza Espainiako Gobernuarekin hizketan ari zen, Genevan. Bilera horiek Hego Euskal Herrira aldatu baino lehen, polimiliek Genevako elkarrizketetan parte hartzea proposatu zioten ETAm-ri, Espainiako Gobernuak elkarrizketetarako arduradun militar izendatu zuen Angel Ugarteren eskaintza helaraziz. Hau zen gobernuaren proposamena: hiru hilabeteko su-etena ematea eta, horren truke, erbesteratuen itzuleraz, presoek askatasunaz eta alderdi politikoen legezapenaz eztabaidatzen hasia.

KASen lehentasuna, aldiz, amnistiaren aldeko mobilizazioa indartzea zen. Horrekin batera, urtarrilaren amaieratik aurrera, koordinakundeak osatzen zuten erakundeek ahalegin handiak egin zituzten hauteskunderi begirako irizpide bateratuak adosteko.

Hauteskundeetarako estrategia bateratua prestatzen aritu zen bost hilabeteetan, aldaketa handiak gertatu ziren KASen baitan. LAIA EZ eta LAK alderdiek KAS utzi zuten, eta hauteskundeetan baldintza zehatz batzuetan soilik parte hartzeko ideiak gero eta indar handiagoa hartu zuen koordinakundeak. Xibertan abstentzioa planteatu zen hasierako aukera nagusi gisa, baina, denborarekin, indar politiko guztiak parte-hartze baldintzatuaren alde agertu ziren.

Desadostasun nagusiak urrats hori egiteko unearen ingurukoak ziren. ETAm-k, EHASEk eta LAIAk erabakita zeukaten kanpaina hasi bezain laster hauteskunde prozesutik baztertuko zirela. ETApm-k eta EIAk erantzun zieten beraiek oraindik ez zeukatela argi zein jarrera hartu hauteskundeetan aurrean. EIAko militantziaren zalantzak oso agerian geratu ziren maiatzaren 28an Beasainen egin zuen ohiz kanpoko batzarrean. Batzarraren xede bakarra bi aukera hauetako bat hautatzea zen: hauteskundeetan parte hartzea (EIAko zuzendaritzak proposatzen zuen bezala) edo abstentziora jotzea (KASeko gainerako erakundeek proposamena). Azkenean, tentsio handiko

giro batean, gehiengoak hauteskundeetan parte hartzea erabaki zuen, eta horrek KAS Koordinakundearen zatiketa iragarri gabea eragin zuen.

KASek ekainaren 6ra arte luzatu zuen epea, eta horrek are nahasmen handiagoa eragin zuen ezkerreko sektore abertzaleen artean, 9 egun soilik falta baitziren hauteskundeetarako. Azkenean, KASen jarrerarekin bat egin zuten hautagaiak EEren eta UNAIren zerrendetatik atera ziren.

KASen osaerari dagokionez, hauteskundeen ostean EHAS desegin zen eta HASIk hartu zuen haren lekua. HASI (Herriko Alderdi Sozialista Iraultzailea) 1977ko uztailaren 3an sortu zen, Aretxabaletan, ezker abertzaleko zenbait alderdi sozialistaren konbergentziatik. 1977ko abuztuaren erdialdean, lehendik zetorren krisiak goia jo zuen KASen, erakunde bakoitzak hauteskundeen aurrean izandako jokabidearen ondorioz. Abuztuaren 16ko bileran, ETAm-k, Bereziek, ETApM-k, EIAk, HASIk, LAIAk eta ASK-k bi aste epea ezarri zuten egoera bideratzeko (Askatasunaren Ibilaldia bukatu arteko epea, hain zuzen ere). 1977ko abuztuaren 30ean, EIA KASetik aldentu zen. Argudio gisa esan zuen koordinakundea ez zela elkarlanerako tresna baliagarria izan, ika-mikarako gun e etengabea baizik. ETAm-k eta Bereziek EIA berehala kanporatzeko eskatu zuten eta, luze gabe, LAIAk eta HASIk ere bat egin zuten eskaera horrekin.

Bestetik, 1977ko irailaren 24an, prozesu izugarri azkar batean, Bereziek eta ETAm-k bat-egite akordioa sinatu zuten. Bereziek EIAren alde jarri zen zuzendaritza polimilia jadanik kanporatua zutenez, azken komunikatuak ETAm eta ETApM erakundeen elkartze gisa jaso zuen bat-egitea. Bere garaian, Bereziek polimilien sektore garrantzitsu baten kapital politiko eta humanoa bereganatu zuten, baina, hala eta guztiz ere, kanporatua izan zen zuzendaritzak egitura militarri eutsi zion, ETApM izenarekin. Horren ondorioz, miliek eta Bereziek bat egin zuten arren, handik aurrera ere bi erakunde armatu egon ziren.

Bat-egiteari buruzko komunikatuak albo batera utzi zituen aurreko hiru urteak, esanez bi erakunde armatuen artean ez zela egon inolako desadostasun ideologikorik, estrategikorik, egiturazkorik edo politikorik. Zehazki, hau zioen komunikatuak: *"el pueblo Vasco no puede darse el lujo de tener dos organizaciones armadas que, sin ninguna diferencia entre ellas, se disputen la hegemonía"*. Aurrerago, ETAk zioen akordioa bi punturen gainean egin zela:

"1º En la etapa actual, la lucha de masas y la lucha armada deben desarrollarse a partir de organizaciones independientes pero coordinadas y con una fuerte cohesión a nivel político. ETA, en consecuencia, limitará su acción al terreno de la lucha armada.

2º La actividad militar de ETA debe desarrollarse íntimamente ligada a la situación, a cada momento, del pueblo vasco y particularmente de los trabajadores. Debe orientarse por una concepción político-militar de la lucha".

Bloke polimiliak (ETApm eta EIA) KAS utzitakoan eta ETAm-k eta ETApm-Bereziek bat egin ondoren, KAS berriak normalizazio demokratikorako alternatiba eguneratzeari ekin zion. Lehenago, ordea, hurrengo hauteskundeetarako koalizio bat osatzen ahalegindu zen (udal hauteskundeak izango zirela esaten zen). Iritziak trukatzeko lehen bileretara ESEI, EAE-ANV, LAIA, HASI, EIA eta ESB joan ziren. Hala ere, ESEIk uste zuen Fronte Autonomikoan gorpuztutako EAJ-PSOE proiektua guztiz baliagarria zela eta, beraz, gainerako indar abertzaleekiko batasuna haustea erabaki zuen.

1977ko urriaren 24an, udal hauteskundeak prestatzeko bileretan parte hartu zuten beste bost alderdiek lehen akordio bat aurkeztu zuten Altsasun. EIAk, bere aldetik, oso gutxi iraun zuen Altsasuko Mahaian. Izan ere, berehala kokatu zen "preautonomikoaren" alde eta, desadostasun sakonak zirela medio, ESB, LAIA, HASI eta EAE-ANVtik aldentu zen.

Besteak beste, hauxe izan zen Altsasuko Mahaia eratzeko arrazoi nagusia: ezker abertzale gisa definitzen zen eremu zabal eta sakabanatu oso bat trinkotzea eta ekintza politikorako artikulatzea.

Aldi berean, ETAk KAS Alternatiba eguneratzeari ekin zion. Izan ere, 1975eko udan diseinatu zen eta bertan jasotzen ziren erreibindikazioetako batzuk koiuntura berrira egokitu beharra zegoen.

1977. urtearen bukaeran, erakunde armatuak pentsatzen zuen behin-behineko programa bat aurkeztu behar zela, balizko su-eten baterako ezinbestekotzat jotzen ziren askatasun demokratikoak jasoko zituen programa bat. 1978ko urtarrilaren 30ean aurkeztu zuen alternatiba eguneratua, Bizkaiko Gobernu Zibilararen kontrako atentatu bat bere gain hartzeko plazaratu zuen komunikatua baliatuz. Hau zen alternatibaren muina:

1. Amnistia, taktikoki euskal preso politiko guztien kaleratze gisa ulertuta.
2. Askatasun demokratikoak: alderdi politiko independentista guztiak legeztatzea beren estatutuak apaldu beharrik gabe.
3. Guardia Zibila, Polizia Armatua eta Cuerpo General de Policia zelakoa Euskal Herritik egozte.
4. Herritar klaseen eta, batez ere, langile klasearen bizi eta lan baldintzak hobetzea.
5. Gutxienez honako atal hauek bilduko zituen Autonomia Estatutua:
 - Autodeterminazio eskubidea onartzea, Estatu propio eta independente baterako eskubidea barne.
 - Euskara Euskal Herriko hizkuntza ofizial nagusia izatea.
 - Garai hartako indar errepresiboen lekua hartuko zuten defentsa indar herritarrak Euskal Gobernuak sortzea eta soilik haren aginduetara egotea.
 - Euskal Herrian kuartelatutako indar armatuak Euskal Gobernuaren kontrolpean egotea.
 - Euskal Herriak edozein unetan beharrezkotzat jo zitezkeen egitura ekonomiko, sozial eta politikoak sortzeko botere nahikoa edukitzea.





Monkloako itunak sinatu zituzten alderdi politikoen ordezkariak eta orduan gobernu buru zen Adolfo Suarez argazkian (ezkeretik eskuinera): Enrique Tierno Galvan (PSP), Santiago Carrillo (PCE), Josep Maria Triguñer (PSOE-ren Kataluniar Federazioa), Joan Reventós (Kataluniako Konbergentzia Sozialista), Felipe Gonzalez (PSOE), Juan Ajuriaguerra (EAJ), Adolfo Suarez (Gobernu Burua), Manuel Fraga (AP), Leopoldo Calvo Sotelo (UCD), Miguel Roca (CiU).



1978 urte arte PSOEk Nafarroa barne bilduko zuen estatutu bat eta autodeterminazioa aintzakotzat hartzen zituen.

Azaroa. Moncloako Itunak eta lurralde pitxerraren apurketa

1977ko ekaineko hauteskunde orokorretan UCD nagusitu zen (gobernuaren alderdia, neurri handi batean koadro frankistez osatua) eta PSOE PCeri gailendu zitzaion. Euskal Herrian EAJk eskuratu zuen hegemonia, ezker abertzalearen gaintik. Emaidza horiek ikusita, Trantsizioaren sustatzaileek Erreforma finkatzeko urrats gehiago egitea erabaki zuten. Urrats horietako bi aztertuko ditugu atal honetan: Moncloako Itunak eta –Telesforo Monzonen hitzak erabiliz– lurralde pitxerraren apurketa edo, beste era batera esanda, Euskal Herriaren zatiketa (Nafarroa alde batetik eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa bestetik).

Moncloako Itunen sustatzaile nagusiak Adolfo Suarez Espainiako Gobernuko presidentea eta Santiago Carrilo PCEko idazkari nagusia izan ziren, baina EAJk eta PSOEek ere sinatu zituzten, baldintzarik jarri gabe. Itunen helburua egitura frankistak etapa politiko berrira egokitzea eta sistema egonkortzea zen. Atal ekonomikoa 1977ko urriaren 25ean sinatu zen.

Hasiera batean, alderdi politikoek soilik sinatu zituzten Moncloako Itunak. Gero, Kongresuak eta Senatuak berretsi ondoren, patronala, CCOO eta UGT gehitu ziren. Itun haien bidez, frankismo osoa –haren ordezkari nagusietatik hasi eta polizia aparatuetaraino– erregimen demokratikoan integratu zen, eskubide guztiekin eta inpunitatea bermatuta. Era berean, gobernuak herritarrei sinetsarazi nahi izan zien Espainiako ekonomia hobetzeko eta berritzeko akordio bat lortu zela. Izan ere, ekonomia ezin okerrago zihoan eta arazo larriak zituen, hala nola dibisa kopuru urria, kanpo zor gero eta handiagoa eta %27 inguruko inflazioa.

Zer gertatuko zain, erregimeneko sektorerik atzerakoienek ezer gutxi egin zuten aurreko hilabeteetan, eta Moncloako Itunek munta handiko ekimenak abian jartzeko aukera eman zieten. Bestetik, Moncloako Itunetatik autonomien mapa ere sortu zen. Hego Euskal Herrian, zatiketa instituzionala izan zen maparen ardatza.

Itunek berehalako ondorio bat ere ekarri zuten: atentatu parapolizialen areagotzea (gehienak Triple A erakundearen eskutik). Bestetik, hauteskundeetan nagusitu ziren alderdiek babes osoa eman zieten arren, Moncloako

Itunek erantzun sendoa aurkitu zuten Hego Euskal Herrian. Ataka horren aurrean, gobernuak zuhur jokatzeari erabaki zuen eta Estatuaren diseinua egiteko prozesutik kanpo utzi zituen sukurtsalistak ez ziren indarrak. Izan ere, gobernu zentralean jarrera kontrajarriak zeuden EAJk bere proiektuaren babesle gisa zezakeen paperaren inguruan.

Moncloako Itunek eragin nabaria izan zuten Espainiako ezkerre osatzen zuten bi alderdi klasiko handien bilakaeran (PSOE eta PCE). Lehenak, idazkari nagusiak hala eskaturik, “marxista” terminoa kendu zuen alderdiaren definiziotik. PCEk, berriz, “leninismo” hitza ezabatu zuen bere kapital teorikotik. Eta biek ala biek uko egin zioten hausturari, errepublikari, herrien autodeterminazio eskubideari, kapitalismoa gainditzeari eta frankismoa depurtzeari. Uko egite horren helburu nagusia Espainiako Konstituzioaren testua idatziko zuen Batzorde Mistoan parte hartzea zen. EAJ eta Euskadiko Ezkerre proiektutik kanpo geratu ziren.

Hauteskundeek emaitzak gorabehera, euskal alderdiek hain mesfidantza handiz jokatu zuten Itunaren aurrean, ezen Rodolfo Martín Villa Gobernazio ministroak Hego Euskal Herriko politikan izan zuen esku-hartzea Adolfo Suárez presidenteari bezain handia izatera iritsi baitzen. Horrek oso argi adierazten du Espainiako Gobernuak nola interpretatzen zuen Euskal Herriaren berezitasuna. Martín Villaren jokabidea Atzerri ministro batek herrialde okupatu batean izango lukeenaren antzekoa izan zen. Amnistia dekretuaren ostean, Madrilek balazta sakatu zuen. Bere sabaira iritsia zen.

1977ko maiatzean, hauteskundeak baino zenbait aste lehenago, EAJk, PSOEk, ESEIk, PCEk, DCVk eta EAE-ANVk “Konpromiso Autonomikoa” sinatu zuten. Haren arabera, Nafarroan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan hautatutako parlamentariak arduratuko ziren etorkizuneko autonomia estatutua idazteaz. Hauteskundeek ostean, alderdi horiek guztiek “Euskal Parlamentariaren Asanblada” eratu zuten, ekainaren 19an. UCDek Nafarroan lortu zituen diputatuak eta senatariak asanbladatik kanpo kokatu ziren hasiera-hasieratik, eta Arabakoek parte hartzeko zalantza handiak agertu zituzten. Horren ondorioz, eta inolako eztabaida demokratikorik gabe, hiruko eredu bat bideratu zen, Nafarroaren estatusa eztabaidagai utzirik. Hala, Nafarroako diputatu eta senatariak erabakiak zatiketa instituzionala marrazteko oinarria ezarri zuen. Askotan esan da Euskal Herriaren zatiketa instituzionala herriaren borondatearen emaitza izan zela, baina, egia esateko, inoiz ez zen egon horretaz eztabaidatzeko eta erabakitzeke aukerarik.

Erreformaren agendan, Konstituzio berri bat onartzea zen hurrengo urratsa, eta Adolfo Suarezek erabakita zeukan urrats hori egin arte ez zela inolako autonomiarik egongo. Asko jota, gobernua prest zegoen Euskal Parlamentarien Asanbladak idatziko zuen eta gobernuaren onespina jaso beharko zuen proiektu preautonomiko bat onartzeko. Hala ere, prozesu horren emaitza aurretiaz biziata zegoen. Irailean, EAJk eta PSOEek *Ley de Regimen Transitorio Preautonomico para el Pais Vasco* izeneko lege proiektuaren zirriborroa onartu zuten Euskal Parlamentarien Asanbladan, baina, ordurako, abian zen Hego Euskal Herriko lau lurraldeetarako autonomia proiektu bati bidea ixteko estrategia integral bat. Estrategia horren barruan, besteak beste, presioa egiten zitzaien penintsulako lau euskal lurraldeetarako estatutu bat aldeztu zuten alderdiei, horrelako estatutu batek Nafarroaren identitatea eta nortasuna arriskuan jarriko zituela esaten zen eta auzi hori estatu afera bihurtzeko eskatzen zitzaien Madrili eta botere faktikoei.

Nafarroako diputazio frankistak, UCDk eta diktadorekin lotutako sektore guztiek Hego Euskal Herriko lau herrialdeetarako lurralde proiektuaren kontrako presioa areagotu zuten. Amadeo Marco buru zuela, diputazioak berak Nafarroako foruak osorik berrezartzea proposatu zuen, hau da, 1841. urtearen aurreko egoerara itzultzea.

Maniobra haien aurrean, hautesleen %60 inguru ordezkatzeko zituzten Nafarroako hamalau alderdik (PSOE barne) honakoa adierazi zuten irailaren 23an: *“UCDren jarrerak arrisku larrian jartzen ditu Nafarroako bakea eta bizikidetzak, eta, ziur aski, baita Euskal Herriko gainerako lurraldeetako ere”*.

1977. urtearen amaieran, UCD, PSOE eta EAJ Nafarroa preautonomikoan sartzeari buruzko akordio batera iritsi ziren. Hala ere, adostutako testua hain zen lausoa, ezen, UCDk egiten zuen interpretazioa zela medio, desadostasunak izoztuta geratu ziren Konstituzioaren testua onartu zen arte.

Hainbat astez, Espainiako Gobernuak eskura zituen baliabide guztiak erabili zituen Nafarroak Hego Euskal Herriko beste hiru lurraldeak ere bilduko zituen ezein proiektu politiko-instituzionalean parte har ez zezan. Horretarako, presioa egin zion Armadaren Estatu Nagusiari berari ere. Gobernuak egiten zuen irakurketa oso sinplea zen: lurralde batasunak independentziaren horizontea hurbilduko zuen, eta zatiketak urrundu. Logika horri erantzunez, 1977ko azaroaren 19an Nafar Parlamentarien Kontseilua sortu zen, UCDk bultzaturik.

Horrenbestez, 1978an lege dekretu bidez sortuko zen Eusko Kontseilu Nagusia eskumen praktikorik gabe eta lurralde zati bat kenduta abiatuko zen. Fase politiko hartan, Moncloako Itunak sinatu zituzten alderdien zeregin nagusia Hego Euskal Herriari burujabetza nazionala eskuratzea ahalbidetuko zion garapen autonomiko handi bat lortzeko itzaropena elikatzea zen, eta, azken batean, Eusko Kontseilu Nagusiaren sorrerak horri erantzun zion. EAJk behin eta berriro aipatzen zituen Kontzertu Ekonomikoak nazio garapenerako oinarri gisa, eta bere idazkietan etengabe esaten zuen “Euskadi” ia independentea izango zela laster.

Funtsean, eta epe laburrera, estrategia horren helbururik behinena ezker abertzalea ahultzea zen, erreforma prozesuaren mugak ozenki salatzen zituen indar politiko bakarra zelako.

Jakina denez, inposizioen eta klaudikazioen ondorioz, autonomiarako bide ireki ziren Hego Euskal Herrian, eta hainbat hamarkadatan zehar lurralde zatiketa elikatu da energia politiko zentripetu oro eragozteko. Estrategia horren ondorioak nabariak dira, baina orobat da nabaria ez duela lortu Euskal Herria desartikulatzea eta krisi sakona bizi duela gaur egun.

Franco hil ostean Espainiako Estatuan eraikitako egitura guztia dago krisian. Luze iraun duen geroratze behartu baten ondoren, orain, hainbat hamarkadaren buruan, Espainiako Erresumak berriro egin du topo bere aspaldiko arazoekin. Arazo zaharrak berriro egin zaizkio, inoiz baino indar handiagoz Katalunian eta orain dela zenbait urte imajinaezinak ziren agertokien bidez Euskal Herrian.

Erreforma inposatzea lortu zuten, baina, euskal gizartearen erresistentziari eta borrokari esker nagusiki, hausturaren horizonteak bizirik iraun du. Gaur egun haustura ez da formulatzen XX. mendeko hirurogeita hamarrenko urteetako terminoetan, baina, funtsean, muina lehengo bera da: herrien autodeterminazio askerako eskubidea onartzea.



Fran Aldanondo, azken euskal preso politikoaren irteera Martuteneko espetxetik. 1977ko Abenduak 9. Argazkia: Javier Gallego.



ETak Imaz komandatea erail zuen lekua.

Oraingo garai eta erronketarako baliagarri zaizkigun zenbait gogoeta

1977. urtearen amaieran, Amnistiaren Aldeko Batzordeei eta gure historian inoiz izandako mobilizazio kolektiborik handienari esker, Euskal Herriak amnistia ematera behartu zuen Espainiako Estatua (euskal preso politikoen kaleratze gisa ulertutako amnistia). Geldiro eta apurka-apurka, kaleratze mailakatuak, atzerriratzeak eta behin betiko askatzeak gertatu ziren, baina, gatazka politikoaren konponbide gisa eta, beraz, gatazkaren arrazoien gainditze gisa ulertuta, amnistia sekula ez zen iritsi.

Presoak kalera atera ziren eta erbesteratu asko Hego Euskal Herrira itzuli ziren, baina, presoak nahiz erbesteratuak egotea eragin zuten arrazoiak desagertu ez zirenez, handik gutxira espetxeak ETAn militatzeaz edo erakundeari laguntza emateaz akusatutako pertsonen bete ziren berriro.

Amnistiaren aldeko asteak, mugimendu sozialen indarra eta ETAn bi adarren ahalmen operatiboa interpretatzeko orduan, kontuan hartu behar dira garai hartako koiuntura politikoaren berezitasun bi: errepresio izugarri gogorra batetik eta jende askoren konpromiso eta militantzia maila handia bestetik. Herriak argi ikusten zuen frankismoaren garaia bukatzeaz zela eta ziklo hori iraganarekin hautsiz ixteko aukera zegoela. Horixe zen konpromisoaren motorretako bat. Kontua ez zen hutsetik hastea, baizik eta gainditutako errebindikazioetatik abiatuta etapa berrirako ezinbestekotzat jotzen ziren balio demokratikoak lortzea.

1977ko azaroaren 26an, ETAk Joaquin Imaz Martinez Polizia Armatuko 64. Bandera Mugikorreko komandante burua hil zuen Iruñea erdian ("en su calidad de máximo responsable de las fuerzas represivas en Nafarroa"), Askatasunaren Ibilaldiaren amaiera ekitaldiaren kontrako errepresioaren erantzule nagusia izatea leporatuta. Zenbait ordu geroago, komunikabideen bidez, UCDek galdera ireki bat luzatu zion KASi, bere jarrera argi eta garbi azaltzeko exijituz: "que de forma meridiana informe a la opinión pública si aprueba o rechaza la conducta de ETA, concretamente el asesinato del sr. Imaz".

KASek berehala erantzun zion, gobernuko alderdiaren galdera jaso zuten komunikabide berberak zeharo isilarazi zuten lau orriko txosten baten bidez:

"Las fuerzas del KAS no desean la violencia, pero desde una perspectiva política realista, saben a ciencia cierta que eso no depende de sus deseos y tampoco del posicionamiento que adopten ante la prensa y los medios de difusión en general, sino que son las condiciones políticas y sociales en las que se desenvuelve Euskadi las que crean el clima propicio para que ésta se genere. KAS no desea que hombres venidos en una inmensa mayoría de las clases más humildes, mueran en Euskadi defendiendo unos intereses que no son los suyos por unos salarios que no justifican el riesgo, ni que otros, enfrente, caigan como lo vienen haciendo desde años atrás. Y este deseo, claro está, en modo alguno debe suponer ocultar las razones de fondo donde están latentes los gérmenes de la violencia".

Berrogei urte geroago, 2017ko apirilaren 8an, ETA armagabetu egin zen, bere armategiak gizartearen esku utziz. Egun horretan, ziklo politiko bat itxi eta beste bat ireki zen.

Gaur, duela 40 urte bezala, amnistiaren horizontea mobilizazio sozialen motor nagusietako bat da. Hala ere, orduan ez bezala, erreformaren mugak agerri-agerian geratu dira dagoeneko. Oso argi geratu da erreforma ez zela demokrazia sakon bat eta Euskal Herriaren burujabetza lortzeko bidea, eta are gutxiago egitura sozioekonomikoak eta botere harremanak eraldatzeko bidea.

Euskal Herriaren biziraupenean eta erresistentzian oinarritutako borroka ziklo luze bat atzean utzi eta beste ziklo batean sartu gara. Gako horiek ez dira desagertu, baina oraingo erronka nagusia alternatibak eraikitzea eta gauzatea da. Ereindakoaren fruituak jasotzeko garaia da. Zauriak miatzatu, eta gure herriak frankismoaren eta haren erreformaren aurrean erakutsitako indarra eta estrategia berritzeko gaitasuna berreskuratu behar ditugu.

1977ko amnistiaren aldeko borroka garrantzi handiko erreferentzia eta inspirazio iturri da guretzat, baina, erreferentzia hori emankorra izan dadin, XXI. mendeko gizarte gisa aplikatu behar dugu, eta ez XX. mendeko gizarte gisa. Jauzi handia dago Amnistiaren Aldeko Batzordeen eta bakearen artisauen artean, baina, agertoki berriak sor ditzaketen mugimenduak eta borrokak pizteko eta gauzatzeko gaitasunari dagokionez, hari zuzen batek lotzen ditu biak.

Orain, presoak eta erbesteratuak egotearen arrazoiak benetan gainditzeari eta euskal estatu libre eta independente bat sortzeari lotuta ageri da amnistiaren horizontea.

AMNISTIAREN
NORABIDEAN
PRESO ETA
IHESLARIAK
ETXERA

DEAN, PRESO E

APIRILAK
17
BILBO

AMNISTIAREN
NORABIDEAN
PRESO ETA
IHESLARIAK
ETXERA

AMNISTIAREN
NORABIDEAN
PRESO ETA
IHESLARIAK
ETXERA

APIRILAK
17
BILBO



Amnistia

PRESO ETA IHE



Ondorioak

ren norabidean,
ESLARIAK ETXEN

"Amnistiaren norabidean, preso eta iheslariak etxera" euskal preso politiko ohien deialdiarekin bat egin dute 20.000 pertsonak, Preso Politikoan Nazioarteko egunean, Apirilaren 17an (2016)

Hausnarketa 40 urtera

Lau hamarkada beranduago ikus dezakegu trantsizioa aukera galdu bezala, eliteei denbora irabazteko tarte eman diena, baina ez frankismo osteko estatuari egonkontasunaren bermea. Honek euskal iraultza izan du aurrean hamarkadatan, orain kataluniarrak indar izugarritz lekukoa hartu diona.

Espainiako Estatu krisian dago eta bere jarraipenerako orain duen forma aukeretako bat da, baina ez bakarra. Zeharkatzen duen krisia, azken urteetan hain modu nabarmenean eztanda egin duena, soilik uler daiteke bere ahultasun estrategikoei so eginda, eta euskal independentismoak bereziki egin duen lubaki lan eta alternatiben erreferentzien sorrerari erreparatuta. Erresistentzia honek geure herriari esfortzu eskerga eskatu dio, baina erabakiorra izan da trantsizioak markaturiko etorkizunari alternatiba bizia mantentzeko. 70eko hamarkadako amnistiaren aldeko borroka erresistentzia horren gakoetakoa izan zen, beraz beharrezkoa da gogoratu eta bere dimentsio historiko betean baloratzea.

Espainiako Erreforma politikoa bere sustatzailearen, erregimen frankistaren, irudi eta neurriaren egin zen. Trantsizioa prozesu eredugarri gisa aurkeztu zuten botere politiko eta mediatikoaren egiturek. Alabaina, diktaduraren Estatu kontrolatu zuten indar berek zuzendu eta fiskalizatutako prozesua izan zen. Aldarrikatutako berdinen arteko hitzarmena baino, eta Estatu frankistarekiko hausturaz gaindi, aldaketa irudikatzea behar zuten elite politiko eta ekonomikoen neurrirako *aggiornamentu* modukoa izan zen. Erreforma demokratiko bidezko estatu frankistaren irekiera bat, nolabait.

Frankismoarekiko egiazko haustura beharrean erreformaren bideak irabazteak eragin nabarmena izan du azken hamarkadetan: boterearen eustea elite frankista eta kontserbadoreen aldetik; kalitate baxuko demokrazia, eta demokrazia zuzenerako aukera batere; Ongizate Estatuaren azpigarapena; Estatuaren nazioaniztasunaren ukapena; politikaren ulermena alderdien eliteen zeregin gisa. Epe luzera, erreforma onartzeak berau babestu zuten ezkerreko alderdiak aurretik eraman ditu. Erreorman gauzatu ziren erregimen eta Estatuak egun bizi duten krisiak aditzera ematen du hitzarmen hori hautsita dagoela, eta Estatuak bere burua berrasmatu behar duela.

Txiberta eta jeltzaleen apustu estrategikoa

Besteak beste amnistiaren gaia agendan izaki, 1977ko apiril eta maiatzean abertzale guztiak Txibertan elkartu zituzten jardunaldiak, herri gisa elkarrekin ibiltzeko aukera galdua gisa ikusten ditu gaur egun ezker soberanistak behintzat.

2017ko udaberrian EAJ eta PPK egindako akordioak epe luzeko apustu estrategiko baten aurrean gaudela ulertarazten digu. Tentsio eta kontraesan indartsuek ezaugarrituriko epealdia izan da, Ibarretxeren aldi bat esaterako, baina espainiar Estatuko elite menperatzaileekiko leialtasunak markatua nagusiki.

Ez dakigu ze ondorio historiko lukeen Txibertan edota oro har bidegurutze horretan beste bide bat hartzeak. Agian borroka armatua izoztu egingo litzateke lehenik, eta eszenatokitik kanpo geratu gero, horixe izan baitzen erakundeak berak mahai gainean jarri zituen aukeretako bat.

Era berean, badakigu proposamenak ez zirela bideraezinak, ez baitziren eszenatoki ezinezkoak proposatzen, gauzagarriak ziren aukerak baizik. Erreforma planteatu zen moduan onartzeari uko egin ziotenen jarrera ez zen muturrekoa edota insurrekzionala, sakontze demokratikora bideratua baizik.

Badago sinestarazi nahi digunik haustura ezinezkoa zela, eta horregatik bide errealista hautatu zutela bideraezinak ziren aukeren alboan, independentismoak edota PCetik ezkerretara zeuden eragileek bultzaturikoak esaterako. Oraindik orain EAEko kontseilari jeltzale batek irakaskuntzan deituriko grebaren deialdia egin zuten sindikatuen kontra egin zuen “errealitatearen printzipioan” oinarrituta. Hauxe da erreformaren apusturaren argudiatze nagusia. Ezin zen (ezin da) besterik egin, horixe esatera zetozen eta datoz. Baina hori izaten da beti bere interes partikularrei -elite edo alderdi, korporatibo eta pribatu, edo denen nahasketa- gehiengo sozialen gainetik lehentasuna ematen dietenen zuribidea.

Bai, hauta zitekeen eta hauta daiteke beste bide bat, eta orduan egitea hobe litzateke, eta orain egitea ere hobe litzateke geure herriaren etorkizunarentzat. EAJ eta beste indarrek estrategia erreformistaren aurrean presio eta eskakizun jarrera hartuko balute erregimen berriaren pean babesa bilatu beharrean, arras ezberdina litzateke iragan hurbila. Ezkerrek desiotako haustura gertatuko litzateke? Ziur aski ez, baina ez litzateke geure herriari zein Estatu

osoari eragindako kalte negargarrien erreforma eta, edonola ere, Estatuak askoz ere zailtasun gehiago izango lituzke bere planak ezartzeko.

Dakiguna da, egiaztapena delako eta ez espekulazioa, EAJren eta beste eragileen apustu “errealista” tragikoa izan dela. Espainiar eta frantziar intrantsigentzia garaitu eta burujabetzan aurrerapausoak emateko baldintzak sortu badira, ziklo aldaketa burutu eta bortxakeria politikoko eszenatokia atzean uzteko oinarriak ezarri badira, ez da izan EAJ eta bere espainiar konplizitateengatik, herri hau irauteko moduan izan delako eta beste ortzimuga bat lortu duelako baizik. Orain herri katalanak ortzimuga hori bere egin ahal izan badu eta bestelako eszenatokietara eraman, norbaitek oztopo guztien gainetik eutsi ziolako izan da, ez EAJ edota beren bidea hartu zutenei esker.

EAJ herri katalanaren helburuen kontra lerrokatzeak edota estatu arrazoia-rikiko leialtasunak, Txibertan eta 1977ko amnistiaren aldeko borroketan sumatu zen apustua XXI. mendeko parametroetara ekartzen du. Gaur duela 40 urte bezala, jeltzaleek askatasunaren aldeko desira sozialek gainezka egiteari dioten beldurrak, ordenaren aldeko apustuetan kokatzen ditu. Beldur diote mugimendu herritarrari, ezin dute onartu politika kaleetara itzul dadin, alderdi eta instituzioen jokoan hesitzea behar dute. Soberan dituzte, beraz, amnistiaren aldeko asteak, eta behetik gora antolaturiko jendartearen protagonismoa. Hori dela eta, eragin desmobilizatzailea bilatzen duen akordio berria egin dute, frustrazioa, pasibotasuna eta etsipena bilatuz.

Egungo egoera ulertu, amnistia ulertzeko

Gaur egun ez gaude XX. Mendeko 70eko hamarkaren amaieran egin ziren apustuen errepikapen hutsean. Hasteko, hausturarekiko erreferentzia gaur egun sesio prozesu baten bitartez Espainiako Estatu (Frantziakoa bezala) hausteko apustua da. Ez da zentzuzkoa Espainia mailan haustura demokratiko baterako aukerarik zerumugan agertuko dela itxarotea, eta halako zantzurik ere ez da sumatzen frantziar Estatuan.

Edonola ere, haustura bultzatzeko jarrera honek krisi betean dagoen Europako testuingurua kontuan hartzea eskatzen du. Ez da kasualitatea EAJk Batasuneko kudeatzaile neo-liberalen asebetetzea eragitea, hain justu Kataluniari bere burujabetzaren aldeko apustua itsusten dioten horiek.

Gaur egun haustura-erreforma hautuak duela 40 urte baino nazioarteko (geopolitiko) irismen are nabarmenagoa du. Orain erabaki beharra dago guztia prekarizatzen duen basakeria neo-liberalaren eta herrien burujabetza, elkabizitza, berdintasuna eta ekonomia zein politikaren demokratizazioan indarra jartzen duen alternatiba baten artean. Espainia eta Frantziak jada erabaki dute estatu gisa beren biziraupena agenda neoliberalarekin lotzea, hala FN gisako muntroak sortuz, sistemaren kontrakoak baina honentzat funtzionalak finean, herriar gehientzat kaltegarria den agenda honek eragindako desgastea jaso eta eragile are arriskutsuagoak indartzeko birmoldatuz.

EAJk bere egin du eredu neo-liberalarekiko kritika oro deabruzteko apustua, hala zaku berean sartuz (*populistak*) Le Pen, ezkerreko alderdiak zein independentistak, eta krisi erraldoia eragin dutenak salbatzaile gisa aurkeztuz.

Ez duela 40 urte, ezta orain ere, haustura aldarrikatzeak ez dakar kalearen bueltan sortuko diren matxinada eszenatokietan konfiantza izatea. Ez da hori Txibertako bilkuren gainean zebilena, edota Katalunia zein Euskal Herriko indar independentista-burujabetzaren aldekoak haustura ortzimugak ezartzera daramatzenak. Hautu ausartak dira bai, nagusi diren ereduekin talka egiten dutenak. Baina bideragarriak, egingarriak, posible direnak, azken finean. Horregatik deabruzten dituzte halako suminez.

Franco hil osteko urteetako Euskal Herriko borrokak gogora ekartzea baliogarrri zaigu, lehenik, trantsizio eredugarriaren mitoa kolokan jartzeko eta, batez ere, borroken artikulaziorako ardatzak nabarmentzeko, alegia, une erabakiorretan zerumuga konpartitzen duten eragile eta borroka ezberdinak une jakin batean artikulatzeko horiek.

70eko hamarkadan amnistiaren aldarrikapenaren inguruan borroken artikulazio eraginkor eta indartsua gertatu zen. Odolez ito nahi izan zuten mobilizazio heroikoa izan zen, gainera. Trantsizioa, gogora dezagun, oso bortitza izan zen, bereziki Euskal Herrian, eta lehen urteek salbuespen erregimena normalizatu eta instituzionalizatzeko eszenatoki bati bide egin zioten.

40 urteren ostean, ze paper jokatzen du amnistiak egungo eszenatoki politikoan? Borroka armatuaren osteko mobilizazio eta borroka ziklo berrian ze funtzio har dezake honek? Hausnarketa honetan ageri den auzi iradokitzaileena da hau, geure ustez.

Auzi honi erantzuteko ezinbestekoa da ziklo aldaketa eta aldebakarreko ekimenaren garrantzia kokatzea, baita ETAren jardunbide armatuan mugimendu sozialek izan duten garrantzia ere.

Bigarren mailan, ziklo aldaketa honetan Espainiako Estatuak gidatzen duen sabotai eta euste strategiari so egin behar diogu. Ahal izan duen bezain nabarmena izan da sabotai, baina bere aukerak txikitzen joan diren heinean, eustearen eremura mugitu da, ziklo aldaketak burujabetza aldeko borroka eta independentismoa indartzeko garai baterako bidea egin ez dezan.

Hirugarrenez, ziklo aldaketaren kudeaketan ezker independentistak izandako muga eta akatsak onartu behar ditugu. Testuinguru honetan kokatu behar ditugu hainbat pertsona talde txikik modu kolektiboan eta demokratikoki onartuta erabakiak ez onartu eta presoan eremua erabiltzeko apustua, nahas-mendua sortuz eta, are larriagoa dena, konponbideak lortzea zailduz edozein helburu lortzeko jarrera maximalistak baliatuz. Aurrikus litekeen bezala, estatuek, kritika eta salaketa horien ezagututa, nahiago izan dute hauei ahalik eta oihartzun handiena eman eta prozesua abiatzea oztopatzeko baliatzea.



KALERA
KALERA!
349
KALERA
KALERA!



KALERA

free
THEM ALL

KALERA KALERA!

AKP... ASKATASUN... RA... ZTER...



Itziarren alabak, emakume preso politiko ohiak Usurbilgo kaleragunean. Argazkia: Sortu.



**GERNIKATIK
BAKEA ETA
ASKATASUNERA.**



Preso Politikoen Nazioarteko eguna Gernikan, 2017. Argazkia: Iker Moreno.

Egungo agertoki politikoan... Amnistia konponbiderako osagai gisa

Borroka politikoaren zeregin nagusietako bat ikusmira estrategikoarekin aritzea da. Honek eskatzen du iraganari, orainari eta etorkizunari ikuspegi zabalez begiratzea, baita egunerokoaren erronka premiazkoenei ere. Ez dugu epe motzeko erronketan kateatuta geratu behar, urrunago begiratzeko gai izan behar da, baina egia da nekeza dela alternatiba bat eraikitzea berehalakoari erantzun gabe.

Independentzia, Sozialismoa eta Amnistia Ezker Abertzale osoaren imaginarioaren baitako nahi eta kontzeptuak dira eta, egindako bide luzean, abagune bakoitzeko behar eta ikusmirei egokitu zaie kontzeptuon interpretazioa.

Epe luzeke gatazkek historiko izendapena hartzen dute, eta behartuta daude beren denbora politikoak ireki eta ixten diren garai politiko ezberdinen arabera berkokatzeko, abanikoak bailiran. Helburu estrategikoak berak dira, baina hauei heltzeko eta garatzeko modua aldatu egiten da egoera historiko ezberdinen arabera.

Euskal Herriaren askapen nazional eta sozialerako egitasmoa diktadura frankista betean jaio zen, bere ibilbide osoan ezaugarritu duen oinarri programatiko eta ideologikoarekin: independentzia eta sozialismoa lortzeko pausoak ematea. Bere indarra eta freskotasuna mantentzeko, Ezker Abertzaleak ekarpen eta analisi teoriko-politiko ezberdinetatik edan du, abagune historikoak edota indar harremanek hala bultzatzen zutenean. Batzarren, ebazpenen, agiri programatikoen, eztabaiden... bitartez garatutako teorizazioak. Ibilbide politiko osoaren une gakoak adierazle izan diren teorizazioak, eta helburu estrategikoen garapenean sakontzea helburu izan dutenak: guztiak, une edota epealdi historiko-politiko bakoitzeko ekintza politikoaren erronkei erantzun edota gida eskaintzea helburu izan dutenak.

Ibilbide historiko honetan hainbat epealdi ezberdinu daitezke: diktaduraren kontrako borroka eta honen luzapena, frankismo osteko Trantsizioaren lehen aldia; Erreforma Politikoaren implementazio aldia, Erreformaren normatibizazioa lehenik, eta “demokrazia espainiarraren” ezarpena ondoren. Amaitzeko, berriena, aldaketa estrategikoa zein beste eragileekin batera

mobilizazio, borroka eta aurrerapauso kualitatiboen gauzatzea sustatzeko ziklo berria, Ezker Abertzalearen “Zutik Euskal Herria” agiriaren eztabaida eta onarpenaren ostean abiatuak.

Diktaduraren epealdiaren itxierak eta bai erregimen frankistak zein oposizioak epealdi berri bat zabaltzeko zuten beharrak, interpretatzen jakin beharreko koordinatu berrietan kokatu zituen ekintza politiko eta soziala. Ezker Abertzaleak hala egin zuen, eta abagune politikoa modu egokian irakurtzen jakin zuen. Argi utzi zuen epe historiko berri bat zabaldu ahal izateko lehenago aurrekoa egoki ixtea beharrezkoa zela, eta itxiera horrek amnistiaren aldarrikapena barne hartu behar zuela. Bazeuden indar politikoak, bai historikoak zein sortu berriak, haustura demokratikoaren aurrean erreforma demokratikoaren alde jartzen amaitu zutenak. Azken finean, bideragarri ikusi zutela epe politiko berria zabaltzea lehenago amnistia hori eman gabe, eta askatasun demokratiko osoak onartu gabe ere. Izaera liberaleko, demokristauko edo sozialkristauko erregimenaren kontrako sektoreekin batera, EAJ, PSOE eta PCE, eta azken finean oposizio historikoaren zutabe nagusia osatzen zutenek, azkenean aukera honen alde jarri ziren.

Ezberdintasunak bazeuden, baina baita adostasunak ere, esaterako diktadura eta erregimen honen kontrako borroka preso politikoak, iheslariak eta bestelako errepresio egoerak eragin zituztela, tratatu eta konpondu behar zirenak. Hala ere, bazeuden gatazkaren adierazpen eta ondorio batzuk ez zituztenak denek modu berean bizi izan. Ondorio hauek forma ideologiko, sozial eta politikoa hartu zuten “amnistia” kontzeptuaren bueltan. Haustura edo erreforma defenditzen zutenen aldetik modu berean ulertzen ez zen kontzeptua. Edozein kasutan, borroka dinamikek, Euskal Herrian burutu ziren amnistiaren aldeko lau asteetan adierazpen nagusi izan zutenak, azkenean lortu zen “amnistiaren” izaera baldintzatu zuten.

1977ko amnistiak denbora historiko zehatz bati erantzun zion, baita neurri politiko-juridikoaren eredu eta edukiak ere, garaiko kontraesan eta indar korrelazioei erantzun baitzien. Azkenean eskaini zen amnistiak maila politiko, sozial, gizatiarrean agertu ziren auziei erantzun zion, zein amaiera puntuari. Maila politikoan, diktaduraren epe historikoa ixtea izan zen helburua; maila sozialean, epe berri baten bitartez adiskidetzeko berri bat irudikatuz; maila gizatiarrean, diktadurari aurre egiteagatik kartzelaratuak pertsonak askatzeko beharrari erantzutea; eta, azkenik, frankisten zigorgabetasuna legez bermatzeko asmoa zuten.

Amnistiaren legea hori guztia eta gehiago izan zen, frankismoari aurre egin eta jasan zutenen ikuspuntutik inolaz ere idiliko edo eredugarria. Azken finean, benetan onartu zena pixkanakako “amnistia” bat izan zen, “trantsizioa” deituriko epealdi historikoan espetxean husteko ezinbesteko tresna gisa ulertua.

Abagune hark arrastoa utzi zuen Ezker Abertzalearen izaera politikoan, eta etorkizunerako markatu. Euskal preso politikoak kartzelatik irtetea lortu zen, bai, baina irteera hori ez zen lortu eskatzen zen haustura demokratikoaren testuinguruan. Zigorra amnistiatu zen, baina ez “delitua”, eta borrokak beste koordinatu batzuetan jarraitu zuen, frankismoan baino are gogorragoa bilakatu zen errepresiopean.

Amnistia egungo testuinguruan

Gaur egun, berrogei urte geroago, garai frankistan bezalatsu, agortutako ziklo historiko bat itxi nahi da Euskal Herriaren interesei erantzungo dien beste bat zabaltzeko. Berriz ere Trantsizioko zantzuetakoz batzuk birsortzen dira, eta ziklo zaharraren itxiera eta berriaren zabaleraren artean berriz ere gatazkaren ondorioekin topo egiten dugu. Izen propioa duten ondorioak: presoak, iheslariak eta deportatuak.

Duela lau hamarkada bezala, Ezker Abertzaleak nahiago izango luke gatazkaren ondorioak konponbidean egotea denbora politiko berri bat bere osotasunean zabaldu aurretik. Izan ere, Ezker Abertzaleak aldaketa estrategikoa egin zuenean, lehentasunezko helburu gisa finkatu zuen gatazka armatuaren ondorioekin loturiko egoera guztiak konpontzea. Gatazken konponbidearen teoria zein aditu direnen irizpideei jarraiki, “gatazkaren indargabetzea” lagunduko zuten eszenatokietan jarduten hasi zen Ezker Abertzalea, bortxazko enfrontamenduaren dinamikan eragindako egoera ezberdinei soluziobideak ematearren.

Iraganean Espainiako Gobernuarekin baldintza egokiak zeudenean hainbat egoera konpontzeko eta horien inguruan aritzeko aurre akordioak lortu baziren ere, hauek ez ziren bete. Espainiako Estatua, PPko Gobernu berriak ordezkaturik, prozesu osoa blokeatu zuen Frantziako Estatuaren babesarekin.

Espainiako Estatuak gatazkaren ondorioen (presoak, iheslariak, deportatuak) konponbidearen eremuan ezarritako blokeoak lehen une batean Ezker Abertzalean nahasmena eta harridura eragin zuen. Ez ziren horiek hasiera bateko aurreikuspenak, eta PPren jarrerak nazioarteko komunitateak espero zuen logika politikoari ere ez zion jarraitu. Errealitateak modu tragikoan ezeztatu zuen hainbestetan errepikaturiko “borroka armaturik gabe guztiaz hitz egin daiteke” mantra. Ikuspegi eta planteamendu ezberdintasunak egongo zirela jakinda ere, erantzukizun orokorrak aldeko tesuinguru bat lortzeko eta Euskal Herriak zein Estatuak behar duten bake eta elkarbizitza garatzeko zailtasunak gaindituko zituela espero zen.

Aurreikuspen hauek mahai gainean, Ezker Abertzaleak bere estrategia berriaren lehentasunak ezarri zituen eta “epealdi berrien mailakatzeari” buruzko planteamendua egin zuen. Epealdi politiko berriak gainditzen zihoazen heinean, estrategia orokorra gorpuzten joango zen. Era honetara, garai ezberdinek estrategia politikoki elikatuko zuten, eta Ezker Abertzaleak finkatu zuen gainditzeko lehen fasea gatazkaren ondorioena izan zen.

Alabaina, Estatuak eremu hau blokeatzean, prozesu osoa geratu zen, artegatasuna eraginez eta, era berean, estrategia berriarekiko nolabaiteko konfiantza eza ere sektore txikietan. Sektore hauek estrategia berria espetxeen eremuko lorpenen arabera soilik aztertzen amaitu zuten, alegia errepresaliatu politikoen eremuko aurrerapen, geldialdi edota atzerapausoen arabera interpretatzen askapen nazional eta sozialerako prozesua.

Estatua, jakitun horrelako kontraesanak badirela Ezker Abertzalearen oinarriaren baitan, saiatu zen eta saiatzeko da ikuspegi hau elikatuz baliatzen. Alde batetik, blokeo egoeran sakondu zuen, jada nahiko gogorrek diren diren presoek bizi baldintzei neurri eta jarrera are murriztaileagoak ezarritu eta, bestetik, egoera larrientzat konponbiderako bideak oztapatuz. Gainera, Estatuak errepresioaren bidea erabili zuen kontraesanetan sakontzeko eta Ezker Abertzalean beldurraren osagaia garatzen laguntzeko. Hala, 2013 eta 2014 artean hainbat polizi operazioen bitartez euskal presoekiko elkartasun sare osoa desegituratzen saiatu ziren eta, posible balitz, prozesua oztopatu.

Lurralde batasuna arriskuan jarriko luketen burujabetzaren aldeko indar sozialen metaketa indartuko lukeen prozesu demokratikoa abiatzea oztopatzeko helburuz, Espainiako Estatuak une erabakiorretan bide errepre-

siboa baliatu du. Ezker abertzalearen baitan estrategia aldaketari buruzko eztabaida sustatzeko agiria publiko egin ostean 2009an Bateragunearen kontra jo zuen bezala, lau urte beranduago, 2013an presoek aldeko elkartasun eremu guztia izan zen erasotua. Hain zuzen ere, euskal preso politikoek kolektiboa prest agertu zenean “modu mailakatuan, konpromiso indibidualen bitartez eta denbora-epe arrazoizkoan” eta “etxera itzultzea” helmuga lukeen prozesua aintzat hartzeko. Bi neurriok logika berari erantzun zioten, estrategia bere bidetik ateratzea eta independentziaren aldeko egitasmo politiko osoa baldintzatzea helburu.

Ezker Abertzalearen erantzuna konponbideen bilaketaren eremuan kokatu zen, eta lehen pausoa hausnarketarako, eztabaidarako eta erabakiak hartzeko Ezker Abertzale osorako markoa egituratu zuen, Abian prozesua alegia. Ekimen Honekin, Ezker Abertzalearen estrategia orokorraren zuzenketa, ekarpen eta egituratze aldia abiatu zen.

Prozesu honen lehen ondorioa “fase hierarkia” strategiaren berregokitzea izan zen. Hortik aurrera, fase nagusia egitasmo independentistak ordezkatzeko du, eta gainontzeko faktore guztiak ardatz nagusi honen garapeneraren pean izango dira. Formulatzeko berri honek espespetxeen eta erbestearen eremua interpretatzeko moduari ere eragin dio, alderikotasun hipotetiko baten zain egon gabe esparru honetan ere aldebakartasunaren estrategia txertatuz. Geure indar eta erabakitasuna dira errepresaliatuen eremuan aurrerapausoak eskainiko dizkigutenak, eta ez gobernu edo estatuen borondateak edo honen ezak.

Amnistia aldebakartasunaren markoan

Estatuak nahi izan du eta nahi du gerra logika eta terminologia baliatzea, estrategia aldaketaren ondoren lorturiko ekimen politikoa baliogabetzeko. Eta joko-eremu politikoan bi bitartekorekin egiten du: inmovilismoa eta espazio politikoaren blokeatzea; garaileak eta garaituak eremu militarrean.

Aurreko borroka fasean gatazkaren konponbiderako eskema oso lotua egon zen ETA eta Estatuaren arteko negoziaketa prozesu bati. Prozesu horretan ez lirateke gatazkaren gako politikoek soluziobideak soilik zabaldu behar, baizik eta baita urte luzez gatazka latzak eragindako ondorioen konponbidea

ere. Hau da, gatazka politikoaren negoziaketa hitzarmenaren ondorioz, presoen, iheslarien eta deportatu politikoen gaiak konponbide integrala luke.

Konponbide eredu horretatik aldentzeak errealitate berrira zentzu guztietan egokitzeko beharra utzi zuen agerian. Gaur Ezker Abertzaleak ezin du oinarri taktiko batzuen aldarrikapenari lotuta mantendu, totem bat balira bezala. Aldebikotasuna, beti bezain desiragarria izanda ere, ez da bideragarria estatuek uko egiten diotelako. Geure herriaren, eragileen eta eskaeren aurrean burujabetza galera bezala ikusten dute, eta ez daude horretarako prest. Errealitate honek alor guztietan geure ekimen propioak erabakitzera behartu gaitu.

Ezker abertzaleak, beraz, aurreko zikloko gatazkaren ondorioen konponbide markoa garatu du, kontuan izanda indar erlazioen errealitatearekiko ikuspegia zein Estatuek eremu honetan pausoak emateko borondate eza. Indarraren arrazoa erabiltzen den gatazka politiko guztietan badago atal garrantzitsu bat aldean artean adostu behar dena, gatazkak eragindako ondorioen konponbidearena, alegia. Hala izan da gertu sumatu ditugun eta ezagunago izan ditugun prozesuetan, Hegoafrikan, Ipar Irlandan, eta berrikiago Kolonbian. Gatazka ba-koitzak bere ondorioak konpontzeko baliatzen dituen ereduak dira.

Euskal gatazkaren konponbidean, blokeoaren aldeko apustu estrategikoaren aurrean, berritzera behartuta gaude. Gaur gaurkoz zaila egiten da irudikatzea epe motzean behintzat Espainiar Estatuarekin aldebikotasunez aritzeko etorkizun bat. Ezker Abertzaleak ez dio uko egingo eszenatoki horri, baina ez da besoak gurutzatuta zain geratuko ortzimugan ikusten ez den zerbaiten zain.

Une honetan estatuko buruzagien eliteak ez daude konponbide ikuspegian. Garaipena irudikatu nahi dute, Ezker Abertzale ilegalizatu eta jazarriak aldaketa estrategikoa egin zuenean ihes egin ziela uste duten hori. Ezin da ukatu urteak lehenago Estatuak Ezker Abertzalearen ilegalizazioa sustatu zuela hau eremu militarera mugatzeko, eta bertan gatazkari behin-betiko amaiera emateko. Hala ere, Ezker Abertzaleak auzi politikoa erdigunean kokatuz erantzun zuen, eta estrategia aldatetari bide eman, aurreikusitako garaipen argazki hori itxuragabetuz eta gatazka zein honen aldeak eremu politikora eramanez.

Denbora honetan guztian, Espainiako Estatuak, gehienetan Frantziakoa albora eramanez (behintzat armagabetzearekin loturiko azken gertakarietara arte), ez da geratu eta hiru osagai nagusi baliatu ditu "bere" garaipena irudikatzeko.

Lehenik eta behin, saiatu da ezker independentista berak frustrazio eta etsitze gisa barneratu dezan garaile-garaitu kontakizun ofiziala. Bigarrenik, armak polizialki konfiskatze eszenatokiari lehentasuna eman dio. Eta, hirugarrenik, Euskal Preso Politikoen erabilpena eta higaduraren bitartez gauza bera bilatuz. Estatuak barneratua dauka Ezker Abertzaleak ez diela lagunduko garaipen polizialaren kontakizuna ontzat ematen. Armagabetzea jada egina dago, nahiz eta Estatuak saiatu den oztopatzen, eta bere indar guztiekin eragozten saiatu arren, azken argazkia hor dago. Beraz, preso, iheslari eta deportatuen eremua soilik geratzen zaio, eta honetan Estatuak oso krudel ari da jokatzeko.

Ezker abertzalearen erantzukizuna preso, iheslari eta deportaturik gabeko Euskal Herri baterako ekarpen erabakiorra egitea da. Ez badugu Estatuaren aldetik adostutako konponbide marko bat ezartzeko alde bikotasunik espero, geure marko propioa aurkeztera behartuta gaude. Estatuak erabaki du jada zein den berea: garaileak eta garaituak. Geureak “Kalera, Kalera” dioen maximetri jarraitzen dio, ahalik eta azkarren preso, iheslari eta deportatu guztien etxeratzea posible egitea, alegia, horretarako geure eskura dauden baliabide guztiak erabiliz, direla juridikoak (legeria arrunta), sozialak (soluzioen aldeko bloke sozial zabala) zein politikoak (adostasun instituzionalak).

Amnistiaren kontzeptua eszenatoki ezberdinetan

Ziklo historiko bateko kontraesanak islatu eta bideratzen diren eszenatokiak ziklo historiko bera bezain iraunkorrak izaten dira. Gauza bera esanenezake epe motzeko helburuen garapenari dagokionez ere. Zikloa, fase politikoa edo konfrontazio paradigma aldatzen denean, ez dira helburu estrategikoak (epe luzekoak) egokitu behar direnak, epe motzekoak baizik.

Aurreko zikloetan, izaera propioz proiektatu zen eszenatoki baten bat amnistiarena izan zen. Azken hamarkadetan zehar, hainbat izan dira kontzeptu honi egin zaizkion interpretazioak edota eman zaizkion esanahiak, eta guztiek dute zerikusia garai horretako behar eta errealtate politikoekin. Adibidez, trantsizio garaian, lortu nahi zen amnistiak gatazka eszenatoki ezberdinetan interpretazio partikularra izango zuen. Erreforma politikoa defenditzen zutenek presoek kaleratzea eta iheslariak indultu orokor baten baitan itzultzea interpretatzen zuten, azken finean 1977an gauzatu zena. Kontrara, Frankismoan errepresioa jasan zutenek, amnistia frankismoaren

delituak ez jazartzearen truke jasotako prozesu bezala ulertu zuten azken finean, inpunitate prozesu gisa alegia.

Garai hartan haustura demokratikoa defenditu zutenek amnistia beste emaitza politikoei lotuta ikusten zuten, hala nola autodeterminazio eskubidea, indar errepresiboen disoluzioa, erantzukizunen garbiketa... presoak askatzeaz gain. Amnistia eredu hau ez zen inoiz gauzatu ahal izan, babes herritar handia izan bazuen ere. Garai eta esperientzia hartatik datoz berau ezaugarritzeko baliatu diren izendatzeak, “Amnistia orokorra”, “Amnistia denontzat” edota “Amnistia Osoa”. Hau da, presoen irteera eta iheslarien itzulera gatazka politikoaren konponbide politiko integralari lotuta amaitu zuen. Ez soilik ondorioak gainditzea, baita gakoak ere. Ikuspegi honek garaiko eskaerak, arazoak eta beharrak ulertzeko modu zehatza agertu zuen. Denboran salto eginez, ikuspegi hau ez litzateke baliogarria izango beste eszenatoki batean, eta beraz ezin da mimetikoki birkokatu.

Azpimarratzekoa da amnistiaren aldarrikapena ez dela helburu estrategiko bat bere baitan, borroka prozesu osoaren parte baizik. Ezker Abertzalearentzat amnistiaren aldeko borrokak izaera taktikoa izan du, unean uneko strategiara egokitutako papera, borroka politiko eta aldarrikapen ezberdinen bitartez artikulatua. Adibide argia dugu Ezker Abertzaleak borroka erreferentzia gisa KAS alternatiba zueneko. Alternatiba honetan amnistia aldarrikatzen zen. Baina ez izaera oso eta estrategikodun amnistia, ezin zuen ala izan, KAS alternatibak berak ere izaera taktikoa baitzuen. Amnistiaren aldarrikapenak testuinguru honetan KAS alternatiba osoaren inguruko indar metaketa aktibatzeke funtzioa betetzen zuen, presoek kalekatzea eta iheslari zein deportatuen itzulera bermatuko lituzkeen amnistia eredu lortzeko ETA eta Estatuaren arteko negoziaketa bultzatuz.

Amnistiaren kontzeptuak interpretazio ezberdinak izan ditu Ezker Abertzalearen baitan unean uneko behar politikoen arabera, baina beti borrokaren beharren menpeko alderdi bezala. Alabaina, hau ez da inoiz arazo izan euskal preso politikoentzat. Berrogei urteotan amnistia interpretatzeko modu ezberdinek ez dituzte kontraesanak ekarri borrokarekin engaiatuen izan diren sektoreetan.

Amnistia herriak eskuratu behar du, jendarteak, eta horretarako indar metaketarako gaitasuna izango duen egitasmoa garatu behar da, bideragarri dena. Amnistia dinamikoa deitu dezakeguna, Estatuaren harresian arraka-

lak irekitzeko helburu duena. Gure presoak irteten joan daitezten arrakalak, 2016ko martxoan EPPKren alde preso ohiek “Amnistiaren norabideak presoak Kalera” agirian aldarrikatu zuten bezala. Bestela esanda, Amnistiaren bidean, lehen geltokia KALERA da.

Ikuspegi honen arabera, lehenetsuen arabera borroka aktibatu behar da: preso gaixoak KALERA, preso adinduak KALERA, hiru laurdenak beteta dituzten presoak KALERA, seme-alabak dituzten ama eta aita presoak KALERA... Hau da amnistia dinamikoa deitzen duguna, egunari zain egon beharrean lehenetsuen arabera espetxeak husten joatea. Gaur egungo errealitate objektiboa kontuan izanda irudika dezakegun amnistia/kaleratze eredu, alegia. Gure bihotzen indar osoarekin diogu: geure preso, iheslari eta deportatuak ahalik eta azkarren geure kaleetan, beren famili eta lagunekin, independentziaren aldeko estrategian ekarpena egiten jarriko dituen amnistia eredu nahi dugu, KALERA da leloa.

Hala ere, kosta egingo da, borrokatu egin beharko delako eta bidean topatuko dugulako zigorrak osoki betetzeko 7/2003 salbuespen legea. Eta borrokatuko da lau hamarkadatan borrokatu den bezala, ezin ditugulako presoak espetxean geratzera kondenatu Espainiako Estatuaren borondatea aldatu bitartean.

Amnistiaren parametroak

Amnistiaren amaierako helburua lortzea luze eta okerra aurreikusten da, bereziki orain enfrentamendu armatua amaitu dela eta paradigma aldatu. Alabaina, honek ez du inolaz ere esan nahi bitartean, amnistiaren bidean, kaleratzeak bilatu eta lortuko ez direnik. Aitzitik, horretan gaude. Ezin ditugu presoak beren ziegetan kartzelaratuta izan duela berrogei urte ulertzen genuen moduko amnistia lortu arte.

Amnistiaren bidean behartuta gaude formulak eta bitartekoak topatzera, etxera ahalik eta azkarren ekarri arte. Geurekin behar ditugu, beren familiekin, eta hain justu horregatik garaia da presoen bahitu politiko izaerak estatuentzat trukerako txanpon gisa balio gero eta gutxiago izango duen estrategia independentista sendotzeko.

Estatuen aldetik alde bikotasunerako ezintasunaren aurrean marko berria sortzeaz ari garenean, gatazkaren konponbiderako geure bide-orri propioa osatzeaz ari gara. Markoa eta metodoa eraikuntza fasean daude, eta biek osatuko dute eredu. Markoa Foro Sozialean oinarrituko da, honek paper erabakiorra izango baitu presoen kaleratzea eta iheslari zein deportatuen itzulera baimenduko duen bide orria eraikitze adostasun sozial, politiko eta instituzionalen artikulazioan.

Metodoa bera ere eraikuntza fasean dago. Antolakunde sindikal, politiko, sozial eta instituzionalek osatutako indar soziala artikulatzean datza. Honetan eremuak zabaldu eta konponbideak bilatu, Euskal Preso Politikoen Kolektibo argia eta ausarta izaten ari da fase honetako beharretara egokitzeko. Garaile eta garaituen eszenatokia irudikatzeko itxaropen eza eta artegatasuna eragiteko helburuz Estatua blokeoa eta inobilismoa tresna gisa baliatzen ari dela ulertuta, aurrerapauso bat ematen jakin dute, eta eremu guztietan agerian uzteko gertu dira.

Ikusteko dago Estatu Frantsesaren estrategian aldaketarik egongo ote den. Baina argi dago Espainiarrak denbora kontra duela uste duela. Kolektiboa prest dago fase konplexu honi aurre egiteko, nahiz eta kontraesanak gaintitu beharko dituen, eta borroka molde zahar zein berriak uztartzeko erronkari heldu.

Beharrezko bilakatzen da, beraz, Frantzia eta Espainiako Estatuen aurkako borrokarako prest direnak babesteko mekanismoak bilatu, topatu eta abian jartzea. Agian ez da aurreko garaietan bezalako borroka dramatiko eta epikoa izango, baina edozein kasu borrokaren eremuetako bat legeria arrunta eta espetxe-legedia izango da. Etorkizuneko erronkak izango dira eremu guztietako itxikeriari aurre egin, eta salbuespen legeriari mugak ezartzea, bereziki zigorrak osoki betetzeko 7/2003 legea. Errepresaliatuek ezin dute bakarrik egon borroka honetan, eta prozesu hau aurrera eramateko Kolektiboak laguntza eta babes behar du. Eta babes onena euskal jendarrea da.

Ezker Abertzaleko kideok borroka eremu batzuetan oso ondo mugitzen jakin izan dugu, baina beste batzuetarako ulermena eta egokitzea falta izan zaigu. Beste egoera batzuetan, sufrimendua, gose grebak, itxialdiak, mobilizazio eta aktibismo anitzak eramaten jakin ditugu, baina garai berrietan horrez gain irekitzeko beharra dugu, eta gainontzeko eragileak pasibotasunaren eremu erosotik irtenarazten jakin. Blokeo egoeratik irtetzea lortzeko

lortzeko modu bakarra dago, gatazkaren ondorioen osoko konponbidearen defentsan jendartea gero eta aktibatuagoa lortzea, herri hau demokrazia eta elkarbizitza zein bake iraunkorrerako beste eredu bat erdiesteko. Ziklo baten amaiera zein beste baten hasiera bultzatuko dituen marko egokirako gehiengo soziala.

Amnistia ziklo berrian, amaierako argipenak

ETA eta Estatuaren arteko negoziaketa zikloa abiatu zenetik, alegia, Argelitik, euskal militante politiko kartzelaratuak jakitun izan dira preso, iheslari eta deportatuen arazoa ez zela aministia izatera juridiko itxi batetik etorriko, espetxeratuak irtetea eta iheslariak etxeratzea bideratuko luketen neurri adostuen bitartez baizik.

Presoen eremuan, aldean arteko adostasun hipotetiko baten bidez konponbidea bilatzeari buruzko kontzientzia bazegoen. Ez alferrik, Argelen aztertu ziren hirugarren herrialdeak “odol delituak” zituzten presoentzat, negoziaketa beste maila batzuetara igarotzen zenerako. Konponbide hori, duela berrogei urte iheslariekin gertatu bezala, ez zen amnistia bat, baina aukera baliogarria edonola ere testuinguruaren arabera, espetxeak hustutzen joateko.

Ezker Abertzaleak, konponbideetara itxi beharrean, amnistia eta gatazkaren ondorioen konponbidea modu dinamiko horretan ulertzen jarraitzen du. Presoen gaiarekin ezin da ez joko espekulatzaileren arabera jokatu, ezta kalkulu politikoen arabera ere. Jokoan dagoen partida politikoa irudikatzen duen xake partidari, preso, iheslari eta deportatuek peoi izateari utzi diote, erregina bilakatzeko.

Etsipenik gabe heldu behar zaie espetxeetako eta erbesteko egoerari, baina bereziki koherentziaren izenean Estatu Espainiarrak eskaini dezakeen amnstiaren zain geratzearen tentaldiari aurre eginez. Azken finean, jarrera horrek erabaki eremu osoa Estatuaren esku uzten du. Bere ordenamendu juridikoan zein gatazka irudikatzeko moduan amnistia inolaz ere aurreikusten ez duen Estatu baita.

Presoen kaleratzea eta iheslari zein deportatuen etxera itzulera, konfrontazioaren zikloa behin-betiko ixteko konpromisoa hartzen duten eragile

sozial, politiko eta instituzionalek adostutako bide orri baten diseinutik etorriko da. Amnistiaren bidea libre geratuko da egungo jendeartearen errealitatean oinarrituriko prozesu sozial batekin, zeinak sakabanaketa-ekin amaitzeko, preso gaixoentzako konponbideak topatzeko eta preso guztiak kaleratu eta kanpoan daudenak etxeratzeko bidea diseinatzeko borondateak aktibatu beharko dituen. Konplexua izango den prozesua, eta irudimentsua, ez bat-batekoa eta ziur aski mailakatua.

Argi dago amnistiaren kontzeptua aldatu egiten dela nork eta zein testuingurutan erabiltzen duenaren arabera. Amnistia mesfidantzaz begiratzen da nazioarteko eremuan, inpunitatearekin lotu daitekeelako. Alabaina, beste batzuek, Ezker Abertzaleak barne, zentzuz bete behar den kontzeptu bezala interpretatzen dute, konponbidearen osagai gisa.

Guretzat oso gertukoa den Irlandako prozesuan, eta ezberdintasunak ezberdintasun, presoen egoeraren konponbidea banakako agirietan sinatu ziren baldintza batzuen onarpenaren bitartez lortu zen. Irlandan ez zen amnistiarik egon, Ostiral Santuko akordioaren osteko presoek kalera-tzea egon zen. Atzeraeraginezko birgaitze onarpenik ere ez zen egon. Hala ere, espetxeak hustutzeko prozesua gauzatu zen, gatazkan parte hartu zuten erakunde armatuen eta akordiaren beharrak asetuz. Eredu honek egoera jakin bati erantzun zion, konponbide eredu jakin bati, eta berezitasun hauek ezarri zuten irlandar presoek aferaren konponbideari aurre egiteko estiloa eta modua. Banakako erabakietan oinarrituriko konponbidea izan zen, ohiko amnistiaren parametroetatik urrun. Irlandan ez zen amnistiarik eskaini, baina ereduak kaleratze masiboa aurrera eramateko balio izan zuen.

Hala, amnistia egungo ziklo politikoan kokatzea dagokigu, bere buruaren gero eta jabeago eta aktiboago den euskal jendarte baten testuinguruan aldarrikapen nagusi izan dadin. Bere etorkizunaren jabe egiten ari den jendartea, eta preso zein errefuxiatuen etxera itzulera zikloaren amaiera eta elkarbizitza demokratiko justu baten eraikuntzarako zein zikloa ixteko oinarrigisa kokatzen duena. Ez da Ezker Abertzalearen borroka “partikularra”, eta ez zaio lotzen erakunde armatu batekiko edota egitasmo edo estrategia batetik atxikimenduari, baizik eta iraganeko zauriak nola sendatu nahi dituen eta bere etorkizuneko ereduak zein den erabakitzen duen jendarte baten ortzimugari baizik.

Zentzu honetan, Amnistiak ez du esan nahi soilik errepresaliatutako pertsona guztientzat askatasuna, baizik eta salbuespen erregimenarekin amaitzea eta inolako estatuak bere tresna errepresiboak inposatu ahal ez izatea. Hau, noski, independentzia lehen baldintza izanik soilik da posible. Ortzimuga horretan kokatzen dugu XXI. mendeko ezker abertzaletik amnistia, eta erronka dugu ikuspegi hau beste eragile eta sektoreekin elkarbanatzea, guztien artean birformulatzeko, eta gure artean ez daudenak ahalik eta azkarren ekartzeko auzolan erraldoi baten motore bilakatzeko.

Duela berrogei urte gau luze frankista eta haren atzean uzteko ilusioak milaka pertsona kalera atera zituen amnistia aldarrikatzeko. Orain pertsona errepresaliaturik gabeko Euskal Herri bateko amnistia gauzatzeko borroka berriz ere emozio politiko eraldatzailea da, bizitza hobe baterako aldaketarako motore, azken finean herri honetako borrokalariak mundu honi beti eskaini nahi izan dioguna.



Amnistiaren aldeko astean 40 urteurrenean, manifestazioa Oretetan, 2017 Maiatzaren 14an. Argazkia: Juan Carlos Ruiz.





Fleury Merogis-eko espetxera martxa, 2017ko maiatzaren 20a. Argazkia: Sortu.

Bibliografía

Nuñez, Luis (Koord), Egaña, Iñaki eta beste batzuk (1993) *Euskadi eta Askatasuna Euskal Herria y la libertad. Tomo V La Reforma del Regimen 1977-1980*. Tafalla. Txalaparta 1993.

Aoiz, Floren (2005). *El jarrón roto*. Tafalla. Txalaparta.

Castells, Miguel (1978). *El mejor defensor el pueblo*. Donostia, Ediciones Vascas.

Castells, Miguel (1977). *Los procesos políticos (De la cárcel a la amnistía)*, Madrid. Edit. Fundamentos.

Letamendia, Francisco (1980) *Breve historia de Euskadi*. Madrid. Ruedo Ibérico.

Letamendia, Francisco (1990). *Euskadi. Pueblo y Nación*. Donostia. Sendoa.

Monzón, Telesforo (1986). *Hitzak eta idaztiak*. Donostia. Jaizkibel.

Urrutia, Txema (2006). *Alcaldes en lucha*. Tafalla. Txalaparta.

Casanova, Iker (2007). *ETA 1958-2008 Medio siglo de historia*. Tafalla. Txalaparta.

Apalategi, Jokin (1978). *Askatasunaren Ibilaldia*. Donostia. Elkar

Apalategi, Jokin (1985). *Los vascos, de la autonomía a la independencia*. Donostia. Ed.Txertoa.

Arregi, Natxo (1981). *Memorias de KAS (1975-78)* Donostia. Hordago.

Unzueta, Patxo (1995). *Euskadi: amnistía y vuelta a empezar. Memoria de la Transición*. Madrid. El País, SA.

Iratzar Fundazioa. Sakontzen 2 (2016). *Las lecciones de la lucha por la ruptura Democrática*. Donostia. Iratzar.

Punto y Hora. N° 36 Amnistía a sangre y fuego. 25 de mayo de 1977.

Punto y Hora. N° 37 Más exiliados. 1 de junio de 1977.



Puerto de Santamariako espetxera martxako argazkia, 2017ko maiatzak 20. Argazkia: Irati Gutierrez.



Udaberrin

KALERA

WELFARE SOCIETY







KORAPILOA

S A I L A

Iraganari buruzko analisi eta ikerketa liburu honek hasiera ematen dio *Korapiloa* izeneko *Iratzar Fundazioaren* argitalpen bilduma berriari.

Korapiloa egitasmoaren bitartez iragana, gaur egungo egoera eta etorkizuna uztartu nahi ditu. Iraganari buruzko prospekzio ariketak, ikerketa, analisia, hausnarketa nahiz eztabaida bultzatu nahi dira, egungo errealitate politikoaren ulermena ahalbidetzeko eta etorkizuneko gakoetan aurrera egiteko. Egitasmoak, egundaino lekukotzak, dokumentuak, bideoak, audioak jasoak ditu denbora leerroaren bitartez (www.iratzar.eus/korapiloa) baita zenbait kaiera argitaratuak ere.

Bildumaren lehen argitalpenean, errelatoaren eta borroka ideologiakoaren auziak haritu nahian, 1977.urtea izan dugu ardatz, data hartatik 40.urteurrena betetzen den honetan. Urte garrantzitsua izan zen Euskal Herriarentzat eta ezker abertzalearentzat. Erreforma politikoa ezarri nahi izan zuten garaia bereziki bizia izan zen politikoki, antolakuntzari eta mobilizazioei dagokionez; baina zalantzarik gabe 1977.urtea amnistiaren urtea izan zen.

Iraganetik ikas dezagun beraz, etorkizuna irabazteko!

Lege Gordailua: SS 197-2105

ISBN: 978-84-697-2931-1

